

4

EMAKUMEAK

ETA HEZKUNTZA

EUSKAL

AUTONOMI

ELKARTEAN



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EMAKUMEAK
ETA HEZKUNTZA
EUSKAL
AUTONOMI
ELKARTEAN

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1993

IZENBURUA: "Emakumeak eta hezkuntza Euskal Autonomi Elkartean"

EGILEA: EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

DATA: Apirila 1993

ALE ZENBAKIA: 2.000. (lehenengo argitalpena)

DESKRIPTOREAK: Hezkuntza, hezkuntzako sarbidea, irakastuntza mailak, arautu gabeko irakaskuntza, irakasleak, datu estatistikoak, jarrerak

IRUDI DISEINUA: Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia

FOTOKONPOSATZAILEA: RALI, S.A.
Particular de Costa, 12-14, 48010 Bilbo

INPRIMATZAILEA: Gráficas Santamaría, S. A.
Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz.

I.S.B.N.: 84-87595-20-0

LEGE GORDAILUA: VI-334/93

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	13
ERABILITAKO ITURRIAK ETA METODOLOGIA	17
LEHENENGO ZATIA	
ZENBATEZKO AZTERKETA	
SARRERA	25
1. EMAKUMEEN IKASKETA-MAILA E.A.E.an	29
1.1. Analfabetismoa	33
1.2. Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeak	35
1.3. Lanbide heziketa duten emakumeak	38
1.4. Bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeak	40
1.5. Erdi/Goi-mailako ikasketak dituzten emakumeak	43
1.6. Goi-mailako ikasketak dituzten emakumeak	45
1.7. Arautu gabeko ikasketak dituzten emakumeak	48
2. EMAKUMEAK HEZKUNTZA SISTEMAN	51
2.1. Emakumeak ikasle gisa E.A.E.ko hezkuntza sisteman	53
2.1.1. Aurrekolako Hezkuntza	54
2.1.2. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra: OHO	55
2.1.3. Irakaskuntza Ertainak, IE	58
• Lanbide Heziketa, LH	59
• Irakaskuntza Ertainen Erreforma, IEE	63
• Batxilergo Bateratu eta Balioanitza, BBB eta Unibertsitatera Bidera- tzeko Ikasturtea, UBI	64
2.1.4. Helduen Hezkuntza Iraunkorra	67
2.1.5. Hezkuntza Unibertsitaria	69
2.2. Emakumeen egoera arautu gabeko irakaskuntzan	72
2.2.1. Osabidezko Hezkuntza	72
2.2.2. Lanbide-Hastapena	73
2.2.3. INEM delakoa	74
2.3. Emakumeak hezkuntza sistemako profesionari gisa	76
2.3.1. Emakumeak hezkuntza sistemako irakasle gisa	76
2.3.2. Emakumeak hezkuntza sistemako langileria ez-irakaslearen artean	81
3. NAZIOARTEKO ERKAPENA	83
3.1. Emakumeak hezkuntza sistemako ikasle gisa	85
3.2. Emakumeak irakasle gisa	90

4. IKASTETXE ESKLUSIBOAK	95
4.1. Aurrekolako ikastetxe eskusiboak	98
4.2. OHOk ikastetxe eskusiboak	99
4.3. LHko ikastetxe eskusiboak	100
4.4. BBBko ikastetxe eskusiboak	101
5. ONDORIOAK	103
ERASKINAK	109
A.1. Taulak	111
A.2. Erabilitako siglak	121
 BIGARREN ZATIA	
 EMAKUMEEN EGOERA HEZKUNTZA SISTEMAN IRITZIAK ETA JARRERAK	
SARRERA	125
1. HEZKIDETZA ETA IRAKASKUNTZA MISTOA	129
1.1. Hezkidetza ala irakaskuntza mistoa?	131
2. NESKAK ETA MUTILAK HEZKUNTZA SISTEMAN	135
2.1. Tratu berbera?	138
2.2. Igurikapen berberak?	139
3. GIZARTERATZEA: FAMILIA/ESKOLA	143
4. IRAKASLEGOA GENERO ESTEREOTIPOEI EUSTEN DIEN TRESNA GISA	149
5. TESTU LIBURUAK ETA GENERO ESTEREOTIPOEN IRAUNARAZPENEAN DUTEN ERAGINA	155
6. NESKA/MUTILEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK	159
6.1. Adimena	161
6.2. Gaitasun fisikoa	163
6.3. Zirrara arloko ezberdintasunak	164
7. IKASKETA ETA LANBIDE MASKULINOAK ETA FEMENINOAK	167
8. ALDAKETARAKO AHALBIDEAK	173
9. ONDORIOAK	179
BIBLIOGRAFIA	185

TAULEN AURKIBIDEA

	Orr.
1. EMAKUMEEN IKASKETA-MAILA E.A.E.AN	29
1.1. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	31
1.2. Ikaslea ez den 10 urte edo gehiagoko biztanleria, egindako ikasketen arabera eta sexuka E.A.E.an	32
1.3. E.A.E.ko analfabetismo tasak adinaren eta sexuaren arabera	33
1.4. E.A.E.an ikaslea ez den 10 urte edo gehiagoko biztanleria analfabetismo funtzionalaren mailaren arabera eta sexuka	34
1.5. Biztanleria aktiboa eta analfabetoa iharduera sektoreka, sexuaren arabera	34
1.6. 10 urte edo gehiago izanik, lehen mailako ikasketak dituzten emakumeak adinaren arabera E.A.E.an	36
1.7. 10 urte edo gehiago izanik, lehen mailako ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	36
1.8. 10 urte edo gehiago izanik, lehen mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	37
1.9. 10 urte edo gehiago izanik, lanbide heziketako ikasketak dituzten emakumeak adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	38
1.10. 10 urte edo gehiago izanik, LHko ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	39
1.11. 10 urte edo gehiago izanik, LHko ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera E.A.E.an	39
1.12. 10 urte edo gehiago izanik, bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	41
1.13. Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	41
1.14. Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	42
1.15. 10 urte edo gehiago izanik, erdi/goi-mailako ikasketak dituen biztanleria adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	43

1.16.	Erdi/goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	44
1.17.	Erdi/goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	44
1.18.	10 urte edo gehiago izanik, goi-mailako ikasketak dituen biztanleria adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	46
1.19.	Goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	47
1.20.	Goi-mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, iharduera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an	47
1.21.	Arautu gabeko ikasketak egiten ari diren emakumeak, espezialitatearen arabera, E.A.E.an	49
2.	EMAKUMEAK HEZKUNTZA SISTEMAN	51
2.1.	Emakumeen eskolatzetasak E.A.E.an, mailaka	54
2.2.	Aureskolako ikasleen banaketa irakaskuntza-mota eta sexuaren arabera E.A.E.an	54
2.3.	OHOeko ikasleak sexuka, zikloaren arabera E.A.E.an	56
2.4.	OHOeko errepikatzailak sexuaren eta zikloaren arabera E.A.E.an	57
2.5.	Eskola-graduatuak eta eskola-ziurtagiridunak sexuka, irakaskuntza-motaren arabera E.A.E.an	57
2.6.	IEen aukeraketa, sexuaren arabera E.A.E.an	58
2.7.	LHko ikasleak sexuka, mailaren arabera E.A.E.an	59
2.8.	LH leko ikasleak irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	60
2.9.	LH IIko ikasleak irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	61
2.10.	LHko errepikapenak sexuka, irakaskuntza-motaren arabera E.A.E.an	62
2.11.	IEE ikasten ari direnen banaketa sexuka eta irakaskuntza-motaren arabera ..	63
2.12.	IEEko errepikapenak sexuka eta zikloaren arabera E.A.E.an	64
2.13.	BBB eta UBIIko ikasleak sexuaren arabera	64
2.14.	BBB ikasten ari den biztanleria sexuaren arabera E.A.E.an	65
2.15.	UBI ikasten ari direnak sexuaren arabera E.A.E.an	65
2.16.	BBB eta UBIIko errepikapenak irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	66
2.17.	BBB eta UBIIko ikasturteak gainditutako ikasleak sexuaren arabera E.A.E.an ..	66
2.18.	HHleko ikasleak sexuaren eta zikloaren arabera E.A.E.an	68
2.19.	HHI ikasten ari diren emakumeak zikloaren eta adinaren arabera E.A.E.an ...	68

2.20.	HHleko ikastetxeetan 89-90 ikasturtean lortutako titulazioak sexuaren arabera E.A.E.an	68
2.21.	Unibertsitate-ikasketak egiten ari direnen banaketa sexuaren arabera E.A.E.an	69
2.22.	Unibertsitariak sexuka eta ikasketa-programaren arabera E.A.E.an	70
2.23.	Osabidezko hezkuntzako ikasleak E.A.E.an	73
2.24.	Lantegi-Eskola eta Ofizio-Etxeetako ikasleak sexuaren eta herrialde historikoaren arabera	74
2.25.	INEM delakoak 1990. urtean zehar trebatutako langileak sexuaren arabera E.A.E.an	75
2.26.	E.A.E.ko irakaslegoa sexuaren arabera	77
2.27.	E.A.E.ko aurrekola eta OHOeko irakasleak sexuaren eta irakaskuntza-motaren arabera	78
2.28.	E.A.E.ko LHko irakasleak sexuaren eta irakaskuntza-motaren arabera	78
2.29.	E.A.E.ko BBB eta UBiko irakasleak sexuaren eta irakaskuntza-motaren arabera	79
2.30.	E.A.E.ko HH lko irakasleak sexuaren eta irakaskuntza-motaren arabera	79
2.31.	E.A.E.ko unibertsitateko irakasleak sexuaren eta programa-motaren arabera	80
2.32.	E.A.E.ko langileria ez-irakaslea sexuaren arabera	82
3.	NAZIOARTEKO ERKAPENA	83
3.1.	E.A.E.an eskolatutako biztanleria 1989-90 ikasturtea	85
3.2.	Ikasten ari diren emakumeak irakaskuntza-mailen arabera	86
3.3.	E.A.E.ko IEko ikasleak 89/90 ikasturtean sexuaren arabera	86
3.4.	Unibertsitateko irakaskuntza-graduka sailkatutako ikasleak sexuaren arabera	88
3.5.	E.A.E.an irakasten ari diren emakumeak irakaskuntza-motaren arabera 1989-90 ikasturtea	91
4.	IKASTETXE ESKLUSIBOAK	95
4.1.	E.A.E.ko ikastetxe esklusiboak 1988-89 ikasturtean herrialde historikoka	98
4.2.	Ikastetxe esklusiboak ikastetxe esklusiboetako aurrekolako ikasleak sexuaren arabera irakaskuntza pribatuan	99
4.3.	Irakaskuntza pribatuko aurrekolako ikasleak irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera	99
4.4.	Irakaskuntza pribatuko OHOko ikasleak sexuaren arabera ikastetxe esklusiboetan	100
4.5.	LHko ikastetxe esklusiboak eta ikasleak irakaskuntza pribatuan herrialde historikoka eta sexuaren arabera	100

TAULA ERANSKINEN AURKIBIDEA

	Orr.
A.1. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria analfabetoa eta analfabetismo-tasa, sexuaren arabera E.A.E.an	111
A.2. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria, titulazioaren, etxeko lanekiko loturaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	111
A.3. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria ikasle ez dena, burututako erdi/goi-mailako ikasketen eta sexuaren arabera E.A.E.an	112
A.4. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria ikasle ez dena, burututako goi-mailako ikasketen eta sexuaren arabera E.A.E.an	113
A.5. Arautu gabeko heziketako ikasketak egiten ari den biztanleria sexuaren arabera E.A.E.an.	114
A.6. Emakumeen eskolatzetasa E.A.E.an, adinaren eta ikasketa-mailen arabera	115
A.7. Aurreskolako ikaslegoaren banaketa adinaren, irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	115
A.8. OHOk ikaslegoa kurtsoaren, adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	116
A.9. OHOk biztanleria zikloen, irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an ..	116
A.10. Errepikatzen duten ikasleak eta errepikatzailen portzentaia, irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an	116
A.11. LH I-eko ikaslegoa adarraren eta sexuaren arabera E.A.E.an	117
A.12. LH II-eko ikaslegoa adarraren eta sexuaren arabera E.A.E.an	117
A.13. Ikasten ari diren emakumeak irakaskuntza-motaren arabera E.A.E.an	118
A.14. INEM delakoak bere baliabideak erabiliz E.A.E.an 1990.ean trebatutako biztanleria sexuaren eta adinaren arabera	119
A.15. Programa-mota eta irakaskuntza-mota bakoitzeko irakasleak, sexuaren arabera E.A.E.an.	119
A.16. E.N.E.S.ko irakaskuntza-motak eta irakaskuntza-graduka sailkatutako ikasleak sexuaren arabera	120
A.17. Unibertsitateko ikaslegoa sexuaren eta zikloaren arabera	120

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

	Orr.
1. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera E.A.E.an (Portzentaia horizontalak)	31
2. Biztanleria aktiboa eta analfabetoa iharduera sektoreka, sexuaren arabera	35
3. Lehen mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an	37
4. LHko ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an.	40
5. Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an	42
6. Erdi/goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an	45
7. Goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an	48
8. IEen aukeraketa sexuaren arabera E.A.E.an	58
9. LHko ikasleak sexuka, mailaren arabera E.A.E.an	60
10. LHko ikasleak sexuaren eta adarraren arabera E.A.E.an. (Portzentaia horizontalak)..	62
11. BBB eta UBIko ikasleak sexuka E.A.E.an	65
12. Unibertsitateko ikasleak sexuka ikasketa-programaren arabera E.A.E.an	70
13. Unibertsitateko ikasleak sexuka eta espezialitatea E.A.E.an. (Portzentaia horizontalak)	71
14. Lantegi-Eskoletako eta Lanbide-Ikastetxeetako ikasleak sexuka eta Herrialde Historikoka	75
15. INEM delakoak 1990. urtean zehar trebaturiko langileak sexuka E.A.E.an	76
16. E.A.E.ko pertsonal irakaslea sexuka. (Portzentaia horizontalak)	77
17. E.A.E.ko pertsonal ez-irakaslea sexuka. (Portzentaia horizontalak)	82



AURKEZPENA

Gizartean dauden desberdintasunak, besteak beste sexua abiapuntu dutenak, ugaltu edo aldatzeko funtsezko tresna da hezkuntza-sistema. Horregatik, eragile horrek lagundu behar du genero-estereotipoak baztertzeko eta gizartearen aldarazteko, balore berriak eta jarrera-aldaketak barnerraziz.

Hezkuntza-sistemaren erreformak gaur egun benetako hezkidetzaren beharra du, eta, aldi berean, pertsonen hezkuntza oso- osoa lortzeko premia ere bai. Hezkuntza horrek begirunea erakutsi behar dio aniztasunari: neska-mutil guztiei prestakuntza-mota guztietan aukera-berdintasuna bermatu behar zaie norberaren gaitasunak bete-betean gara daitezkeen, eta horregatik, eskainiko zaien lanbide-orientazioa ez da gizartearen tradizioz sexu bakoitzari egokitu dion eginkizunaren araberakoa izango.

Eskolako eraketa, curriculum eta hezkuntza-baliabideak dira ikastetxearen hezkuntza-proiektuek eta curriculum-proiektuek kontuan hartu behar dituzten hiru iharduketa-esparru garrantzitsu.

Eskolako eraketak, demokratikoa eta partehartzailea izateaz gain, emakume diren irakasle eta ikasleentzako ere bilatu behar du, hain zuzen ere, lantokiko eginkizun-banaketa sexu bidez egin ez dadin bultzatu eta lantokiko gune guztiak emakumeek nahiz gizonek erabil ditzaten sustatuz.

Eskolako curriculumak bateratzailea izan behar du, emakume nahiz gizonen interesgune, motibazio eta beharrezkoetan oinarritua. Lido horretan, garai batean emakumeen hezkuntzako arlo berezituak zirenei merezi duten aintza eman behar die curriculumak, arlo horiek beharrezkoak baitira biztanle guztiak biziraupenerako eta ongizaterako.

Hezkuntza-baliabideak ez dira berdin erabiltzen toki guztietan. Gehienetan, mutilak izaten dira bideoen, ordenagailuen eta bestelako aparatuen ia erabiltzaile bakarrak. Hori dela eta, hezkuntza-baliabideak era zuzenago batez erabili behar dira. Gainera, kirol-eskaintzan onura gehien ateratzen dutenak ere mutilak dira, beraz, egoera hau konpontzeko, ikasle guztien, ez batzuen, interesak asetzen dituzten kirol-ihardueren eskaintza areagotu behar da, eta oro har, uneoro antolatzen diren ihardueretan neskek ere parte har dezaten bultzatu behar da.

Curriculum eraldatzeko prozesu honetan oso garrantzitsua den beste osagai bat hizkera da, izan ere, hezkuntzaren bidez generoaren estereotipoak eta eginkizun zehatzak adierazten baitira, eta emakumeen nototasuna ezkuturik geratzen baita gizonezkoen genero balioanitzaren menpe.

Irakasleak, halaber, funtsezko atalak dira hezkidetzan, eta beraz, irakasleentzako kontzientziazio eta etengabeko prestakuntza ezinbestekoa da, baldin eta hezkuntzan sexu-ezberdinkeria iraunarazten duten jarrera ohartuak edo oharkabeak aldatu nahi baditugu.

EMAKUNDEK azterlan hau egiteko honako helburu hauek izan ditu gidari: emakumeek hezkuntza-sisteman duten egoera zehatz-mehatz ezagutzea arazoak aurkitzeko bitarteko bezala; arazo horien ezaugarriak aztertzea; eta sexua abiapuntu duten desberdintasunak jo eta bertan uzteko beharrezko diren politikak ezartzeko oinarri izatea.

Txosten honek bildutako datuetan argi ikusten da badirela gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak, bakoitzaren prestakuntza-mailatik hasita eta hezkuntza-sistemako irakasle eta ikasleentzako parte-hartzeraino.

Egia da emakumeen prestakuntza-maila gorantz doana, eta eskola-probetxamendua handiagoa dutena, baina hala ere, aspaldidanik emakumeen ikasketatzat hartu diren ikasketak, alegia, lan-esparruko arrakasta-ahalbide apalagoa dutenak eta lantokiko kaxkarragoak dituztenak aukeratzen jarraitzen dute. Horrek argi erakusten digu, neskek eta mutilek jasotzen duten hezkuntza ez dela berdina, eta horietako bakoitzarengandik espero izaten dena oraindik ere oso bestelakoa dela.

Ezkutuko curriculumak bere hartan segitzen du pedagogiaren langintzan: genero-estereotipoz jositako ikasliburuak, neskak ezkututzen edo ahazten dituen hizkera, irakaslearengandik jasotzen duten trataera.

Horiek horrela, hezkuntza-politika egokiak, hezkidetzaren helburu nagusi duela, ekintza positiboak heldu behar die pertsonak oso-osoki garatzen laguntzeko eta emakumeek nahiz gizonek toki, kargu nahiz eginkizun guztietan erantzukizun bera izan dezaten.



Txaro Arteaga Ansa

EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria

E

**ERABILITAKO
ITURRIAK
ETA METODOLOGIA**

Azterlan honen lehenengo zatian zenbatezko metodologia erabili da, bazeuden bigarren mailako iturrien bilketan, analisisian eta informatikazko ustiapenean, EUSTAT/Euskal Estatistika Erakundeak egina, oinarritutako metodologia, alegia.

Erabili diren bigarren mailako iturriok hauxek dira:

- Estatistikako Instituto Nazionalaren aldizkako argitarapenak.
- 1986eko Biztanleen Udal Errolda (informatikazko ustiapen berezia egin delarik), EUSTAT/Euskal Estatistika Erakundea.
- Irakaskuntzari buruzko Estatistika 1989/90, EUSTAT/Euskal Estatistika Erakundea.
- E.E.E.ren 1987 eta 1988.eko Nazioarteko Urtekariak eta Monografiak.
- 1987.eko F.O.E.S.S.A. txostena.
- "L'enseignement au féminin". O.C.D.E., Paris 1986. (24 herrialdetako estatistika iturrien 10 urtetan zeharko azterketa).
- Familiei egindako inkesta, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarena, 1989.
- "Bizitza Baldintzei buruzko Inkesta", 1989. EUSTAT.
- Fernández-Cueva, Andrés. "Transformación y clasificación de Centros". Hezkuntza eta Zientzia Ministraritza (H.Z.M.), 1974.

Horrez gainera, txostenean zehaztutako aldagai eta taulak oinarritzat harturik, 1986.eko Biztanleen Udal Erroldaren informatikazko ustiapen berezia egin da.

Bigarren zatia egiteko, metodologia kualitatiboa erabili da, eztabaida-taldeein dagokien teknika bereziaz baliatuz.

Aztertutako kolektiboen ohartzearen norainokoa mugatu nahi izan da eta azterlan honen abiapuntu izan den hipotesi orokorra, hau da, ikasgeletan orain ere sexismoa badela, kontutan harturik, haiek azaltzen dituzten konponbideak ezagutu.

Taldeakideak hautatzerakoan, hainbat urratsetako sare pribatua erabili da, horrela ekidin baitaiteke oharkariak, eztabaida-taldeko zuzendariak, aurretiaz parte hartzaileekin harreman zuzena izan dezan, hau ezinbesteko baldintza baita eztabaida-taldea behar bezala aritzeko.

Aldez aurretik mugatu zen talde bakoitzeko 8 kide izatea, teknika-mota honetarako kopururik egokiena baita.

TALDEEN BANAKETA

Taldeak honelaxe banatu dira:

a) 3 hezitzaile-talde:

- Aurrekolako maisu-maistra
- OHOeko maisu-maistra
- BBB/LHko irakaslea
- Goimailako E./Unibertsitateko irakaslea
- Aita
- Ama
- BBBko ikaslea
- UBiko ikaslea

- Sexua:
% 50 gizon/% 50 emakume
- Adina:
16-45 urte

b) Hiru gazte-talde

- 10/12 urtetako 4 gazte
- 13 urtetako gazte 1

— 14 urtetako gazte 1

— 15 urtetako gazte 1

- Ikastetxe-mota:
% 30 gutxi gorab. Irakaskuntza publikokoak
% 30 gutxi gorab. Irakaskuntza pribatukoak
% 30 gutxi gorab. Ikastoletakoak
- Sexua:
Neska/mutilak % 50ean

c) Biztanleria orokorraz osotutako 3 talde

- 2 enplegatu
- 2 goi mailako ikasketadun
- 2 irakasle
- Unibertsitateko 2 ikasle

- Adina:
20-50 urte
- Sexua:
% 50 emakume/% 50 gizon

EZTABAIDA-TALDEARENTZAKO ABIABIDEA

Ohartu/baloratu

- Hezkidetza eta irakaskuntza mistoa, kontzeptuon arteko ezberdintasunak.
- Neskak eta mutilak hezkuntza sisteman. Ezberdintasunak:
 - Tratuan.
 - Jakintzan.
- Gizarteratzea: familia eta eskola. Garrantzia. Erantzunkizuna.
- Maisu-maistra nahiz irakasleen zeregina. Hezitzailea. Adiskidea. Identifikazioa.
- Testu liburuak gerorako sexu-rolen sortzaile gisa.
 - Adibideak.
 - Irudiak.

- Gaitasunak eta sexuen araberako ustezko banaketa.
 - Adimena.
 - Sentikortasuna.
 - Gorputza.
- Lanbide eta ikasketa maskulinoak eta femeninoak.
- Lanbide-hautabidea. Eragina.
 - Familia.
 - Eskola.
 - Komunikabideak.
 - Etab...
- Eragina duten giza-taldeak.
- Arazoarekiko erantzunkizunak.
- Iharduketarako neurriak.
 - Nork.
 - Nola.
 - Non.

TXOSTENA

ZENBATEZKO

AZTERKETA

LEHENGO ZATIA



SARRERA

Azkenengo urte hauetan Estatu mailan egin diren hainbat azterlanek garbi asko azaltzen dute nola badiren elementu batzuk, heltzaroko lan zatiketa, neskentzat bereziki kaltegarria dena, berezkoa eta ekidinezina delako ustea baitaratzen laguntzen duten ohizko genero-ereduen egituraketa zuzen-zuzenean indartzen dutenak.

Azterlan hauen ondorioek ohartarazten digutenez, irakatsitako jakintzak androzentrikoak dira, errealitateari gizonen ikuspegitik baino ez zaio begiratzen eta gerora ondorio horiek denontzat, gizon zein emakumeentzat baliogarriak balira bezala erabiltzen dira. Gizonen ikuspegia gauza guztien neurgailu bihurtzen da.

Hezkuntzaren bidez besterenganatzen diren balore patriarkalen inertzia izugarria geldiaraztea beharrezkotzat jotzen bada, ulerterraza izango da hautabide berrien bilaketa kolektiboa sortaraz dezakeen ekintza positiboa beharrezkoa dela.

Sexuen arteko aukera-berdintasuna dela-eta EEEn jarraitutako jokabideak ebaluatzeko azken txostenetan agertzen denez, sexismorik gabeko hezkuntzak, ikasgela barruan berdintasuna areagotzeaz gainera, irakaskuntza ere hobetu egiten du alde guztietatik.

Azterlan honek, bestalde, emakumea eta hezkuntza direla-eta bigarren mailako iturrietan, hau da, azterlan, txosten, inkesta eta abarretan biltzen diren datuak aztertzea du helburutzat.

Bildutako datuak aztertu aurretik, kontutan hartu beharra dago ezen neska eta emakume gazteen eskolatzeko, heziketa eta gizarteratze-erizpideak, beti ere, gizarte mugatu bakoitzaren kulturaren nagusitu diren molde ideologikoei itxuratzen duten testuinguru historiko, sozio-ekonomiko eta kulturazko jakin bati lotzen zaizkiola.

Hainbat erakundek gizarteratzaile gisa jokatzeko dute, familia, hezkuntza, lana eta aisiak, batez ere, berauek pertsona jaiotzen den unetik eragiten baitiote, suertatu zaion gizartean sexu batari ala besteari atxekitako arau eta jokabideak baitaratuz haren izakera moldatuko dutela.

Azterlan honetan landutako datuak 1986tik 1991era bitartekoak direnez gero, hala erabilitako terminologiak, nola Hezkuntza Sistemari buruzko aipamenek ez dute gaur egun indarrean dauden Hezkuntza Erreforma kontutan hartzen.

LOGSE delakoak (Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorreko urriaren 3ko 1/90 Lege Organikoa. 90-X-4eko EBO) hezkuntza jotzen du sexuen arteko berdintasuna bultzatzeko funtsezko tresnatzat.

"La educación permite, en fin, avanzar en la lucha contra la discriminación y la desigualdad, sean éstas por razón de nacimiento, raza, sexo..."

"La educación puede y debe convertirse en un elemento decisivo para la superación de los estereotipos sociales asimilados a la diferenciación por sexos..."

LOGSE. Hitzaurrea

Abiapuntu hauek oinarritzat harturik, E.A.E.ko Curriculumaren Oinarritzko Diseinuak (abuztuaren 11ko 236 eta 237/1992 Curriculumaren Garapenerako Dekretua. Abuztuaren 27ko EHAA) Hezkidetzak sartzeko du zehar lehen gisa.

"Esta concepción transversal exige la revisión del planteamiento teórico del curriculum escolar, la transformación de actitudes personales y la redefinición teórica y práctica de los valores que rigen la convivencia social".

"La necesidad de una educación no sexista se concreta en su planteamiento como algo transversal, es decir, como una intención básica, como una "finalidad de currículo", por tanto, la coeducación no es un área más, sino una perspectiva básica desde la que se debe partir en la elaboración del currículo para que lo impregne todo".

C.O.D. Derrigorrezko Lehen H. eta Bigarren H.

E.A.E.an Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, eta gerora gainontzekoak, ezarri ahala Ikastetxe guztietan hezkidetzak mailan egin beharreko lana aurrerapauso erabakiorra suerta daiteke eskola benetako hezkidetzaz jantzi dadin.

Datu eta zifra-bilketa hutsak ezer gutxi lagunduko du, baldin eta berorren bitartez emakumeen egoerari buruzko gogoetarik egiten ez bada, egoera horren zergatia eta berori aldarazteko baliogarriak izan daitezkeen estrategiak azaltzen ez badira, horrela gizarte justuago eta berdintzaileagoa eta, ondorioz, pertsona zoriontsuagoak, lortzeko.

Bildutako datuetatik abiatuz, testuan sartu diren estatistika-saldoak, tasak eta abarrak taiatu dira, E.A.E.ko hezkuntza arloan emakumeak nola dauden erakusten duen ikuspegi ahalik eta zehatzena eskaini asmoz.

Horretarako, lehenengo eta behin emakumeen ikasketak maila eta titulazioa ezagutu behar dela kontutan izan da. Bigarrenik, zein egoeratan dauden, gizonen aldean, hezkuntza sistemako maila ezberdinetan, bai ikasleen kasuan, bai profesionariak direnean.

Azkenik, E.A.E.ko emakumeen egoera, Espainiar Estatuko eta Nazioarteko emakumeenarekin erkatuz eta oraindik ere badiren ikastetxe eskusiboak aztertuz osatu dira azterlan honetan eskaintzen diren argibideak.

1

**EMAKUMEEN
IKASKETA-MAILA
E.A.E.AN**

Hezkuntza eta kulturarako sarbidea ezinbesteko baldintza da pertsona gizarteratzeko; sarbide horrek, era berean, etorkizunean izan daitezkeen gizarte eta lan-aukerak neurri handi batez baldintzatzen dituelarik.

Bi iturritara jo dugu: E.A.E.ko Biztanleen 1986ko Udal Errolda eta EUSTATen 1989ko "Bizitza Balbintzei buruzko Inkesta".

1.1. TAULA. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera E.A.E.an. (Datu absolutuak, portzentaia bertikalak eta portzentaia horizontalak)

	EMAKUMEAK			GIZONAK			GUZTIRA		
	Abs.	% Ber.	% Hor.	Abs.	% Ber.	% Hor.	Abs.	% Ber.	% Hor.
Analfabetoak	15.792	1,7	72,8	5.911	0,7	27,2	21.703	1,2	100
Ikasketarik gabe	133.456	14,1	56,1	104.467	11,5	43,9	237.923	12,8	100
Lehen Maila	511.846	54,2	53,1	451.682	49,7	46,9	963.528	52	100
Lehen Bide H.	94.801	10	39,6	144.494	15,9	60,4	239.295	12,9	100
Bigarren Maila	96.965	10,3	51,1	92.680	10,2	48,9	189.645	10,2	100
Erdi/Goi-Maila	45.368	4,8	55,7	36.637	4	44,7	82.005	4,4	100
Goi-Maila	46.618	4,9	39	73.011	8	61	119.629	6,5	100
GUZTIRA	944.846	100	50,1	908.882	100	49,1	1.853.728	100	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda.

1. GRAFIKOA. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera E.A.E.an. (Portzentaia horizontalak)



Oinarrizko aztergai gisa ondokoak aipa daitezke. Aurrerago aztertuko dira mailaka.

- Emakume guztien erdiak baino zerbait gehiagok, % 54,2, Lehen Mailako Ikasketak baino ez ditu burutu, horiei inolako ikasketarik ez dutenak, % 14,1, eta analfabetoak direnak, % 1,7, ganeratzten badizkiegu, E.A.E.ko emakume guztien portzentaia nabarmen batek, % 70, ez di-tuela gutxienezko espezializazioko ikasketarik ikus daiteke.
- Gainontzeko % 30ari dagokionez, berauetako % 4,9k baino ez dituzte goi-mailako ikasketak.
- Hortaz, E.A.E.ko emakumeek ikasketa-maila eskasa dutela esan daiteke.

Sexukako erkaketa eginez gero, zera nabaritzen da:

- Analfabeto guztien artean, % 72,8 emakumeak dira eta % 27,2 gizonak.
- Lanbide-tituludunen artean, berriz, % 60,4 gizonak dira eta % 39,6 emakumeak.
- Bigarren mailako zein erdi/goi-mailako ikasketei dagozkien titulazioei erreparatuz gero, % 52,4 emakumeak dira eta % 47,6 gizonak.
- Goi-mailako tituludunen artean, % 38,9 emakumeak dira eta % 61,1 gizonak.

Emakumeen ikasketa-maila, oro har, gizonezkoena baino beheragokoa dela egiaztatzen da. Bi-garren mailako eta erdi/goi-mailako ikasketak dituztenen artean baino ez dago emakume ge-hiago, gizonak baino % 4,8 gehiago, alegia.

Bigarren iturri batetik, EUSTATEk egindako Bizitza Baldintzei buruzko Inkestatik, hain zuzen, hu-rrengo datuok atera dira:

1.2. TAULA. Ikaslea ez den 10 urte edo gehiagoko biztanleria, egindako ikasketen ara-bera eta sexuka E.A.E.an. (Portzentaia horizontalak)

	IKASKETARIK GABE	LEHEN IKASKETAK	LANBIDE HEZIKETA	BIGAR. IKASK.	BBB ETA UBI	ERDI/GOI IKASKET.	GOI IKASKET.	GUZTIRA
Emakumeak	12	57,3	10,4	8,9	2,9	5,2	3,3	100
Gizonak	9,1	54,6	15,9	8,7	2,9	2,9	5,9	100
GUZTIRA	10,6	56	13,1	8,8	2,9	4,1	4,5	100

Iturria: EUSTAT. "Bizitza Baldintzei buruzko Inkesta" 1989.

Datuek konstante berberak erakusten dizkigute, hau da, emakume guztietarik % 50ek lehen mailako ikasketak baino ez dituztela. Inolako ikasketak ez dituztenekin batera, berriz, emaku-me guztien % 69,3ra iristen dira. Gainontzekoa, erdi-mailako ikasketak dituzten % 22,2ak eta erdi/goi-mailako edo goi-mailako ikasketak dituzten % 8,5 eskasak osotzen dute.

ANALFABETISMOA

1.1

Analfabetotzat hartzen dira euren heziera-aldia amaitutzat jo ondoren irakurtzen zein idazten ez dakiten pertsonak. Erroldetan 10 urtetik gorakoak agertzen dira.

Nolanahi ere, analfabetismo funtzionala kontutan hartzea egokiagoa litzateke, bizitza baldintzei buruzko inkestan “nekez irakur eta idatz dezaketen” pertsonak aipatuz egiten den bezala; gaur egun, gainera, irakurtzea-idaztea ezinbestekoa deneko gizartean nolabaiteko erraztasunez aritzeko gai ez diren pertsonak ere sar genitzake talde honetan.

Analfabetismoaren arazoari ikuspegi horretatik begiratzuz gero, are latzagoa iruditzen zaigu gizarte honetan, izan ere, eguneroko hainbat zereginetan aritzeko zailtasunak areagotu ez ezik, askotan, haiek burutzeko ezintasuna suertatzen baita.

1.1. taulan agertzen den bezala, 21.730 analfabeto dago gure artean, berorietarik % 72,8 emakumeak eta % 27,2 gizonak. Beraz, 4 analfabetotatik hiru emakumeak direla esan daiteke.

1.3. TAULA. E.A.E.ko analfabetismo tasak adinaren eta sexuaren arabera (10 urte edo gehiago dituen biztanleria: portzentaia)

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
10-14	0,1	0,1	0,1
15-19	0,2	0,2	0,2
20-24	0,2	0,2	0,2
25-29	0,3	0,2	0,2
30-34	0,3	0,2	0,3
35-39	0,4	0,2	0,3
40-44	1	0,4	0,7
45-49	1,9	0,8	1,4
50-54	2,6	1,1	1,8
55-59	2,6	1,3	2
60-64	2,9	1,4	2,2
65etik gora	5,9	2,2	4,4
GUZTIRA	1,7	0,7	1,2

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda.

Beste iturri batzutatik hartutako datuek ere analfabetoen artean emakumeen portzentaia gizonena baino askoz ere handiagoa dela baieztatu dute, ondoko taulan azaltzen den bezala.

1.4. TAULA. E.A.E.an ikaslea ez den 10 urte edo gehiagoko biztanleria analfabetismo funtzionalaren mailaren arabera eta sexuka. (Portzentaia horizontalak)

	ERRAZ IRAKURTZEN DUTE	NEKEZ IRAKURTZEN DUTE	GUZTIRA	ERRAZ IDAZTEN DUTE	NEKEZ IDAZTEN DUTE	GUZTIRA	BIZTANLERIA Abs.
Emakumeak	92,6	7,4	100	91,3	8,7	100	695.000
Gizonak	97,5	2,5	100	95,9	4,1	100	775 000
GUZTIRA	94,9	5,1	100	93,5	6,5	100	1.470.000

Iturria: EUSTAT. "Bizitza Baldintzei buruzko Inkesta" 1989.

Aurreko datuak beste iturri batetik datoz, eta analfabetoen artean emakumeen portzentaia gizonetzkoena baino askoz nabarmenagoa dela egiaztatzen dute. Nekez irakur dezakeen gizon bakoitzeko halako hiru emakume daude.

Analfabetismoa adintsuenen artean ageri zaigu, batez ere, adina jaitsi ahala gutxitu egiten delarik. Tasak 40 urtetatik gora hasten dira nabarmentzen. Eranskinaren A.1 taula.

Eskualdeka, ez dira ezberdintasun nabarmenak antzematen baserriko edo hiriko analfabetismoari dagokionez, E.A.E.aren batazbesteko analfabeto-tasa gainditzen duten udalerriak honako hauek direlarik:

- Basauri
- Bermeo
- Ermua
- Galdakao
- Sestao
- Erandio
- Irun
- Arrasate
- Hernani
- Pasaia
- Zarautz


Analfettoa izanik, aktiboa den biztanleriari dagokionez, iharduera sektorekako taula hau dauka:

1.5. TAULA. Biztanleria aktiboa eta analfabetoa iharduera sektoreka, sexuaren arabera

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Nekazaritza	11	1,8	108	7,2
Industria	73	12,1	740	49,6
Eraikuntza	4	0,7	295	19,8
Zerbitzuak	514	85,4	349	23,4
GUZTIRA	602	100	1.492	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda.

2. GRAFIKOA. Biztanleria aktiboa eta analfabetoa iharduera sektoreka, sexuaren arabera



Analfabetoak diren oso emakume gutxi ari da etxetik kanpo lanean.

Emakume analfabetoen artean lanbiderik arruntenak hauexek dira:

- 1.a Etxezain, atezain, garbitzaile, eraikuntza eta antzerakoak.
- 2.a Denda, etxe eta antzekoetako otseinak, lehen mailako taldeetan sailkatu gabekoak.
- 3.a Sukaldari eta zerbitzariak.
- 4.a Beste azpitalde batzutan sailkatu gabeko langileak (peoiak)
- 5.a Dendetako enplegatu, saltzaile eta antzekoak.

LEHEN MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN EMAKUMEAK

1.2

Atal honetan Lehen Mailako Ikasketei eta OHOari dagozkien titulazioak sartzen dira.

1.1. taulako datuen arabera, biztanleria osoa aintzat harturik, % 52k lehen mailako ikasketak burutu dituzte. Hauetako % 53,1 emakumeak dira eta gainontzeko % 46,9 gizonak.

1.1. taulan, halaber, "ikasketarik gabe" atalera biztanleriaren % 12,8a biltzen da. Pertsona hauek, beraien ustez, ez omen dira analfabeto hutsak, beraz, lehen mailako ikasketen parekide izan daitekeen ikasketa-maila izan dezakete.

Talde biak batuz gero, biztanle guztien % 64,8k ikasketa-maila hau erdietsi duela ageri zaigu, baina, ikasketa-maila honetan agertzen diren emakumeei emakume guztien % 68,3a dagokien bitartean, gizonen kasuan, portzentaia hori % 61,2ra iristen da.

1.6. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, lehen mailako ikasketak* dituzten emakumeak adinaren arabera E.A.E.an

	Abs.	%
10-14	77.797	12
15-19	22.238	3,4
20-24	30.175	4,7
25-29	36.392	5,6
30-34	42.398	6,6
35-39	53.027	8,2
40-44	53.316	8,3
45-49	50.662	7,9
50-54	59.311	9,2
55-59	54.824	8,5
60-64	46.954	7,3
65-69	36.234	5,6
70-75	31.770	4,9
75etik gora	50.204	7,8
GUZTIRA	645.302	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda.

* Ikasketarik gabe aurrekolokoak eta lehen mailako ikasketak barne daude.

Taula honetan ikus daitekeenez, lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen kopurua arian-arian gehitzen da 15-19 adin-taldetik hasi eta 40-44 adin-tarteraino, hortik aurrera, kulunkaren bat edo beste erakutsi arren, mantendu egiten delarik.

1.7. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, lehen mailako ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E. an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Ikasten dihardute	128.431	18,2	134.310	20,3
Ez dihardute ikasten	576.767	81,8	489.692	79,7
GUZTIRA	705.198	100	624.002	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

Ikasketa-maila honetan agertzen den biztanleriak, aurreko taulan azaltzen den bezala, ezer gu-txi lotzen zaio ikasketari, eta ikasten dihardutenen artean, gizonak portzentaia pixkat handiago batez ageri zaizkigu, % 2,1.


Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, % 57,9k etxeko lanetan besterik ez di-hardute. Gainontzeko % 42,1ek etxetik kanpo ekiten diote beren iharduera nagusiari. Eraski-naren A.2 taula.

1.8. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, lehen mailako ikasketak dituen biztanleria, ihar-duera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E. an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Nekazaritza	2.967	3,8	16.373	5,7
Industria	19.469	25	151.975	54,4
Eraikuntza	456	0,6	29.304	10,2
Zerbitzuak	55.040	70,6	85.445	29,7
GUZTIRA	77.932	100	283.097	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

3. GRAFIKOA. Lehen mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an



Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeek zerbitzu sektorean dihardute gehien bat, % 70,6, maila bereko gizonak, aldiz, industrian lan egiten dute, batez ere.

E.A.E.ko biztanleen % 12,9k burutu dituzte Lanbide Heziketari dagozkion ikasketak, hauetariko gehienak, % 60,4, gizonak dira, emakumeak % 31,6. 1.9. taula.

1.9. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, lanbide heziketako ikasketak dituzten emakumeak adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an (*)

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
10-14	2.566	2,7	3.886	2,7
15-19	23.305	24,6	34.190	23,7
20-24	23.924	25,2	28.495	19,7
25-29	17.211	18,2	20.402	14,1
30-34	10.063	10,6	15.529	10,8
35-39	6.359	6,7	12.914	8,9
40-44	3.548	3,7	8.508	5,9
45-49	1.953	2,1	5.410	3,7
50-54	1.900	2	5.252	3,6
55-59	1.529	1,6	3.977	2,8
60-64	1.009	1,1	2.426	1,7
65-69	596	0,6	1.387	1
70-75	354	0,4	1.057	0,7
75etik gora	484	0,5	1.061	0,7
GUZTIRA	94.801	100	144.494	100
	39,6		60,4	

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda.

(*) Ikaslego hau kasu guztietan hamalau urte dituztenek osotua dela ulertzen da, noski. Tarte hau EUSTAT-ek bere ohizko datu eskaintzetan ezarria da.

Lanbide Heziketa duten emakume guztien % 81,3k 34 urte baino gutxiago dituzte, eta horrek zera adierazten du, emakumeek orain urte gutxi ekin zietela halako ikasketei.

Beste datu adierazgarri bat zera da, emakumeak lanbide heziketa ikasten hasiak badira ere, oraingoz, askoz ere gizon gehiago ari dela ikasketa-mota honetan. 15-19 urte dituztenak hartuz gero, esate baterako, LH ikasten direnen artean, 10.885 mutil gehiago dago, hau da, mutilen portzentaiak % 59,4a jotzen du.

1.10. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, LHko ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Ikasten dihardute	9.241	13,2	14.511	13,4
Ez dihardute ikasten	60.883	86,8	93.603	86,6
GUZTIRA	70.124	100	108.114	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

Talde honetako emakumeak nahiz gizonak ia ez dute ikasketarekiko loturarik, euren prestakuntza amaitutzat jotzen dutela esan genezake.


Etxeko lanari dagokionez, lehenago aztertutako ikasketa-mailen aldean, etxeko lanetan buru belarri aritzen diren emakumeen portzentaia dexente txikiagoa da, % 24,3. Gainontzekoek, LHko ikasketak dituzten emakumeen hiru laurdenak, alegia, lanpostu bat dute. Eraskinaren A.2. taula.

1.11. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, LHko ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Nekazaritza	139	0,7	2.171	3,3
Industria	4.046	20,5	38.090	57,3
Eraikuntza	320	1,6	3.031	4,6
Zerbitzuak	15.287	77,2	23.144	34,8
GUZTIRA	19.792	100	66.436	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

4. GRAFIKOA. LHko ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an.



Talde honetako emakumeen iharduera zerbitzu sektorera biltzen da, batez ere, % 77,2, gainontzeko gehienak, % 20,5, industrian dihardutelarik.

BIGARREN MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN EMAKUMEAK

1.4

Bigarren mailako ikasketatzat hartzen dira lehenagoko ikasketa-egitasmoetako batxilergoak, oinarrizkoa eta goi-mailakoa, eta oraingo OHO eta BBB direlakoak.

E.A.E.an erroldaturik dagoen biztanleria guztiaren % 10,2 heldu da ikasketa hauetara. Sexukako banaketa oso antzerakoa da: % 51,1 emakumeak dira eta % 48,9 gizonak. 1.12 taula.

1.12. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an (*)

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
10-14	8.895	9,2	7.478	8
15-19	29.761	30,7	24.336	26,3
20-24	8.557	8,8	8.316	9
25-29	12.697	13,1	13.751	14,8
30-34	12.413	12,8	12.297	13,3
35-39	8.176	8,4	8.751	9,4
40-44	5.241	5,4	5.830	6,3
45-49	2.833	2,9	3.005	3,2
50-54	2.550	2,6	2.684	2,9
55-59	2.172	2,3	2.207	2,4
60-64	1.684	1,7	1.659	1,8
65-69	921	1	1.172	1,3
70-75	473	0,5	666	0,7
75etik gora	592	0,6	528	0,6
GUZTIRA	96.965	100	92.680	100
	51,1		48,9	

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda.

(*) Ikaslego hau kasu guztietan hamalau urte dituztenak osotua dela ulertzen da, noski. Tarte hau EUSTAT-ek bere ohizko datu eskaintzetan ezarria da.

Bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeei dagokionez, % 83, 39 urtez beherakoak dira; gizonen artean, berriz, % 80,9 dira adin horretatik beherakoak. Sexuen artean ez dago ezberdintasun nabarmenik, hala ere, gazteenen artean, ikasketa horietan diharduten 10-14 urte eta 15-19 urte bitartekoen artean, alegia, emakumeak gizonak baino gehiago dira.

1.13. TAULA. Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexua-
ren arabera, E.A.E. an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Ikasten dihardute	40.574	40,7	34.993	34,1
Ez dihardute ikasten	59.237	59,3	67.663	65,9
GUZTIRA	99.811	100	102.656	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

Biztanleetako gehienek ikasketekin apenas zerikusirik duten arren, talde honetakoek, emakumeek, batez ere, % 40,7, ikasten jarraitzen dutela ikus daiteke.


Emakumeek aurreko ikasketa-mailetan erakutsitako joerari jarraitzen diote, hau da, etxeko lanetik kanpo lanean ihardutekoari. Tituludun-talde honetan, % 27,5ek baino ez dihardu etxeko lanetan soilik. Eraskinaren A.2 taula.

1.14. TAULA. Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Nekazaritza	153	0,5	767	1,5
Industria	7.602	24,5	18.373	35,9
Eraikuntza	433	1,4	2.068	4
Zerbitzuak	22.792	73,6	29.980	58,6
GUZTIRA	30.980	100	51.188	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

5. GRAFIKOA. Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an



Emakumeak, berriro ere, zerbitzu sektorean, batez ere, % 73,6 eta industrian, % 24,5, ageri zaizkigu.

Erdi/Goi-mailako ikasketak ingeniari-tza teknikoari, peritutzari, magisteritzari eta erizaintzari dagozkienak dira.

E.A.E.ko biztanleriaren % 4,4 batek besterik ez ditu ikasketa hauek burutu. Emakumeen portzentaia, % 55,3, gizonena, % 44,7, baino apur bat handiagoa da. 1.15 taula.

1.15. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, erdi/goi-mailako ikasketak dituen biztanleria adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an (*)

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
10-14	—	—	—	—
15-19	4.248	9,3	3.034	8,3
20-24	11.068	24,4	6.514	17,8
25-29	9.050	19,9	5.809	15,9
30-34	5.058	11,1	4.152	11,3
35-39	3.819	8,4	4.336	11,8
40-44	2.569	5,7	3.572	9,7
45-49	1.702	3,8	2.245	6,1
50-54	1.736	3,8	2.155	5,9
55-59	1.617	3,6	1.600	4,3
60-64	1.170	2,6	1.076	2,9
65-69	1.049	2,3	746	2
70-75	1.070	2,4	698	1,9
75etik gora	1.212	2,7	800	2,1
GUZTIRA	45.368	100	36.737	100
	55,3		44,7	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda.

(*) Ikasle goi mailako kasu guztietan hamalau urte dituztenek osotua dela ulertzen da, noski.

Tarte hau EUSTAT-ek bere ohizko datu eskaintzetan ezarria da.

29 urte bete arte, emakume-kopurua gizon-kopurua baino handiagoa da, 20-24 urte dituzten artean nabari delarik emakumeen aldeko diferentziarik handiena.

Emakume gazteenek bilakaera positiboa erakusten dute, horrek esan nahi du azken belaunaldietako emakumeengan prestakuntza hobea nabari dela.

Emakumeek gizonak ez bezalako karreretara jo eta, ondorioz, titulazio ezberdinak lortu dituzte. Eraskinaren A.3 taula.

Nolanahi ere, ezberdintasun argia aukeratutako ikasketetan datza orain ere. Hortaz, teknika arloko karreretan ari diren gehienak gizonak diren bitartean, beste karrera batzutan emakume gehiago dago, horrela gertatzen da Erizaintzan, esate baterako, % 85,2 batez, Magisteritzan, % 74,8, Gizarte Graduatuan, % 68,3, eta Turismo, Publizitate eta Marketing delakoan, % 62,2.

1.16. TAULA. Erdi/goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexua-
ren arabera, E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Ikasten dihardute	1.192	3,9	1.030	4,1
Ez dihardute ikasten	33.367	96,1	23.834	95,9
GUZTIRA	34.559	100	24.864	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

Talde honetakoek apenas dute loturarik ikasketarekin. Ikasten ari direnak oso gutxi dira eta emakumeen portzentaia eta gizonena ia berdinak dira, % 3,9 eta % 4,1 hurrenez hurren.


Erdi/Goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, % 14,3 baino ez dira iharduera bakar-
tzat etxeko lana dutenak. Gainontzekoak, % 85,7, etxetik kanpo ari da lanean. Eraskinaren A.2
taula.

1.17. TAULA. Erdi/goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreari dagokio-
nez, sexuaren arabera, E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Nekazaritza	67	0,3	252	1,2
Industria	767	3,5	7.096	35,2
Eraikuntza	74	0,3	889	4,4
Zerbitzuak	20.954	95,9	11.928	59,2
GUZTIRA	21.862	100	20.165	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

6. GRAFIKOA. Erdi/goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexua-
ren arabera E.A.E.an



Emakumeen lan iharduera Zerbitzu Sektorera biltzen da ia erabat, lehenago aipatutako taldeetan industriari zegokion portzentaia desagertu egiten dela. Honen arrazoia emakume hauen titulazioetan datza, azaldu den bezala, Zerbitzu Sektorera zuzenduak baitira; gizonak, aitzitik, teknika arloko karreretan titulatuak izaten direlarik.

GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN EMAKUMEAK 1.6

Goi-mailako ikasketak Lizentziatura, Goi-mailako Ingeniariak eta antzerako titulazioei dagozkie; titulu hauek Fakultateetan, Goi-mailako Eskola Teknikoetan eta Marina Zibileko Goi-Eskola, Euskal Kirol-Institutua eta abarrak bezalako goi-mailako irakaskuntzako beste zentro batzutan lortzen dira. Ikasketa hauetan sartzen dira, halaber, haien ondoko ikasketa berezituak, dokto-radutzak, etab.

Biztanleriaren % 6,5ak burutu ditu Goi-mailako ikasketak. Gehienak gizonak dira, % 61, emakumeei % 39a dagokiela. 1.18 taula.

Erdi-mailako karreretan bezala, goi-mailakoetan ere sexu-bereizketa nabari da. Hortaz, emakumeen titulazioetarik gehienak "emakumeen karreratzat" jo ohi diren letretako karrerei dagozkie, horietako askok, gaur egun, oso etorkizun iluna dutelarik. Eraskinaren A.4 taula.

Ondoren zerrendatzen diren karreretan emakumeak dira gehienak:

KARRERAK	EMAKUMEEN %
Musika (Goi-Gradua)	79,0
Farmazia	64,3
Psikologia	62,6
Filologia	62,2
Pedagogia	61,2
Geografia	60,9
Historia	57,4
Filosofia	51,8

1.18. TAULA. 10 urte edo gehiago izanik, goi-mailako ikasketak dituen biztanleria adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an (*)

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
10-14	—	—	—	—
15-19	9.344	20	8.149	11,3
20-24	16.962	36,4	17.479	23,9
25-29	9.198	19,7	13.563	18,5
30-34	4.833	10,4	9.204	12,6
35-39	2.416	5,2	6.888	9,4
40-44	1.285	2,8	4.708	6,4
45-49	746	1,6	2.943	4
50-54	575	1,2	2.953	4
55-59	384	0,8	2.345	3,2
60-64	297	0,6	1.718	2,3
65-69	256	0,6	1.128	1,5
70-75	140	0,3	929	1,3
75etik gora	182	0,4	1.204	1,6
GUZTIRA	46.618	100	73.211	100
	39		61	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda.

(*) Ikaslego hau kasu guztietan hamalau urte dituztenek osotua dela ulertzen da, noski. Tarte hau EUSTAT-ek bere ohizko datu eskaintzetan ezarria da.

30 urte edo gutxiago dutenen artean, emakumeak dira ikasketa-maila honetaraino iritsi diren gehienak. 50 urte edo gehiago dituztenen artean, aldiz, gizonen gehiengo nabarmena da.

Goi-mailako titulazioa erdietsi duten emakumeetarik gehienak azken urteotan lortu dute titulua, izan ere, tituludun emakumeen % 71,6k 30 urte baino gutxiago baitituzte. Gizonen artean ere gazteenak gehiengo badiara ere, 30 urte baino gutxiago dituztenak % 53,7 besterik ez dira. Gauzak honela, emakumeen prestakuntza-maila gero eta gorago dagoela esan genezake.

1.19. TAULA. Goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, ikasteari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E. an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Ikasten dihardute	1.192	6,3	1.287	3,1
Ez dihardute ikasten	17.662	93,7	40.211	96,9
GUZTIRA	18.854	100	41.498	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

Maila honetara helduz gero ikasten dihardutenen artean, asko ez badira, emakume gehixeago dago, eta, nolanahi ere, Erdi/Goi-mailako ikasketak dituztenak baino gehiago.

Goi-mailako ikasketak dituzten emakumeetarik % 11,4 baino ez dira etxeko lanetan baino ez dihardutenak, % 88,6, beraz, etxetik kanpo lanean ari dira. Eraskinaren A.2 taula.


Alde honetatik, aipatu behar da, ezen emakumeen ikasketa-maila igon ahala, etxeko lanetan buru belarri ari direnen portzentaia gutxitu egin dela.

1.20. TAULA. Goi-mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, iharduera sektoreari dagokionez, sexuaren arabera, E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Nekazaritza	26	0,2	328	1,1
Industria	618	5,6	7.201	23
Eraikuntza	40	0,4	541	1,7
Zerbitzuak	10.285	93,8	23.194	74,2
GUZTIRA	10.969	100	31.264	100

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

7. GRAFIKOA. Goi-mailako ikasketak dituen biztanleria, iharduera sektoreka, sexuaren arabera E.A.E.an



Gizonen artean, ia laurden batek, % 23, industrian lan egiten duen bitartean, emakumeetarik gehienak, % 93,8, zerbitzu sektorean ari dira lanean.

ARAUTU GABEKO IKASKETAK DITUZTEN EMAKUMEAK

1.7

Atal honetan erabilitako informazioa Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte-Segurantzaren Sailak E.A.E.ko 40.000 familiaz osaturiko lagin bati egindako inkestan azaldutako emaitzetatik atera diren datuei dagokie.

Inkesta honetan 34 jakintzagai sailkatu ziren Arautu gabeko Ikasketen barne. Eraskinaren A.5 taula.

Inkesta hau egin zenean, arautu gabeko ikasketa hauetakoren bat egiten ari ziren emakumeetarik ia erdiak, % 48,1, 25 urtetatik beharakoak ziren, % 34,6 25 eta 34 urte bitartekoak eta gainontzeko % 17 35 urtetatik gorakoak.

Eraskinaren A.5 taulan agertzen diren arautu gabeko ikasketetako adarrei dagokienez, horietako hirutan ez dago emakumerik, meatzaritzan, automozioan eta E.E.E. delakoan. Kimika eta larugintza adarretan, aldiz, ez da gizonik agertzen.

Zenbait adarretan, bestalde, emakumeei dagokienez, 25 eta 34 urte bitartekoak baino ez dira agertzen: metal edo elektrizitate adarretan, hain zuzen; eta beste batzutan berriz, 25 urtez beherakoak soilik: elektronika, eraikuntza, zura, delineazioa, irudia eta soinua. Gauzak honela, emakume gaztea orain arte gizonentzat gordeak omen ziren adarretan ere apurka-apurka sartzen hasia dela esan daiteke.

Ikasketa hauetan ari diren emakumeen ikasketa-maila erdi-behekoa da: % 28,6k ez dauka ikasketarik edo lehen mailakoak baino ez, % 24,7k Lanbide Heziketa dauka, % 17,2k bigarren mailakoak eta % 29,5ek goi-mailakoak.

Egoera zibilar dagokionez, % 69,2 ezkondu gabeko emakumeak dira, % 28,8 ezkonduak, % 1 dibortziatua edo banandua eta % 1 alarguntsa.

Iharduerari erreparatuz gero, emakume hauetako % 27,1k ez du etxetik kanpo lan egiten, % 29,5ek bai eta % 43,4 langabezian daude.

Datu hauek oinarritzat harturik, arautu gabeko ikasketak egiten ari den emakumearen irudia hauxe litzateke: gaztea, 34 urtez beherakoa, ezkongai, ikasketa gutxi edo goi-mailako ikasketak dauzkana eta langabezian dagoena.

1.21. TAULA. Arautu gabeko ikasketak egiten ari diren emakumeak, espezialitatearen arabera, E.A.E.an

	Abs.	%
Ehungintza	1.854	8,7
Administrazioa	1.084	5,1
Oinarrizko Informatika	1.162	5,4
Informatika-Progr.	675	3,1
Euskara	4.568	21,3
Beste hizkuntza batzuk	3.997	18,7
Beste ikasketa batzuk	8.084	37,7
GUZTIRA	21.424	100

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte-Segurantz Saila: "E.A.E.ko familiei egindako inkesta".

Hizkuntzak ikasten dituztenen artean emakumeak, %40, gizonak baino gehiago dira, %31,8. Gauza bera gertatzen da ehungintzan eta administrazioan. Teknologia berriei dagokienez, ordea, gero eta emakume gehiago badira ere, %8,5, gizonen portzentaiaetik, %19,1, urruti samar ageri zaizkigu.

Adinari dagokionez, 25 urtez beherakoek hizkuntzei, eta hauen artean euskarari, batez ere, ehungintzari, ileapainketari, oinarrizko informatikari eta administrazioari heltzen diete, batipat. 25 eta 34 urte bitartekoek, berriz, hizkuntzak eta oinarrizko informatika hobesten dute eta haien ondoan osasun-prestakuntza ageri da indar handiz. 35 urtez gorakoek hizkuntzetara jotzen dute eta baita ehungintzara edo arte-lanbideetara ere. Langabezian dauden emakumeei dagokienez, oinarrizko informatika eta ehungintza nagusitzen dira.

Gizonen lanbidetzat hartu ohi izan diren metal, elektrizitate, elektronika... bezalako lanbideetara jotzen duten emakumeak Lanbide Heziketa edo Bigarren Mailako Ikasketak dituztenen artetik ateratzen dira ia beti.

2

EMAKUMEAK HEZKUNTZA SISTEMAN

Hezkuntza sistemaren eginkizuna bikoitza da: bata gizarteratzeari dagokio, hau da, pertsonak gizartean sartu eta egokitzekoa, eta bestea, adimen-heziketari dagokio, gizaldi bakoitzak eta gizarte bakoitzak funtsezkotzat aukeratzen dituzten kultur edukinak besterenganaketari dagokiona, alegia.

Hezkuntzarako sarbidea, beraz, pertsona gizarteratzeko beharrezko baldintza da, haren geroko lan aukerak neurri handi batez baldintzapetuko baititu.

Emakumeak hezkuntza sisteman nola dauden aztertzerakoan, ordea, ikasten ari diren emakumeen ikuspegitik ez ezik, profesionarien ikuspegitik ere, hau da, irakasle edo bestelako langile gisa ari direnen ikuspegitik begiratu beharko diogu hari.

EMAKUMEA IKASLE GISA E.A.E.KO HEZKUNTZA SISTEMAN

2.1

Emakumeak hezkuntza sisteman nola dauden jakitea ez da zenbaki kontua soilik. Zenbakiez gaindi, berauen azpian dagoena somatu beharra dago, eta, batez ere, hezkuntza prozesuan gertatzen ari dena zehaztu eta nola horrek emakumeen ahalbideak areagotu ala murrizten dituen mugatu beharra dago.

Emakumeak erabat, ehunetik ehun, alegia, eskolatu eta ikasketa-mailarik gorenera heldu arren, gizarteratze-kodeak aldarazten ez badira, genero-estereotipoak desagertu eta hala gizonek, nola emakumeek balore berriak baitaratzen ez badituzte, tradiziozko eskema eta baloreak berritzea besterik ez da lortuko eta hezkuntza ez da sexuen arteko ezberdintasunak deuseztatzeko gauza izango, ez da berdintasunera eraman lezakeen bidea izango.

Gauzak honela hainbat galdera burura daitezke:

Nolako da gaur egungo hezkuntza sistema? Zer nolako irakaskuntza eta mailez osotua da?

Zer nolako datuak eskaintzen dituzte bigarren mailako iturriek hezkuntza sisteman ikasle eta langile gisa ari diren emakumeei buruz?

Zer nolako gogoeta eta analisiak egin daitezke datuok ikusirik?

89-90 ikasturtean indarrean dagoen hezkuntza sistema Lege batek eta Dekretu batek arautua da, hots, 1970.eko abuztuaren 4eko Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko Lege Orokorrak, batetik, eta Lege horretan ezarritako Hezkuntza Erreforma aplikatzeko egutegia ematen duen urte bereko abuztuaren 22ko Dekretuak, bestetik.

Bi xedapen hauek oinarritzat harturik, hezkuntza sistema hurrengo mailen arabera antolatu da: Aureskolako Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza Orokorra, Batxilergoa, Unibertsitateko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa, eta baita Helduen Hezkuntza Iraunkorra eta Hezkuntza Berezia ere.

1983.eko irailaren 30eko Ministrari Aginduak, berriz, Irakaskuntza Ertainen Erreforma garatuz, Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe arruntetan plan eta programa berriei saiakuntzak egiteko baimena ematen du.

1986.eko urriaren 21eko Ministrari Aginduak, bestalde, Lanbide-Moduluak sortuz, Bigarren Mailako Irakaskuntzaren 2. zikloari dagokiona mugatu eta onesten du.

2.1. TAULA. Emakumeen eskolatzetasa E.A.E.an, mailaka

	GUZTIRA	AURRESK.	OHO	HB	BBB/UBI	LH	IEE	MP	FAK.	ETA	GET	UE	BEST.
Emakumeak	24,7	2,7	11,7	0,1	4,3	1,9	0,8	0,0		2,5		0,6	0,1

Iturria: EUSTAT: 1986ko Errolda. (Argitaratu gabe).

(*) Ikusi siglen eraskina.

Tasarik handienak OHOean agertzen dira, berau derrigorrezkoa baita; horrez gainera, 14 eta 20 urte bitarteko emakumeek ere eskolatzetasa nabarmenak erakusten dituzte. Eraskinaren A.6 taula.

Araututako irakaskuntzez gainera eta hezkuntza sistematik kanpo ere badira bestelako irakaskuntza batzuk, hauek eskola sistematik behar bezalako prestakuntzarik gabe irten diren gazteen prestakuntza eta lanbide-kualifikazioa osotzea dute helburu.

Irakaskuntza hauek, Osabidezko Hezkuntza, Lanbide-Hasiera, Lantegi Eskolak edo Lanbide Etxeak, esate baterako, Udalen, Diputazioen zein INEM delakoaren babespean edo euren arteko Hitzarmenen bidez burutzen dira.

AURRESKOLAKO HEZKUNTZA 2.1.1

Aurrekolako Hezkuntza, gaur egun, borondatezkoa da eta 2 eta 5 urte bitarteko neskato-mutikoak hartzen ditu. Bi etapa dauzka: Haurtzaindegia, 2 eta 3 urte, eta Eskolaurrea, 4 eta 5 urte.

Aurrekolako Hezkuntzaren helburu nagusia sentiberatasun, adimen eta gizarte mailetako gaitasun guztien garapena suspertzea denez gero, hasierako eskolatzetasa elementu suspertzailea izan daiteke batzutan, beste batzutan osabidezkoa, baina, beti ere, funtsezkoa neskatoen eta mutikoen garapenari begira.

2.2. TAULA Aurrekolako ikasleen banaketa irakaskuntza-mota eta sexuaren arabera E.A.E.an

	Abs.
Neskatoak	29.713
Mutikoak	31.992
GUZTIRA	61.705

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990". Norberak egina.

E.A.E.an, irakaskuntza publikoan behinik behin, 3, 4 eta 5 urtetakoen eskolatze-eskari osoari erantzun zaio dagoeneko, eta 2 urtetako umeenari ere erantzuten hasi da.

Eskolatzeari dagokionez, ez da sexuaren arabera ezberdintasunik somatzen, daudenak umeen artean neskato gehiago izateari zor zaizkio.

Aureskola eskolatzea ez da sexu-arazo bat, eta ezberdintasunik izatekotan, bestelako gizarte-inguruabarrei zor zaizkie.

Zenbakiak aztertutik, inolako bereizkeriarik antzematen ez bada ere, neskatoei zein mutikoei euren gaitasun guztien garapena lortzeko bultzagarri berberak eskaintzen ote zaizkien galde genezake.

Gaitasun horien garapenari begira, aureskolan genero-estereotipoak erakusteak ekar lezakeen arriskua aintzat harturik, alde honetatik fintasun osoz jokatu beharra dago.

Maila honetan, batez ere, helduak erakusten duen irudia funtsezkoa da neskatoak edo mutikoak bere burua nola ikusiko duen mugatzeko, hortaz, ezinbesteko betebehartzat hartu behar da Aureskolako irakasleek hezkidetzaren arloko sentzibilizazio eta prestakuntza sakona edukitzea.

Beste alde batetik, maila honetako irakasleei dagokienez, gizon eta emakume-kopuruak orekatuz gero, emakume askok dihardutenetik emakumeen mailatzat jotzen den eskola-maila honi buruzko estereotipoa desagertarazten lagun daiteke.

OINARRIZKO HEZKUNTZA OROKORRA: OHO

2.1.2

Oinarrizko Hezkuntza Orokorra 8 ikasturtez osotzen da, sei eta hamahiru urte bitartean burutzen delarik. Derrigorrezkoa da.

Hiru ziklotan egituratuta dago: Hasierakoa, Erdikoa eta Goikoa.

— Hasierako Zikloa: OHOeko 1. eta 2. ikasturteak.

— Erdiko Zikloa: OHOeko 3., 4. eta 5. ikasturteak.

— Goiko Zikloa: OHOeko 6., 7. eta 8. ikasturteak.

OHO burututakoan, maila ezberdinak probetxamendu egokiaz burutu dituzten ikasleek Eskola-Graduatuari dagokion titulua jasotzen dute. Baldintza horiek betetzen ez dituztenek, berriz, heldutasun-probak egin behar dituzte hura lortzeko. Titulua lortzerik ez daukatenek Eskola-Ziurtagiria jasotzen dute.

Eskola-Graduatua izanez gero, Irakaskuntza Ertainetako edozeini ekin dakioke: Batxilergo Bateratu eta Balioanitza, BBB, Irakaskuntza Ertainen Erreformaren lehen zikloa, IEE, eta Lehen Gradu Lanbide Heziketa, LH1.

Eskola-Ziurtagiaz LH 1 eta IEEren lehen zikloa ikas daitezke.

2.3. TAULA. OHOeko ikasleak sexuka, zikloaren arabera E.A.E.an

	GUZTIRA		HASIERA-ZIKLOA		ERDI-ZIKLOA		GOI-ZIKLOA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Neskatoak	120.776	48	23.990	48,1	43.209	48,3	53.577	47,8
Mutikoak	130.561	52	25.901	51,9	46.267	51,7	58.393	52,2
GUZTIRA	251.337	100	49.891	100	89.476	100	111.970	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

OHO derrigorrezko eskola-aldia den aldetik, 6 eta 13 urte bitarteko eskola-biztanleria guztia eskolaturik dago, bazterreko talderen bat izan ezik; horrela bada, zenbatezko azterketa egitea ez da bidezkoa, zeren litezkeen ezberdintasunak demografi baldintzen ondorio hutsa baitira. Eraskinaren A.8 taula.

OHOeko ikasleetarik % 48 neskak dira eta % 52 mutilak.

Aurreko datuak ikusirik, eskolatzea eta hezkuntza ez direla gauza bera argitu behar da, datu hauetatik ezin atera daitekeela hezkuntza berdintasuna dagoenik, alegia. Hortaz, eskolan nola gauzatzen den jakintzaren besterenganaketa, nola eta zer irakasten den eta nola egiten den gizareratzea, hau da, eskolak irakatsitako arau eta jokabideen baitaratzea, zehatz-mehatz aztertzean egiaztatzen da, ezkutuan badira ere, sexismozko hezkuntzaren euskarriak sendotu edo, gutxienik ere, beroriei lagundu egiten dieten mekanismoek dirautela sistema horretan.

Neskatoei eta mutilei eskolan ematen zaien tratua ezberdina, batzuekiko eta besteekiko igurikapen ezberdinak, erabilitako mintzaira, nesken presentzia ekidin edo ezkutatu egiten duena, genero-estereotipoz josiriko testu liburuak, besteak beste, aztertu behar dira ezkutuko curriculum argitaratzeko lehen urratsa eman eta hezkidetzan oinarrituriko pedagogi iharduketa batera daraman bidetik aurrera egin ahal izateko.

Eta OHOeko eskola-arrakasta edo porrota funtsezkoa da gerorako aukerei begira.

"Eskola-porrota" delako kontzeptua oso erabilia eta eztabaidatua izan da pedagogia zein soziologiaren ikuspegitik, polemika bizia sortarazi delarik. Horretan sartu gabe, eta zenbatezko azterketa hutsa kontutan harturik, azterlan honetan eskola-kalifikazioak biltzen dira, alabaina, egokiagoa litzateke eskola-errendimendua delako kontzeptua erabiltzea.

OHOeko ikasleen eskola-errendimendua zehaztu eta sexuen arteko ezberdintasunik nabari den mugatzeko, hiru adierazle ditugu: errepikatzaile-kopurua Zikloka, Eskola-Graduatuen kopurua eta hura bukatutakoan lortzen diren Eskola-Ziurtagirien kopurua.

2.4. TAULA. OHOeko errepikatzaileak sexuaren eta zikloaren arabera E.A.E.an

	HASIERA-ZIKLOA		ERDI-ZIKLOA		GOI-ZIKLOA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Neskatoak	429	40,9	1.151	40,2	3.070	40,1	4.650	40,2
Mutikoak	619	59,1	1.715	59,8	4.581	59,9	6.915	59,8
GUZTIRA	1.048	100	2.866	100	7.651	100	11.565	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

OHOeko ikasturteren bat errepikatzen ari diren ikasleetako % 40,2 neskak dira eta % 59,8 mutiak, ikasturteko errepikatzaileen portzentaiari dagokionez, beraz, neskena txikiagoa da. Eraskinaren A.10 taula.

2.5. TAULA. Eskola-graduatuak eta eskola-ziurtagiridunak sexuka, irakaskuntza-motaren arabera E.A.E.an

	ZIURTAGIRIA		GRADUATUA	
	Abs.	%	Abs.	%
Neskak	3.963	39,6	14.640	51,7
Mutiak	6.040	60,4	13.684	48,3
GUZTIRA	10.003	100	28.324	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Neskek mutilek baino eskola-errendimendu hobea erakusten dute OHOeko ziklo guztietan.

Eskola-Graduatua erdiesten dutenen artean, nesken portzentaia, % 51,7, mutilena, % 48,1, baino hobea da.

OHO Eskola-Ziurtagiriaz burutzen duten ikasleetako % 60,4 mutiak dira.

H.L.O. delakoak, ikasleei etorkizunean ikasketa eta lan-aukerak ahalbidetzeko, OHOean prestakuntza orokorra eta denontzako berdina eskaini nahi badu ere, praktikan, titulazio bikoitza emanenez, lehen aukera-bereizketa sortarazten du, Gradua eta Ziurtagiria Irakaskuntza Ertainetako hautabide ezberdinetarako sarbideak baitira.

Neskek lortutako eskola-errendimendu hobea ikusirik, haiek Irakaskuntza Ertainetako ikasketa nahiz lanbide-aukera hoberenetara heltzea espero liteke, alabaina, aurrerago ikusiko den bezala, beste baldintza batzuek dira hautabideok mugatzen dituztenak genero-estereotipoen arabera.

IE OHOaren ondorengo maila da eta hiru hautabidez osotzen da: Lanbide Heziketa, LH, Irakaskuntza Ertainen Erreforma, IEE, eta Batxilergo Bateratua eta Balioanitzia, BBB.

2.6. TAULA. IEen aukeraketa sexuaren arabera E.A.E.an

	NESKAK		MUTILAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
LH	8.880	31,2	11.513	36,9	20.393	34,1
IEE	6.908	24,3	9.778	31,2	16.686	28
BBB	12.631	44,5	9.992	31,9	22.623	37,9
GUZTIRA	28.419	100	31.283	100	59.702	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

8. GRAFIKOA. IEen aukeraketa sexuaren arabera E.A.E.an



IEei ekiten dieten neska guztietarik % 44,5 BBB delakoan hasten dira, % 31,2 LHn eta % 24,3 IEE delakoan.

Mutilei dagokienez, berriz, % 31,8k BBBera jotzen dute, % 36,9k LHra eta % 31,2k IEEra.

Ezberdintasunik nabarmenenak LH eta BBBean agertzen dira. Hortaz, neskarik gehienak BBBean hasten diren bitartean, mutilen artean gehienek LHri ekiten diote. BBB egiteko Eskola-Graduatua lortu beharrak izan dezake ezberdintasun horren errua, lehenago ikusi dugunez, neska gehiagok lortzen baitute hura.

Beste hipotesi bat izan daiteke neskek lan munduan sartzeko unea atzeratu egiten dutela eta prestakuntza luzeagoa aurrikusten dutela.

LANBIDE HEZIKETA. LH

OHOeko ikasketak burutu ondoren Batxilergoa edo IEE delakoa ikasteari jarraitzen ez diotenek lehen mailako Lanbide-Heziketara jo behar dute.

Bigarren mailako LHra, berriz, batxiler-titulua daukatenak, IEE delakoaren lehen zikloa gainditu dutenak eta lehen mailako LH burutu dutenak heldu ahal dira, Erregimen Orokorretik datozenak izan ezik, hauei, zenbait kasutan, osagarritzko ikasturte bat ere eskatzen baitzaie.

Bigarren mailako LH burutu ondoren, espezialitate bereko goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten ikasleak Unibertsitate-Eskoletan sar daitezke, besterik gabe. Unibertsitateko Fakultate-etan edo Goi-mailako Eskola Teknikoetan ikasi nahi badute, ordea, Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea, UBI, gainditu beharko dute.

LHtik, halaber, Lanbide-Moduluetara hel daiteke, 2. mailakoetara lehen mailako LHtik eta 3. mailakoetara bigarren mailako LHtik, hain zuzen.


Une honetan LH, lan merkatuaren egungo eskakizunetara egokitzeko xedez, berrikuntzarako prozesu sakon batean dago.

2.7. TAULA. LHko ikasleak sexuka, mailaren arabera E.A.E.an

	EGOKITZEA		1. MAILA		2. MAILARAKO SARBIDEA		2. MAILA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Neskak	235	18,8	8.645	45,2	470	73	11.733	39	21.083	41,3
Mutilak	1.016	81,2	10.497	54,8	173	27	18.321	61	30.007	58,7
GUZTIRA	1.251	100	19.142	100	643	100	30.054	100	51.090	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

9. GRAFIKOA. LHko ikasleak sexuka, mailaren arabera E.A.E.an



LH I eta Egokitze Ikasturtea egiten ari direnak mutilak dira batipat. Egokitze Ikasturteko ikasleen artean, % 18,8 neskak dira eta % 81,2 mutilak. LH Iean, % 45,2 neskak dira eta % 54,8 mutilak. LH IIan, % 39 neskak eta % 61 mutilak.

2.8. TAULA. LH leko ikasleak irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	Abs.	%
Neskak	8.645	45,2
Mutilak	10.497	54,8
GUZTIRA	19.142	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

LH I ikasten ari diren nesken artean, 551 Administrazio eta Merkataritza espezialitatean daude, % 20,5 Ileapainketa eta Estetikan, % 12,7 Osasun arloan, % 4,5 Etxeko Zereginetan eta gai-nontzeko % 11,3 bestelako espezialitateetan. Eraskinaren A.11 taula.

Aipatutako espezialitate hauetan, berriz, emakume-kopurua gizonena baino askozaz ere handiagoa da:

- Administrazio eta Merkataritzan, % 77,2 neskek dira.
- Ilepainketa eta Estetikan, % 94,5.
- Osasun arloan, % 96,5.
- Etxeko Zereginetan, % 99,7.
- Moda eta Jantzigintzan, % 98,7.

Ikus daitekeenez, emakumeek hautaturiko espezialitateak emakumeen lanbidetzat jotzen direnei lotzen zaizkie, denak Zerbitzu sektorekoak.

Gizonen lanbidetzat jo izan ohi diren espezialitateetan, aldiz, neska oso gutxi ageri dira:

- Nekazaritza, % 6,7.
- Automozioa, % 1,7.
- Elektrizitatea, % 1,9.
- Zura, % 1,8.
- Metala, % 1,9.
- Itsas Arrantza, % 0.

LH lan murriztu egiten da neskei dagokien portzentaia, % 39, lehen mailako % 45,2tik behera, alegia. 2.7. taula.

2.9. TAULA. LH lko ikasleak irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	Abs.	%
Neskek	11.733	39
Mutilak	18.321	61
GUZTIRA	30.054	100


Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

2. mailako espezialitateak aukeratzerakoan, lehen mailan nabarmendutako bereziketa, hau da, gizonek eta emakumeek hautabide jakin batzutura jotzeko joera ezberdinak berretsi ez ezik, areagotu egiten dira. Eraskinaren A.12 taula.

Bereizketa hau horren nabarmena izanik, ikasleak emakumeen eta gizonen espezialitatetan banaturik egotearen arrazoiei buruzko gogoeta bat egin beharra dagoela uste dugu.

Teorikoki, neskek eta mutilek hezkuntza berbera jaso dute eta aukera berberak izan dituzte, hala ere, zer edo zer gertatzen da, oraindik ere, tradiziozko hautabideei jarraitzen baitaie. Neskek genero-estereotipoetan oinarritzen dira, oraingoz, lanbidea aukeratzerakoan.

10. GRAFIKOA. LHko ikasleak sexuaren eta adarraren arabera E.A.E.an. (Portzentaia horizontalak)



Emankortasun akademikoari dagokionez, hona hemen hainbat datu:

2.10. TAULA. LHko errepikapenak sexuka, irakaskuntza-motaren arabera E.A.E.an. (Ikasle guztiekiko portzentaia)

	Abs.	%
Neskek	2.605	12
Mutilak	5.060	17
GUZTIRA	7.665	15

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Neskek mutilek baino errepikapen-indize txikiagoa dute. OHOaren kasuan bezala, LHn ere neskek emaitza akademiko hobeak lortzen dituzte. Hortik, lanpostu hobeak lor litzatekeela atera

liteke, baina ez da hala izaten, zeren, lehenago ere azaldu den bezala, neskek egindako aukeraketak ez dira lan merkatuaren beharrianetara egokitzen ez eta norberaren gaitasunetara ere, alderantziz, genero-estereotipoetara baino ez dira egokitzen gehienetan.

IRAKASKUNTZA ERTAINEN ERREFORMA, IEE

IEEan plan eta programa berriak sartzeko baimena 1983.ean eman zen irailaren 30eko Minis-trari Aginduaren bitartez, Irakaskuntza Ertainen Erreforma, IEE, deritzana, alegia.

IEEren lehen ziklora heltzeko, OHOeko zazpigarren ikasturtea gainditurik eta zortzigarrena eginik izan behar dira.

Lehen ziklo hau osotzen duten bi ikasturteak gainditzen dituztenak 2. ziklora hel daitezke, edo hala nahi izanez gero, BBBko 3. ikasturtera edo 2. mailako LHra.

IEEren 2. zikloa osotzen duten bi ikasturteak gainditutakoan, ikasleak BBB/UBI delakoaren ba-liokide den titulazioa lortzen du.

IEaren modalitate honek iragankorra dirudi, izan ere, saio moduan ezarri baitzen eta, gainera, hezkuntza erreforma ere laster egingo baita. Erreforma honek egitura berri bat ekarriko du bi-garren mailako irakaskuntzara, berau bi zatitan banatuko delarik: derrigorrezkoa, 16 urte bitar-tekoa, eta borondatezkoa ondoren, Batxilergoekin eta Lanbide-Ereduekin.

Beste alde batetik, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxe gutxiri eman dio IEE emateko baimena eta, horrenbestez, gainontzeko adarretan baino ikasle gutxiago ari dira berori ikasten.

2.11. TAULA. IEE ikasten ari direnen banaketa sexuka eta irakaskuntza-motaren arabera

	LEHEN ZIKLOA		BIGARREN ZIKLOA	
	Abs.	%	Abs.	%
Neskak	6.908	41,4	1.989	51,6
Mutilak	9.778	58,6	1.865	48,4
GUZTIRA	16.686	100	3.854	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

IEEren lehen zikloan ari diren nesken portzentaia, % 41,4, mutilena, % 58,6, baino txikiagoa da. 2. mailan ere antzerako zifrak ageri zaizkigu. Neskak, % 51,6, mutilak, % 48,4, baino gehiago dira.

2.12. TAULA. IEeko errepikapenak sexuka eta zikloaren arabera E.A.E.an. (Ikasle guztie-
kiko portzentaia)

	Abs.	%
NESKAK		
Lehen zikloa	539	7,8
Bigarren zikloa	132	6,6
GUZTIRA	671	7,5
MUTILAK		
Lehen zikloa	775	7,9
Bigarren zikloa	159	8,5
GUZTIRA	934	8

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

IEEn ere nesken emankortasun akademikoa hobexeagoa dela ikus daiteke.

**BATXILERGO BATERATU ETA BALIOANITZA, BBB,
ETA UNIBERTSITATEA BIDERATZEKO IKASTURTEA, UBI**

Batxilergo Bateratu eta Balioanitza, BBB, hiru ikasturtez osotzen da, 14 eta 16 urte bitartean egin ohi direnak.

Ikasketa hauek burututakoan ematen den batxiler-tituluak 2. mailako Lanbide Heziketari ekiteko balio du eta, era berean, Unibertsitaterako sarbiderik ohizkoena den Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea egiteko aukera ematen du.

IEean, oro har, batxilergora jotzen dutenen artean nesken portzentaia, % 44,5, mutilen % 31,9a baino handiagoa da. 2.6. taula.


Aurreskolan eta OHOean emakumeen presentzia eta haiei dagozkien portzentaiak bat datoz, BBB delakoan, ordea, portzentaia handiagoa nabari da. Honen arrazoia nesken emankortasun akademikoa hobea izatean datza.

2.13. TAULA. BBB eta UBiko ikasleak sexuaren arabera

	Abs.	%
Neskak	46.353	55,1
Mutilak	37.825	44,9
GUZTIRA	84.178	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

11. GRAFIKOA. BBB eta UBiko ikasleak sexuka E.A.E.an



Neska gehiago dago BBB eta UBiko ikasturte guztietan, ikasle guztien % 55,1 neskak direlarik.

2.14. TAULA. BBB ikasten ari den biztanleria sexuaren arabera E.A.E.an

	Abs.	%
Neskak	36.019	55,3
Mutilak	29.115	44,7
GUZTIRA	65.134	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

BBBko ikasleen %55,3 neskak dira.

2.15. TAULA. UBI ikasten ari direnak sexuaren arabera E.A.E.an

	Abs.	%
Neskak	10.334	54,3
Mutilak	8.710	45,7
GUZTIRA	19.044	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

UBiko ikasleen %54,3 neskak dira.

2.16. TAULA. BBB eta UBIko errepikapenak irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an. (Ikasle guztiekiko portzentaia)

	Abs.	%
Neskak	5.827	13
Mutilak	5.577	15

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Argi dago mutilek neskek baino gehiagotan errepikatzen dutela, %15 eta %13 hurrenez hurren, nahiz eta talde bien arteko diferentzia OHOn baino urriagoa den.

2.17. TAULA. BBB eta UBIko ikasturteak gainditutako ikasleak sexuaren arabera E.A.E.an. (Ikasle guztiekiko portzentaia)

	GAINDITU DUTENAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%
NESKAK				
1. ikast.	7.728	61,2	12.631	100
2garrena	6.749	55,9	12.077	100
3garrena	6.480	57,3	11.311	100
UBI	7.075	68,5	10.334	100
MUTILAK				
1. ikast.	5.494	55	9.992	100
2garrena	4.934	50	9.869	100
3garrena	4.585	49,5	9.254	100
UBI	5.640	64,7	8.710	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Ikasturtez ikasturte baieztatzen denez, ikasturtea gainditu duten nesken eta mutilen portzentaia ez dator bat ikasturte bakoitzean sexu bakoitzari dagokion ikasle-kopuruarekin. Neskek mutilek baino portzentaia askoz ere handiagoak erakusten dituzte ikasturtea gainditzeari dagokionean.

Sexuaren arabera zehatzuz gero, honako ezberdintasun hauek ageri zaizkigu:

BBBeko 1. ikasturtea:

- Ikasturtearen ikasle-kopurua: 12.631 neska, % 55,8, eta 9.992 mutil, % 44,2.
- Kopuru-aldea: % 11,6 neska gehiago.
- Gainditu dutenak: 7.728 neska, % 58, 5.994 mutil, % 42.
- Gaindituen arteko aldea: % 16 neska gehiago.

BBBeko 2. ikasturtea:

- Ikasturtearen ikasle-kopurua: 12.077 neska, % 55, eta 9.869 mutil, % 45.
- Kopuru-aldea: % 11 neska gehiago.
- Gainditu dutenak: 6.749 neska, % 57,8, 4.394 mutil, % 42,2.
- Gaindituen arteko aldea: % 15,6 neska gehiago.

BBBeko 3. ikasturtea:

- Ikasturtearen ikasle-kopurua: 11.311 neska, % 55, eta 9.254 mutil, % 45.
- Kopuru-aldea: % 11 neska gehiago.
- Gainditu dutenak: 6.480 neska, % 58,6, 4.585 mutil, % 41,4.
- Gaindituen arteko aldea: % 17,2 neska gehiago.

UBI:

- Ikasturtearen ikasle-kopurua: 10.334 neska, % 54,3 eta 8.710 mutil, % 45,7.
- Kopuru-aldea: % 8,6 neska gehiago.
- Gainditu dutenak: 7.057 neska, % 55,6, 5.640 mutil, % 44,4.
- Gaindituen arteko aldea: % 11,2 neska gehiago.

Berririo ere galdera bera bururatzen zaigu, mutilek baino errendimendu hobea lortzen dutelarik eta, beraz, karrerarik garrantzitsuenak edo lan merkatuan gehien eskatzen direnak egiteko aukera izan beharko luketelarik, neskek, finean, zergatik jotzen ote dute emakumeek tradizioz aukeratu ohi dituzten beste karrera horietara, etorkizun ilunagoa duten karreretara, hain zuen?

HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRA

2.1.4

Helduen Hezkuntza Iraunkorraren helburua pertsona helduen sustapena da, sustapen hau hainbat arlotara zabaltzen da:

- Ikasketa arloko sustapena: Oinarrizko heziketa orokorra.
- Lanbide sustapena: Edozein lanbidetarako abiapuntua.
- Norberaren sustapena: Nortasuna hornitu eta garatzeko.
- Gizarte-sustapena: Gizarte-errealitatean parte hartzea, erabakitzea eta norbere kabuz aritzea eskatzen duten ekintzen bidez.

Hiru zikloz osotua da:

Lehen zikloa: OHOeko Hasiera-Ziklokoen baliokide diren irakurketa, idazketa eta kalkulerako baliabideak ezagutzen ez dituzten eta erabiltzen ez dakiten helduen heziketaz arduratzen dena.

Bigarren zikloa: Baliabide horiek ezagutu arren, beroriek erabiltzeko trebetasunik ez duten helduentzat, OHOeko Erdi-Zikloaren baliokidea.

Hirugarren zikloa: OHO osoari legozkiokeen oinarrizko tekniken, usadioen eta ezagupenen erabilera funtzionala. Hirugarren maila hau gaindituz gero, Eskola-Graduatua titulua eskuratzen da.

2.18. TAULA. HHleko ikasleak sexuaren eta zikloaren arabera E.A.E.an

	LEHEN ZIKLOA		BIGAR. ZIKLOA		HIRUG. ZIKLOA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	842	75,4	1.047	73,5	4.038	59,2	5.927	63,3
Gizonak	275	24,6	378	26,5	2.785	40,8	3.438	36,7
GUZTIRA	1.117	100	1.425	100	6.823	100	9.365	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Azpimarratu egin behar da alfabetatzeari dagokion lehen zikloan eta irakurle berriei dagokien bigarrenean ere lau ikasleetatik hiru emakumeak direla, berauen alfabetatzeko gogo handia dutela erakusten delarik.

2.19. TAULA. HHI ikasten ari diren emakumeak zikloaren eta adinaren arabera E.A.E.an (Portzentaia horizontalak)

	14-15		16-19		20-29		30-39		40 ETA +		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Lehen zikloa	55	6,5	45	5,3	84	10	224	26,6	434	51,6	842	100
Bigar. zikloa	171	16,3	60	5,8	152	14,5	396	37,8	268	25,6	1.047	100
Hirug. zikloa	1.381	34,2	616	15,3	785	19,4	925	22,9	331	8,2	4.038	100
GUZTIRA	1.607	27,1	721	12,2	1.021	17,2	1.545	26,1	1.033	17,4	5.927	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Beste datu bat ere gogoan izan behar dugu, hau da, lehen zikloan dauden emakumeen artean, % 26,6 30 urtez gorakoa dela eta % 51,6 40tik gorakoa. Argi dago adineko emakume analfabetoen ikasi nahia.

2.20 TAULA. HHleko ikastetxeetan 89-90 ikasturtean lortutako titulazioak sexuaren arabera E.A.E.an

	ESKOLA-ZIURTAGIRIA		ESKOLA GRADUATUA	
	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	475	85	1.384	59,2
Gizonak	84	15	955	40,8
GUZTIRA	559	100	2.339	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Eskola-Ziutagiriak, OHOean ez bezala, ez du biderik ixten, izan ere, aurreko maila baita, Eskola-Graduatua lortzeko aurre-urratsa.

Emakumeen errendimendu hobea baieztatu daiteke, berriro ere, HHI ikasten dutenen artean.

Ageri den interesa aintzat harturik, zentro hauek bultzatzea interesgarria izan liteke, alfabetatze xedea ez ezik, ikaslegoaren gehiengoa osotzen duten emakumeentzat HHI delakoak jarritako gainontzeko helburuak guztiak ere lortzeko.

UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZA 2.1.5

Unibertsitateko Hezkuntza hurrengo zentruetan gauzatzen da: Unibertsitateko Fakultateetan, Goi-mailako Eskola Teknikoetan, Unibertsitate-Kolegioetan eta Unibertsitate-Eskoletan.

Fakultateetan eta Goi-mailako Eskola Teknikoetan egiten diren ikasketak hiru ziklotan banatzen dira: lehen zikloan oinarrizko disziplinak ikasten dira, ziklo honek hiru urte dirau eta Unibertsitate-Kolegioetan ere egin daiteke; bigarren zikloa espezializazio-zikloa da eta bi urte dirau; eta hirugarren zikloan, azkenik, espezializazio eta prestakuntza zehatzagoa lortzen dira irakaskuntza eta irakaskuntzari begira. Unibertsitate-Eskoletan egiten diren ikasketak, berriz, ziklo bakarrean biltzen dira, hiru urte dirauen zikloan alegia.

Fakultate edo Goi-mailako Eskola Teknikoetako lehen zikloko ikasketak burutzen dituzten ikasleek eta Unibertsitate-Eskolakoak burutzen dituztenek dagokien espezialitateko Diplomatu, Arkitekto Tekniko edo Ingeniari Tekniko titulua erdiesten dute. Hirugarren zikloa gaindituz gero, tesia idatzi eta onetsia izan ondoren, Doktore-titulua lortzen da.

E.A.E.an, bestalde, aipatutako hezkuntza-maila horietatik kanpo dauden bestelako irakaskuntza-zentrorik ere badago, hala nola: Marina Zibileko Goi-Eskola, Euskal Kirol Institutua, Papergintza-ko Ingenieritza Teknikorako Eskola, Turismoa eta abar.

2.21. TAULA. Unibertsitate-ikasketak egiten ari direnen banaketa sexuaren arabera E.A.E.an

	Abs.	%
Emakumeak	33.526	49,7
Gizonak	33.977	50,3
GUZTIRA	67.503	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".


Unibertsitate-ikasketak egiten ari direnei dagokienez, kopuru berdintsuaz ageri zaizkigu bi sexuak.

2.22. TAULA. Unibertsitariak sexuka eta ikasketa-programaren arabera E.A.E.an

	GOI-ESKOLA T.		UNIBERT. FAKUL.		UNIBERT. ESK.		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	801	16,4	25.937	55,7	6.788	42,3	33.526	49,7
Gizonak	4.096	83,6	20.639	44,3	9.242	57,7	33.977	50,3
GUZTIRA	4.897	100	46.576	100	16.030	100	67.503	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

12. GRAFIKOA. Unibertsitateko ikasleak sexuka ikasketa-programaren arabera E.A.E.an



Ikasketa-programa ezberdinen arabera, emakumeak honelaxe banatuta daude:

- Goi-mailako Eskola Teknikoetan: % 16,4.
- Unibertsitateko Fakultateetan: % 55,7.
- Unibertsitate-Eskoletan: % 42,3.

Emakumeek egin ohi dituzten karrerak eta gizonek egin ohi dituztenak arras ezberdinak dira. Eraskinaren A.13 taula.

Emakume-portzentaiarik nabarmenenak azaltzen dituzten karrerak hauek dira:

- Gizarte Ekintza, % 92,6.
- Erizaintza, % 89.
- Pedagogia, % 80,3.
- Farmazia, % 75,9.
- Psikologia, % 74,8.
- Filologia, % 73,1.
- OHOeko irakasletza, % 70,4.


Emakume-portzentaiarik urrienak dituzten karrerak, berriz, hauexek dira:

- Industri Ingeniaritza Teknikoa, % 10,1.
- Meatze-Ingeniaritza Teknikoa, % 10,8.
- Ingeniaritza, % 14.
- Teologia, % 16,1.
- Fisika, % 25,6.
- Arkitektura, % 31,9.

Emakume ugari daudeneko beste karrera batzuk aipa genitzake:

- Politika eta Soziologia, % 60,8.
- Odontologia, % 61,8.
- Zientzia Zehatzak, % 60,7.
- Biologia, % 59,2.
- Medikuntza, % 58,1.

13. GRAFIKOA. Unibertsitateko ikasleak sexuka eta espezialitatea E.A.E.an. (Portzentaia horizontalak)



Hortaz, teknika eta lanbide-ikasketetan, lan merkatuan gehien eskatzen diren ikasketetan, alegia, emakume gutxiago dago.

Emakumeek, beraz, tradizioz emakumeen ikasketak izan ohi direnak lehenesten dituzte oraingoz, lan arloan arrakasta gutxiago eta soldata eskasagoak izan ohi dituztenak, alegia.

Eta hau, emakumeak irakaskuntza mistoa izan arren, hezkuntza berezitua jaso izanagatik gerta daiteke, eta familiak neskengandik espero ohi duenagatik ere bai, beste arrazoi batzuren artean.

“Gizonen ikasketa eta karreratzat jo izan ohi direnak aukeratzeko eragozpen handiak izaten dituzte emakumeek, izan ere, gizonentzat gordeak izan ohi diren karrerak aukeratzekoan, emakumeek sentipen arloa eta lanbide arloaren arteko aukeraketa egin beharrean aurkitzen baitira. Lanbide-burruka oso gogorra izango delako susmoa ageri da eta emakumeentzat are latzagoa izango dela, orindik ere. Beste alde batetik, neskei eman zaien hezkuntzak ezer gutxi balio izango du lan merkatuan nagusi diren lehiakortasun, oldarkortasun eta abarretara egokitzeke. Errazago da emakumei dagozkien zereginetara jotzea, hobe ohizko eginkizunetan aritzea arrakastaren larrialdia pairatzea baino. Gauzak honela, emakume askok azken hau erabakitzen du.”¹

EMAKUMEEN EGOERA ARAUTU GABEKO IRAKASKUNTZAN

2.2

Araututako irakaskuntza sarritan ez da lan merkatuaren beharrianetara egokitzen. Testuinguru honetan sortzen da arautu gabeko irakaskuntza, enpleguaren zain daudenen prestakuntza-maila lan merkatuaren beharrianetara egokitzeke xedez, batipat.

Zentro pribatuetatik aparte, Udalek, Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta INEM delakoak, besteak beste, arautu gabeko prestakuntzara eskaintzen dute, eskaintza hau, gaur egun, Osabidezko Hezkuntzan, Lanbide-Hastapena eta INEM delakoaren ikastaroetan gauzatzen delarik.

OSABIDEZKO HEZKUNTZA

2.2.1

Osabidezko Hezkuntzak OHO burutu ez duten 14 eta 16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu.

Bere izenak adierazten duen moduan, zenbait pertsonak hezkuntza sistema barruan dituzten prestakuntza-akatsak zuzendu nahi ditu haien beharrianetara egokitutako tratamendu baten bidez.

E.A.E.ari dagokionez, Bizkaian, Gipuzkoan nahiz Araban daude Osabidezko Zentroak; Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Aldundiarekin, batzutan, eta Udalekin, beste batzutan, egindako hitzarmenen bidez sortutako zentroak, alegia.

¹ Cremados Navarro, M.^a Ángeles. Rodríguez, Rosa M.^a. “Análisis del sexismo existente en el Sistema Educativo”. Hezkidetza-Gaien Bilduma: Bizkaiko Aholkularitza. 4. Tomoa.

2.23. TAULA. Osabidezko hezkuntzako ikasleak E.A.E.an

	Abs.	%
Emakumeak	12	7
Gizonak	159	93
GUZTIRA	171	100

Iturria: Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza.

Osabidezko Hezkuntzan neska gutxi ageri dira, % 7 besterik ez.

Kontutan izan behar dugu OHOean porrot egiten dutenen artean mutilak neskak baino dexente gehiago direla, hala ere, Osabidezko Hezkuntzan ia neskarik ez izatearen arrazoi nagusia ez da hori. Bestelako arrazoi batzuk bilatu beharra dago, adibidez, OHOean porrot egin duten neskei ez zaiela beste aukerarik ematen, neskarentzat ez omen delako nahitaezkoa lanpostu batera heltzea eta, horrenbestez, etxean gelditu eta bertako lanetaz arduratzen hasten da; mutilak ez bezala, hauek, jakina, lan munduan aritu beharko baitira.

Hauek bezalako datuek erakusten digute argi eta garbi zer espero ohi den neskengandik be-rauek aurrera egitea gehien behar duten gizarte-geruzetan hain zuzen; aitzitik, gurasoen men-pe egotera behartu eta lanposturen bat lortzeko aukerarik gabe gelditzen dira.

LANBIDE-HASTAPENA

2.2.2

Lanbide-Hastapena Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Udalen arteko Hitzarmenen bitartez sortu delarik, araututako irakaskuntzari utzi ondoren lanposturik gabe dauden eta horrelakorik lortzeko trebakuntza zehatzik ez duten 16 eta 18 urte bitarteko neska-mutilei zuzentzen zaie.

E.A.E.an 32 Zentro daude. Dauden datuak, berriz, sexuka sailkatuak ez direnez gero, ezin aztertuta daitezke.

Euskal Herriko Unibertsitateak ² egindako azterlanaren arabera, Lanbide-Hastapenerako Ikastetxeetan, LHI, ikasten ari direnen artean nesken portzentaiak % 16,3a jotzen du.

Berriro ere emakumearen presentzia urria ageri zaigu. Kasu honetan, Osabidezko Hezkuntza dela-eta aipatutako arrazoiez gainera, Ikastetxe hauek eskaintzen dituzten lanbideak tradizioz gizonen lanbidetzat jo izan ohi direnei dagozkiela esan behar da, eta emakumeek gutxitan aukeratzeko dituzte lanbideak.

² Arregi, Paki eta beste batzuk, "Impacto del programa de Iniciación Profesional". EHU. 1990.

Adibide gisa, eskaintzen diren 39 lanbideetatik, bi herenak erabat maskulinitzat jo ohi diren horietakoak dira: lgeltsaritza, zurgintza, enkofratzailea, txapa-pintura, etab., gainontzekoak, tradizioaren arabera, bai emakumeak eta bai gizonak aritu daitezkeenetakoak direlarik: Harakina, sukaldea, portzelana, dendako laguntzailea, ileapaitzailea, etab.

INEM DELAKOA

2.2.3

LANTEGI-ESKOLAK (LE) ETA OFIZIO-ETXEAK

Hauen helburua gazteen trebakuntza da, 25 urtez beherako gazteak, batez ere, lana eta lanbide-praktika txandakatuz trebatzea, alegia. LE proiektuak bi mailaz osotuak dira: prestakuntza hutseko 1. maila, 4 hilabetetik 6 hilabetera irauten duena, eta prestakuntza eta lana txandakatzen direneko 2. maila. Guztira, urtebete, gutxienik, eta hiru urte, gehienik, ematen dira bi mailak burutzeko.

Ofizio-etxeetan, bestalde, urtebete, gehienez, ematen da, bi fasetan egituraturik, prestakuntza eta berau lanarekin txandakatuz.


Bi egitarau hauek, Lantegi-eskolak eta Ofizio-etxeak, INEM delakoak sustatuak dira Udalen laguntzaz.

2.24. TAULA. Lantegi-Eskola eta Ofizio-Etxeetako ikasleak sexuaren eta herrialde historikoaren arabera

	ARABA 1990		GIPUZKOA 1991		BIZKAIA 1991	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	138	27,9	133	23,7	163	21,2
Gizonak	357	72,1	428	76,3	605	78,8
GUZTIRA	495	100	561	100	768	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

14. GRAFIKOA. Lantegi-Eskoletako eta Ofizio-Ikastetxeetako ikasleak sexuka eta Herrialde Historikoka



Hemen ere berriro egiazta daitezke lan merkatuan sartzeko prestakuntzarako ikastaroetan emakumeek duten partehartze eskasa.

Lanbide-Hastapenetarako Ikastetxeetan bezalaxe, gizonezkoen lanbideak eskaintzen dira gehien bat, eta horregatik, agian, neska gutxi jotzen du Ikastetxeotara.

Nolanahi ere gero eta emakume gehiago azaltzen zaigu arautu gabeko irakaskuntzan, eta horrela, Osabidezko Hezkuntzan ia emakumerik ez bada ere, Lanbide-Hastapenean ikaslegoaren seirena emakumeak dira dagoeneako eta Lantegi-Eskola zein Ofizio-Etxeetan ikasle guztien laurdena.


Beste alde batetik, langabetuei, oro har, ikastaroen bidez eskainitako prestakuntza programa ezberdinetara egokitzen da, baina denek dute helburu hirukoitza: lan merkaturako sarbidea erraztea, lanbide-birmoldaketa lortzea edo espezializazio handaigoaz hornitzea.

2.25. TAULA. INEM delakoak 1990. urtean zehar trebatutako langileak sexuaren arabera E.A.E.an

	Abs.	%
Emakumeak	4.724	34,4
Gizonak	9.011	65,6
GUZTIRA	13.735	100

Iturria: INEMen estatistika 1990.

15. GRAFIKOA. INEM delakoak 1990. urtean zehar trebaturiko langileak sexuka E.A.E.an



Ikastaro hauetan parte hartzen duten gizonak emakumeak baino ia bi bider gehiago dira. Emakume hauetako gehienak, % 61,8, 20 eta 30 urte bitartekoak dira; gizonak, aldiz, adin guztietakoak dira. Berrito ikusten da emakumeek 30 urte bete arte, batipat, parte hartzen dutela enpleguratzeko prestakuntzan. Hortik aurrera asko jaisten da emakumeen partaidetza. Eraskinaren A.14 Taula.

EMAKUMEAK HEZKUNTZA SISTEMAKO PROFESIONARI GISA

2.3

Hezkuntza arloan irakasten nahiz bestelako eginkizunetan lan egiten duten emakumeen presentziak lanbide hori emakumeena delako estereotipoa sendotu egiten du. Beste alde batetik, hezkuntzaren bidez jenero-balioak ere besteganatzen badira eta hezkuntza arloan dihardutenetako gehienak emakumeak badira, pentsa daiteke, maisuak ezezik, maistrak ere jenero-balio horien besteganatzaile zuzenak direla, oharkabea kode eta balio maskulinoak oinarritzat harturik heitzen dutelako.

EMAKUMEAK HEZKUNTZA SISTEMAKO IRAKASLE GISA

2.3.1

Hezkuntza Sistemako irakasleen artean emakumeak gizonak baino gehiago dira, % 62,4.


2.26. TAULA. E.A.E.ko irakaslegoa sexuaren arabera

	AURRESKOLA		OHO		HHI		HB		BBB	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	2.779	93,1	10.137	73,3	230	59,9	233	78,5	3.001	57,2
Gizonak	206	6,9	3.697	26,7	154	40,1	64	21,5	2.250	42,8
GUZTIRA	2.985	100	13.834	100	384	100	297	100	5.251	100

	LH		FAKULT. G.E.T.		UNIBERT. ESK.		BESTELAK.		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	1.450	36,5	620	24,9	353	37,8	34	27,7	18.468	62,4
Gizonak	2.526	63,5	1.868	75,1	581	62,2	89	72,3	11.126	37,6
GUZTIRA	2.488	100	2.488	100	934	100	123	100	29.589	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

16. GRAFIKOA. E.A.E.ko irakaslegoa sexuka. (Portzentaia horizontalak)



2.27. TAULA. E.A.E.ko aureskola eta OHOeko irakasleak sexuaren eta irakaskuntza-motaren arabera

	PUBLIKOA				IKASTOLA				PRIBATUA				GUZTIRA			
	AURRESKOLA		OHO		AURRESKOLA		OHO		AURRESKOLA		OHO		AURRESKOLA		OHO	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	1.419	91,6	5.431	74,6	699	93,8	1.872	76,3	661	95,8	2.834	69,4	2.779	93,1	10.137	73,3
Gizonak	131	8,4	1.850	25,4	46	6,2	581	23,7	29	4,2	1.266	30,9	206	6,9	3.697	26,7
GUZTIRA	1.550	100	7.281	100	745	100	2.453	100	690	100	4.100	100	2.985	100	13.834	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Oinarrizko eta erdiko mailetan, LH delakoan izan ezik, emakumeak dira gehienak, gehiengo hau, ordea, gutxiengo bihurtzen da Unibertsitateko irakaskuntzan.

Irakaslego hau arlo ezberdinetan aditua den OHOeko irakaslez osotua da. Aurrekolako ikas-tetxeetan, adibidez, irakasleak Aurrekolan espezializatutako OHOeko maisu-maistrak dira.

Aurrekolako irakaslerik gehienak, ia denak, emakumeak dira, % 93,1.

OHOean, berriz, irakaslegoaren hiru laurdena osotzen dute emakumeek, % 73,3.

Hortaz, neska-mutilen lehen 14 urteetako hezkuntza emakumeen ardurapean dagoela esan daiteke.

Azpimarragarria da, hala ere, zuzendaritza-karguetara begiratz gero, emakumeen proportzioa murriztu egiten dela (guztira 792 dira, hauetako % 63 emakumeak) eta proportzio hori are urriagoa dela klaserik eman behar ez duten zuzendarien artean, hauetako % 48 baino ez baitira emakumezkoak.

2.28. TAULA. E.A.E.ko LHko irakasleak sexuaren eta irakaskuntza-motaren arabera

	PUBLIKOA		PRIBATUA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	655	32,5	795	40,6	1.450	36,5
Gizonak	1.362	67,5	1.164	59,4	2.526	63,5
GUZTIRA	2.017	100	1.959	100	3.976	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

LHri dagokionez, emakumeen portzentaia gizonena baino dexente txikiagoa da, % 36,5. Emakumeak lan arloan izan ohi duen presentzia urriari zor zaio hau, zeren irakasle berezituak lan-bide-mundutik etorriak izaten baitira, eta horrela, LHn irakasten duten emakumeek hezkuntza-arlo arruntetan dihardute batez ere.

Ikastetxe publikoetan lantegiko maisuak eta Maisutza Eskoletako espezialitateak sartzen dira; era berean, Irakaskuntza Ertaineko Institutu Teknikoko katedradunak, lantegiko maisuak eta espezialista numerarioak, Irakaskuntza Bateratuen Ikastetxeetako irakasleak, AISS-INEM delakotik eratorritako ikastetxeetako irakasle eta maisuak eta abar. Ikastetxe pribatuetan, berriz, irakasle titularrak, praktiketakoak eta beste batzuk.

2.29. TAULA. E.A.E.ko BBB eta UBiko irakasleak sexuaren eta irakaskuntza-motaren arabera

	PUBLIKOA		IKASTOLA		PRIBATUA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	1.957	61,8	276	53,3	768	49,1	3.001	57,2
Gizonak	1.211	38,2	242	46,7	797	50,9	2.250	42,8
GUZTIRA	3.168	100	518	100	1.565	100	5.251	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Ikastetxe publikoetako BBB eta UBlan katedradunak, agregatuak, Irakaskuntza Bateratuen Ikastetxeetako irakasleak, Gorputza-Hezkuntzako irakasleak, Erlijioak eta beste batzuk sartzen dira. Ikastola eta ikastetxe pribatuetan, berriz, irakaslegoa oro har, arruntak eta egokituak bereizi gabe.

Irakasleen artean, emakume-kopurua, gizonena baino handixeagoa izanik ere, jaitsiz doa maila igoen ahala.

Irakaskuntza pribatuan badirudi emakume eta gizonen arteko oreka dagoela, hala ere ohar bat egin beharra dago. Izan ere, irakaskuntza pribatuan ikastetxe berezi gehiago baitago, hau da, neskenak ala mutilenak diren ikastetxeak, ez mistoak; hortik dator irakasleak ere, funtsean, emakumeak ala gizonak izatea, baina ez mistoa, nahiz eta zenbaki orokorreari begiratuz gero hala ematen duen.

2.30. TAULA. E.A.E.ko HHiko irakasleak sexuaren eta irakaskuntza-motaren arabera

	PUBLIKOA		PRIBATUA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	133	52,4	97	74,6	230	59,9
Gizonak	121	47,6	33	25,4	154	40,1
GUZTIRA	254	100	130	100	384	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

HH leko irakaslegoa arlo ezberdinetan espezializatutako OHOeko irakaslez osotua da.

HH leko irakaslerik gehienak emakumeak dira, % 59,9, baina OHOeko portzentaiaetara iritsi gabe, % 73,8.

HHI OHOeko irakasleek ematen dutela aintzat harturik, gizonak, ahal duten neurrian, OHO uzteko joera erakusten dutela pentsa daiteke, lanbide-statusean mailaz igon nahi dutela, alegia.

2.31. TAULA. E.A.E.ko unibertsitateko irakasleak sexuaren eta programa-motaren arabera

	G.E.T.		UNIBERTS. FAKULT.		UNIBERTS. ESK.		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	48	13,6	572	26,8	353	37,8	973	28,4
Gizonak	306	86,4	1.562	73,2	581	62,2	2.449	71,6
GUZTIRA	354	100	2.134	100	934	100	3.422	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Unibertsitateko irakaslegoari dagokionez, emakumeak gutxi dira gizonen aldean Unibertsitateko irakasleen artean. Horrez gainera, emakumeen presentziarik nabarmenena Unibertsitate-Eskoletan agertzen da, % 37,8, eta hauen maila Fakultateetako lehen zikloari dagokio.

Goi-mailako Eskola Teknikoetako irakasleen artean, aldiz, emakumeen presentzia nahikoa urria da, % 13,6.

Emakume-kopuruak gorabehera handiak erakusten ditu espezialitateen arabera. Hortaz, batzutan gizonak baino askoz ere gehiago dira eta, beste batzutan, ia ez da emakumerik. Eraskinaren A.15 taula.

Irakasleen artean emakumerik gehien duten karrerak hauexek dira:

- Erizaintza, % 67.
- Gizarte-Langilea, % 54,5.
- OHOkoko Irakaslegoaren U.E., % 54,2.
- Filologia eta Geografia eta Historia, % 42,7.

Berriro ere, tradizioz "emakumeenak" izan ohi diren lanbideetan ageri zaizkigu emakumeak. Neskek lanbide hauek aukeratzeaz gainera, bertako irakasleak ere emakumeak dira hein handi batez.

Irakaslegoari buruzko datu hauen arabera, irakasleen artean gizonezko gehiago dauden LH eta Unibertsitatea salbuetsirik, hezkuntza lanbide femeninoa, batez ere, dela esan genezake.

Zenbakiok ikusirik, bestalde, zenbait galdera azaltzen zaizkigu: zergatik da hala? zer nolako ondorioak dakartzkie ikasleei irakaskuntzaren feminizatzeko horrek?

Erantzunak, hipotesi huts baino ez dira oraingoz, egiaztatu beharreko hipotesiak, baina, hezkuntza azken hamarkadetan emakumeen lanbide bihurtu delako zentzutik doaz, eta zifrek ere halako zerbait erakusten dute, irakaskuntzan diharduten emakume gehienak oinarritzko mailan,

% 93,1 Aurrekolan eta % 73,3 OHOean, BBB delakoan, % 57,2 eta UBIn biltzen direla kontutan harturik. 2.26 taula. Ikasleen adina gehitu ahala, emakumeen presentzia gero eta urriagoa da.

Beste alde batetik, gehiengoak izan arren, gizonak baino beherago aurkitzen dira hezkuntzako maila ezberdinen ospe eta soldatei dagokien eskalan:

“Estas diferencias de posiciones entre hombres y mujeres, dentro de los niveles educativos, tienen consecuencias negativas no sólo para los docentes, sino también para los alumnos y alumnas, dado que mantienen la imagen tradicional de unas formas de división sexual del trabajo según las cuales las mujeres se ocupan fundamentalmente de los pequeños en una prolongación del papel materno, y ejercen pocas tareas de dirección; mientras que a los hombres se les reservan los puestos importantes y los niveles considerados de mayor interés científico”³.

Emakume gehiago izateak ez dakar, nahitaez berdintasun handiagoa, ez eta dauden genero estereotipoen deuseztapena, zeren, emakumezko irakasleak jasan duten kulturapen maskulinoaren poderioz, oraindik ere mozorroturik dagoen ezkutuko curriculum delakoak eguneroko ekintza pedagogikoari eragingo dio.

EMAKUMEAK HEZKUNTZA SISTEMAKO LANGILERIA EZ-IRAKASLEAREN ARTEAN

2.3.2

Ikasketa-mailako ardurarik ez daukana eta zuzendaritzako lanposturen batean edo ikasleei nahiz irakasleei etengabe eta sistematikoki laguntzen ez diharduena da ikastetxeko langile ez-irakaslea.

Langileria ez-irakaslea honela sailkatuta dago:

- Espezializatua: psikologoak, soziologoak, pedagogoak, hezkuntza bereziko laguntzaileak.
- Administrazioak: administrariak, kontulariak, idazkariak.
- Menpekoa: atezainak, mandatariak.
- Bestelakoak: garbitzaileak, zelatariak, sukaldariak, mantenimendukoak.


³ Subirats, Marina, “Una profesión mayoritariamente femenina”. *Cuadernos de Pedagogía*. 161 zk., 34. orr. Bartzelona.

2.32. TAULA. E.A.E.ko langileria ez-irakaslea sexuaren arabera

	AURRESKOLA OHO-HHI		BBB-UBI		LH		HB		FAKULTATEAK G.E.T.		UNIBERT. ESK.		BESTELAKOAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	3.826	81,5	785	72,2	656	70,5	184	78,3	668	62	118	60,2	23	74,2	6.260	75,9
Gizonak	867	18,5	302	27,8	274	29,5	51	21,7	409	38	78	39,8	8	25,8	1.989	24,1
GUZTIRA	4.693	100	1.087	100	930	100	235	100	1.077	100	196	100	31	100	8.249	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

17. GRAFIKOA. E.A.E.ko pertsonal ez-irakaslea sexuka. (Portzentaia horizontalak)



Langile ez-irakasleen artean irakasleen artean baino presentzia gehiago du emakumeak, % 75,9 eta % 62,4 hurrenez hurren, eta are deigarriagoa dena, gehiago izate hau maila guztietan azaltzen da, emakumeek bigarren mailako zereginetan dihardutelako estereotipoa nabarmenagotuz.

3

**NAZIOARTEKO
ERKAPENA**

Erkapen zehatza egiteko ahalbidean oztopo bat aurkitzen da: OCDEko herrialdeei buruzko datuak 1983/84 eta 1984/85 urteei dagozkio, 1986ko bakan batzuk ere badirela; E.A.E.ko datuak, aldiz, 89/90 ikasturteari dagozkio. Bai ikasketa-planak, bai gradu eta adinen arabera sailkapenak ezberdinak dira, arraz ezberdinak zenbait kasutan. Tiltulazioetan ere ezberdintasun nabarmenak daude.

Gauzak honela, ondoren azaltzen den erkapena ere halakoxea da.

Gure hezkuntza sistema CINE, Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Arautuan biltzen diren maila eta graduarekin alderatzerakoan, Estatistikako Nazio Erakundeak ezarritako oinarria hartu dugu abiapuntutzat, aldaketa txikiren batekin.

HEZKUNTZAREN NAZIOARTEKO SAILKAPEN ARAUTUA

- 0 maila: Lehen Graduaren aurretiko Irakaskuntza
- 1. maila: Lehen Graduako Irakaskuntza (1 eta 2. zikloa)
- 2. maila: Irakaskuntza Orokorra 2. Gradua, Lehen zikloa(Hirug. zikloa)
- 2. eta 3. mailak: 2. Graduoko beste Irakaskuntza batzuk IEE, Lanb.- Modul.
- 3. maila: Irakaskuntza Orokorra 2. Gradua, 2. zikloa
- 5. eta 6. mailak: Hirugarren Graduoko eta lehen zikloko Irakaskuntzak
- 7. maila: Hirugarren Graduoko Irakaskuntzak, 2. zikloa. Nautika.
- Gorputza-Hezkuntza

HEZKUNTZA SISTEMA

Aurrekoloko Hezkuntza
OHO
OHO
LH I eta II
BBB eta UBI
Unibertsitate-Eskolak
Gizarte-Graduatuenak
Turismo
Fakultateak, G.E.T.

EMAKUMEAK HEZKUNTZA SISTEMAKO IKASLE GISA 3.1

Europar, SSBB * barne, 1986. urtean ikasten ari ziren emakumeak matrikula osoaren % 50era iristen ziren.

E.A.E.an, berriz, 89/90 ikasturtean ikasten ziharduten emakumeak matrikula osoaren % 48,8 ziren

3.1. TAULA. E.A.E.an eskolatutako biztanleria 1989-90 ikasturtea

	Abs.	%
Emakumeak	268.418	48,8
Gizonak	281.750	51,2
GUZTIRA	550.168	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

* Aintzina SSBB osatzen zuten errepublikaren datuak.

Graduka, egoera hau ikus daiteke:

3.2. TAULA. Ikasten ari diren emakumeak irakaskuntza-mailen arabera

	1. GRADUA OHO-1.-2. ZIKLOA	2. GRADUA OHO-3. ZIKLOA BBB-UBI-LH-IEE	3. GRADUA GOI-IKASKETAK
Europa (SSBB barne)	49,0	52	48
E.A.E.	48,2	49	49,7

Iturria: L'enseignement au féminin 1986. EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Oro har, gure hezkuntza sisteman eskolatutako emakumeen portzentaia Europakoa baino handixeagoa da, hirugarren graduan izan ezik, beronetan handiagoa baita.

Lehen maila eta Lehen zikloko eta Bigarren mailako ikasleei dagokienez, ez da alderagarria, demografiaren egoera baino ez du erakusten, izan ere, E.A.E.an, OHO ikasteko adina duen biztanleriaren %100 eskolaturik baitago.

3.3. TAULA. E.A.E.ko IEko ikasleak 89/90 ikasturtean sexuaren arabera

	LH		IEE		BBB-UBI		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	21.083	41,3	8.897	43,3	46.353	55,1	76.333	49
Gizonak	30.007	58,7	11.643	56,7	37.825	44,9	79.475	51
GUZTIRA	51.090	100	20.540	100	84.178	100	155.808	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Bigarren mailako irakaskuntzan 3. maila hartzen da erreferentziazat, hau da, BBB eta UBiko ikasleak. Maila honetan E.A.E.ko ikasleetarik % 55,4 emakumeak dira.

Gradu honetan maila hobeagoa erakusten dugu hainbat herrialderen ondoan:

	%
E.A.E.	55,4
Austria	47,7
Kanada	49,2
Erresuma Batua	49,6
Jugoslavia	49,6
Grezia	49,7
Belgika	50,5
Suitza	50,5
Alemania	50,8
Italia	50,9
Japonia	51,2
Holanda	51,5
Suedia	53,5
Espainia	53,5
Portugal	54,5
Eire	55,5
Noruega	56,0
Danimarka	57,8
Finlandia	60,8
Frantzia	60,8

E.A.E., Bigarren Mailako Irakaskuntzari dagokionez, aipatutako 19 herrialdetako 10ek baino portzentaia hobe erakusten du.

Lanbide-Irakaskuntza Teknikoari dagokionez, gure hezkuntza sistemako LH eta IEEren baliokide diren 2. eta 3. mailakoari hain zuzen, berorretan diharduten emakumeak % 41,3 dira E.A.E.an.

	%
E.A.E.	41,3
Danimarka	37,6
Italia	41,1
Espainia	43,4
Holanda	44,1
Jugoslavia	44,6
Japonia	45,1
Frantzia	46,2
Noruega	46,9
Belgika	48,2
Finlandia	50,7
Luxemburg	51,1
Suedia	52,6
Austria	53,7
Alemania	54,2
Erresuma Batua	54,5
Eire	71,6
Zeelanda berria	86,0

Herrialde guztietan, Lanbide Teknikoetarako Irakaskuntzan BBB eta UBIn baino emakume gutxiago dagoen arren, E.A.E.an LH ikasten ari diren mutilen portzentaia OCDEko herrialde gehienena, ia denena, baino txikiagoa da.

Euskal emakumeek BBB ikasteko joera itzela erakusten dute eta, aurrerago ikusiko den bezala, Unibertsitaterakoa ere bai.

Lanbide-irakaskuntzan emakume gutxiago izatea OCDEko herrialde guztietan barrena zabaldu-tako joera da.

Datu hauek ikusirik, emakumeek, gerora lan merkatuan gizonekin lehiatu beharko dutela kon-tutan harturik, zergatik ez ote duten euren prestakuntza lan merkatuan irteerarik hoberenak di-tuzten irakaskuntzetarantz zuzentzen galde genezake.

Emakumeen partaidetza jasotzen duten zenbakien bilakaerak, dena den, Lanbide-Irakaskuntza-ko portzentaiei gutxika-gutxikako gorakada erakusten du.

3.4. TAULA. Unibertsitateko irakaskuntza-graduka sailkatutako ikasleak sexuaren arabera

	1. ZIKLOA		2. ZIKLOA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	7.766	44,7	26.861	51,5	34.627	49,8
Gizonak	9.609	55,3	25.326	48,5	34.935	50,2
GUZTIRA	17.375	100	52.187	100	69.562	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

OCDEko herrialdeetako unibertsitateetan ikasten ari diren emakumeen portzentaiak honako hauek dira:

	%
Danimarka* ⁴	
1. Zikloa	41,7
Finlandia*	
1. Zikloa	50,3
1. eta 2. Zikloa	38,6
Frantzia*	
1. Zikloa	50,6
2. Zikloa	39,2
Alemania*	
1. Zikloa	38,2
2. eta 3. Zikloa	31,5
Japonia	
1. Zikloa	24,0
2. eta 3. Zikloa	12,9
Herbeherak	
2. eta 3. Zikloa	33,2
Australia	
1. Zikloa	44,8
2. eta 3. Zikloa	39,2
Austria	
1. Zikloa	44,8
2. eta 3. Zikloa	39,2
Kanada	
1. Zikloa	52,3
2. eta 3. Zikloa	40,2
Zeelanda Berria	
1. Zikloa	45,6
2. eta 3. Zikloa	37,8
Espainia	
1. Zikloa	44,0
Suitza	
1. Zikloa	36,0
2. eta 3. Zikloa	25,7

⁴ * 1982.eko datuak.

E.A.E. osorik hartuta, Unibertsitatean ikasten ari direnetako % 49,8 emakumeak dira, OCDEko herrialdeetarik gehienek gainetik dagoen portzentaia, are nabarmenagoa 2. zikloko ikasketei dagokienez.

Herrialde guztietan, emakume unibertsitarien portzentaia gizonenarekin berdinduz doa, hala ere, ezberdintasun batek bere hartan dirau, hau da, aukeratutako karreraren artekoa: Letrak, Arteak eta Hizkuntzak, besteak beste, emakumezkoen karrerek dira; Zientzia Aplikatuak karreretan, alderantziz, gizonak dira gehienak. Dena den, gizonentzat erreserbaturik izan ohi diren beste disziplina batzutan, Medikuntzan esate baterako, emakume asko ari da, zenbait kasutan, Finlandian, % 57, edo Jugoslavian, % 59 emakumezkoen fakultate bihurtu direlarik, eta beste zenbaitetan emakumearen presentzia asko areagotu delarik: % 42 Australian, % 45 Austrian, % 48 Erresuma Batuan... E.A.E.ko portzentaia % 58,1era iritsi zen 89/90 ikasturtean.

Beste zenbait karreretan ere, Zuzenbidea, Gizarte-Zientziak, Arkitektura, Enpresa Zientziak, etab., emakume-kopurua areagotuz joan da.

E.A.E.an ere joera berberak antzeman daitezke: % 60,8 Politika Zientziak eta Soziologian, % 45,7 Ekonomi Zientzietan eta % 52,5 Zuzenbidean. Eraskinaren A.13 taula.

Gizonezkoen karrerentzat jo izan ohi diren Ingeniaritza eta Zientzia Aplikatuak bezalako karreretan ere, aldaketa-zeinak nabari dira OCDEko herrialdeetan, emakumeek gero eta gehiago josten baitute karrera horietara, EEBB eta Kanadan batez ere, nahiz eta 1982.ean proportzioa, oraingoz, 9tik 1 izan Kanadan eta 10etik bat Estatu Batuetan. Dena den, harrez gero baliteke diferentzia hori txikiagoa izatea.

E.A.E.an, bestalde, karrera hauetan dauden emakumeen portzentaiak hauexek dira:

- Industri Ingeniaritza Teknikoa, % 10,1.
- Meatzte-Ingeniaritza Teknikoa, % 10,8.
- Ingeniaritza, % 14.
- Fisika Zientziak, % 25,6.
- Arkitektura, % 31,9.

Unibertsitatean, halaber, OCDEren azterlanen arabera, master eta doktoradutza bezalako gradu-ondoko ikasketetan emakumeak gizonak baino gutxiago dira.

EMAKUMEAK IRAKASLE GISA

3.2

Irakaslegoari dagokionez, arlo honetan egin daitezkeen nazioarteko erkapenak nahiko irristakorrak suerta daitezkeela kontutan hartu beharra dago:

- Irakasle hitz berak ere esanahi ezberdina izan baitezake herrialde batean ala bestean.
- Eskatzen den kualifikazioa ere aldakorra baita.
- Herrialde beraren barne ere irakasle-kategoria ezberdinak egon baitaitezke irakaskuntza maila berean.

— Zenbait herrialdetan, irakasleek maila jakin batzutan irakatsi beharra baitaukate, eta beste batzutan alderantziz gertatzen baita.

Eragozpen hauetaz gainera, zenbait arlotan datu parekagarriak ez izatetik eratortzen direnak kontutan hartu behar dira. Hortaz, OCDEren estatistika azterlanetan, adibidez, ez dira Unibertsitateko irakaslegoari buruzko datuak sartu.

3.5. TAULA. E.A.E.an irakasten ari diren emakumeak irakaskuntza-motaren arabera 1989-90 ikasturtea

	%
Aureskola	93,1
OHO	73,3
BBB-UBI	57,2
Lanbide Heziketa	36,5
Unibertsitatea	28,4
GUZTIRA	62,4

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

Emakumeen portzentaia orokorrak, E.A.E.an, % 62,4a jotzen du. Aureskola, % 93,1, zein OHOn, % 73,3, gehiengo nabarmena dagokie. BBB eta UBIn gehiengo hori urritu egiten da, % 57,2, LHn nabarmen gutxitzen delarik, % 36,5. Emakumeen presentziarik urriena, ordea, Unibertsitatean ageri zaigu, % 28,4.

OCDEko herrialdeetan ere, emakumeak gehiengoa dira Aureskolan.

AURRESKOLA - 1986/87

	%
E.A.E. 1990	93,1
Danimarka	57,2
Eire	75,9
Japonia	88,2
Alemania	91,4
Jugoslavia	94,4
Espainia	96,0
Frantzia	96,1
Australia	96,6
Turkia	99,5
Erresuma Batua	100,0
Grezia	100,0

Irakaslegoaren feminizatzea txikiagoa da Lehen Graduan, nolanahi ere, % 70etik gora dago aztertutako 18 herrialdeetatik 9tan. Ikus dezakegunez, E.A.E. azken hauen parean dago:

LEHEN GRADUA

	%
E.A.E. 1990	73,3
Turkia	41,8
Grezia	48,9
Luxenburg	49,1
Japonia	56,3
Danimarka	57,2
Noruega	59,8
Herbeherak	63,5
Suedia	67,9
Kanada	68,9
Jugoslavia	71,3
Frantzia	71,3
Espainia	72,6
Eire	76,0
Erresuma Batua	78,4
Alemania	79,2
Belgika	79,7
Australia	—
Zeelanda Berria	—

Bigarren Zikloan antzematen den emakumezko irakasleen gutxitzea azaldutako herrialde guztietan nabari da hurrengo portzentaioetan ikus dezakegunez:

BIGARREN ZIKLO OROKORRA

	%
E.A.E	57,2
Japonia	22,1
Herbeherak	27,5
Alemania	30,6
Noruega	34,1
Turkia	41,9
Kanada	45,5
Grezia	46,6
Jugoslavia	47,9
Frantzia	49,5
Espainia	50,2
Erresuma Batua	50,6
Belgika	51,3

TEKNIKA-LANBIDEZKO BIGARREN ZIKLOA

	%
E.A.E	36,5
Eire	14,8
Erresuma Batua	27,0
Herbeherak	29,1
Grezia	34,1
Turkia	35,0
Espainia	35,8
Alemania	39,2
Frantzia	42,0
Austria	48,1

Bigarren Ziklo Orokorrari dagokionez, E.A.E.an dauden portzentaiak azaldutako guztien gainetik daude, Teknika-Lanbidezko Irakaskuntzan, ordea, erdi-behe mailakoak dira.

4

IKASTETXE ESKLUSIBOAK

Abuztuaren 4eko 70/14. Hezkuntzaren Lege Orokorren bidez hezkuntza sistemaren osoko birmoldaketa egin nahi izan zen, garai hartan Estatu osoan zeuden ikastetxeen birmoldaketa sakona, alegia.

1.971.eko ekainaren 19ko Ministraritzaren Aginduen 2.7 atalean, uztailaren 1eko EBO, estatuko ikastetxeak direla eta, bi sexuentzako irakaskuntza bera eman zitekeela erabakitzen da.

Printzipio hau onesteak, batzuren ustez, "refleja bien a las claras el cambio profundo que se está experimentando en el campo de la educación, además del valor práctico indudable, ya que en las zonas de población escolar reducida permitirá en régimen de coeducación constituir colegios completos de EGB, aparte los valores pedagógicos que pueda tener tal principio" ⁵.

Izan ere, printzipio hau, gaur egun, erabat aplikagarria da gure ikastetxeetan, areago OHoko ikastetxe ezberdinetan urtero betekizun dauden lanpostuetarako deialdiak sexu-bereizkeriarik gabe egiten direnean, haietarako eskabidea emakumeek nahiz gizonek egin dezaketelarik.

Neskato edo mutikoen Eskola Graduatuak Nazio-Eskola Mistoak bihurtzen dira Hezkuntzaren Lege Orokorren bitartez.

Irakaskuntza pribatuan, aitzitik, ez da aldaketa hau suertatzen, eta ikastetxe handietan, gehienak erlijioari lotuak, neskentzako ala mutilentzako irakaskuntzak dirau oraindik ere.

Matrikula-beherakada, batez ere, dela medio, ikastetxe hauetan ere nolabaiteko aldaketa antzematen hasia da. Horrela, matrikula sexu bakarrez osotzen ez denean, esate baterako, sarre-rako unitateak, aurrekologia edo OHoko lehen zikloa mistoak bihurtzen dira. Honen ondorioz, gero eta gehiago dira beheko mailak mistoak izanik, goiko mailetan ikasgela eskusiboak dituzten ikastetxeak.

Ezin da ahaztu, bestalde, institutu sekularretako zenbait erlijio-ordenek hezkuntza eskusiboa defendatzen dutela neskei dagokienez batzutan, eta mutilei dagokienez beste batzutan.

Ikastolak, aldiz, hasiera-hasieratik izan ziren mistoak eta hala dira orain ere.

87/88 ikasturtean, EUSTATEk Emakunderentzat egindako ustiapen estatistiko baten bidez, ikastetxe eskusiboak buruzko datu-bilketa egin zenean, Unibertsitatez kanpoko ikastetxeak 1.213 ziren. Berauetako 338, hau da % 27,9, eskusiboak.

Herrialdekako banaketa honako hau da:

Araba: 28 ikastetxe eskusibo, ikastetxe guztien % 16,9.

Bizkaia: 205 ikastetxe eskusibo, ikastetxe guztien % 33,3.

Gipuzkoa: 105 ikastetxe eskusibo, ikastetxe guztien % 24,3.

Datu hauek argitzen digutenez, irakaskuntza mistoa ez da ikastetxe guztietara heldu oraingoz.

Eskola mistoa hezkidetzara heltzeko ezinbesteko urratsa dela uste da, hortaz, hura ere lortzeke dagoela azpimarratu beharra dago: unitate guztiak edo baten bat, gutxienik, mistoa ez deneko 338 ikastetxe eskusibo daude E.A.E.an.

⁵ Fernández-Cuervo Arroyo, Andrés: "Transformación y clasificación de Centros", HZM, 1974.

4.1. TAULA. E.A.E.ko ikastetxe eskusiboak 1988-89 ikasturtean herrialde historikoka

	IKASTETXE-KP.	IKASTETXE GUZTIEN %
Araba	28	16,9
Bizkaia	205	33,3
Gipuzkoa	105	23,3
GUZTIRA	338	27,9

Iturria: EUSTAT, 1988-89. (Argitaratu gabe.)

E.A.E.ko ikastetxeetako % 27,9 eskusiboak dira. Bizkaiko ikastetxeetako 1/3 eta Gipuzkoako ia 1/4 oraindik ere eskusiboak direla azpimarratu behar da.

Hezkuntza-mailei dagokienez, ikasgela eskusiboak dauzkaten ikastetxeak honela banatzen dira:

Aurreskolan	19
OHO	250
LH	36
BBB	33
GUZTIRA	338

Ikasgela eskusibo guztietako % 74 OHO mailakoak dira.

Datu hauek behar bezala ulertzeko, ikastetxe bera maila ezberdinei dagozkien zifretan ager daitekeela kontutan hartu behar da, horrela ikastetxe-kopurua gehituz. Maila ezberdinez, Aurreskola, OHO,BBB..., osotua izanik, berorietako bakoitzean zenbatua izan baita.

AURRESKOLAKO IKASTETXE ESKUSIBOAK 4.1

Aurreskolako ikastetxe eskusiboak 19 dira. Hauetako 11 pribatuak dira eta gainontzeko 8ak publikoak.

Azken hauek unean-uneango arrazoiengatik dira eskusiboak, ikasle guztiak sexu berekoak direlako, hain zuzen, eta ez bestelako planteamenduengatik, izan ere, irakaskuntza publiko osoa mistoa baita. Hori dela-eta, ez da kontutan hartuko ondorengo azterketetan.

4.2. TAULA Ikastetxe eskusiboak ikastetxe eskusiboetako aurrekolako ikasleak sexua- ren arabera irakaskuntza pribatuan

	IKASTETXE ESKLUS.		IKASLEAK	
	Abs.	%	Abs.	%
Neskak	10	90,1	916	93,6
Mutilak	1	9,9	63	6,4
GUZTIRA	11	100	979	100

Iturria: EUSTAT, 1988-89. (Argitaratu gabe.)

Neskak dira gehien bat, %93,6, aurrekolako hezkuntza-mota honetako ikasleak.

4.3. TAULA Irakaskuntza pribatuko aurrekolako ikasleak irakaskuntza-motaren eta se- xuaren arabera

	NESKAK		MUTILAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Hezkuntza eskusiboa	916	9,5	63	0,7	979	5,3
Hezkuntza mistoa	8.737	90,5	8.764	99,3	17.501	94,7
GUZTIRA	9.653	100	8.827	100	18.480	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1989-1990".

E.A.E.ko irakaskuntza pribatuko aurrekolan ari diren ikasle guztien %5,3k irakaskuntza eskusiboa jasotzen du. Nesken kasuan %9,5ek, mutilen portzentaia askoz ere txikiagoa delarik, %0,7.

OHO-KO IKASTETXE ESKLUSIBOAK

4.2

OHOko ikastetxe eskusibotzat irakaskuntza ez-mistoko kurtsoren bat daukatenak jo dira. Denak ez dira berdinak, aitzitik; batzutan azken mailetako aleren bat baino ez da eskusiboa, misto bihurtu baitira; beste batzutan, aldiz, hasierako zikloak mistoak izanik ere, badauzkate, oraindik eskusiboak diren ziklo osoak. Nolanahi ere, erabat eskusiboak diren eta aldatzeko asmorik ez duten ikastetxeak ere badira.

Garrantzikoena irakaskuntza-mota honetan dabilen ikasleagoa denez gero, azterketa ikasleak oinarritzat harturik egingo da.

4.4. TAULA Irakaskuntza pribatuko OHOk ikasleak sexuaren arabera ikastetxe eskusiboetan

	IKASTETXE ESKLUS.		IKASLE GUZTIEN %
	Abs.	%	
Neskak	16.989	50,3	33
Mutilak	16.793	49,7	33,7
GUZTIRA	33.782	100	33,3

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1988-1989". (Argitaratu gabea.)

OHO irakaskuntza pribatuan egiten duten ikasleen heren batek ez du irakaskuntza mistoa jasotzen. Aurrezkolan gehienak neskak badira ere, OHOn, aldiz, ez da nesken eta mutilen arteko ezberdintasunik kopuruaren aldetik, alabaina, ikasle-kopurua askoz ere nabarmenagoa da, %33,3.

LH-KO IKASTETXE ESKLUSIBOAK

4.3

LHri dagokionez, 36 ikastetxetan sexu bakarrari irakasten zaio, berauetako %75etan emakumei baino ez eta %25etan gizonei baino ez.

4.5. TAULA LHko ikastetxe eskusiboak eta ikasleak irakaskuntza pribatuan herrialde historikoa eta sexuaren arabera

	IKASTETXEAK	IKASLEAK	IKASLE GUZTIEN % (*)
ARABA			
Neskak	2	223	10,6
Mutilak	—	—	—
BIZKAIA			
Neskak	11	2.300	29
Mutilak	4	978	14,3
GIPUZKOA			
Neskak	13	1.917	44,9
Mutilak	1	346	6,6
E.A.E.			
Neskak	26	4.490	3,1
Mutilak	5	1.324	8,6

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika 1988-1989". Argitaratu gabea.

(*) Zifra hauek LH ikastetxe eskusiboetan ikasten ari direnen portzentaia erakusten du irakaskuntza pribatuan LH ikasten ari diren guztien arabera.

LH irakaskuntza pribatuan ikasten ari diren emakumeen %31k ikasgela eskusiboetan dihardu. Portzentaia hau are handiagoa da Gipuzkoan, hemen ikaslegoaren ia erdira iristen baita, %44,9. Mutilen portzentaia askozaz ere txikiagoa da, %8,6.

Ikastetxe-mota honetan LH ikasten ari direnetako %77,2 emakumeak dira, LHko irakaskuntza eskusiboa, beraz, emakumeek gehien bat jasan behar dutela esan daiteke.

BBB-KO IKASTETXE ESKLUSIBOAK

4.4

BBB mailan, irakaskuntza eskusiboa eskaintzen duten 33 ikastetxe daude, berauetako 28 nekentzako ikastetxeak direlarik. Gehienak Bizkaian daude.

E.A.E.an BBB ikasten ari diren guztien %2,6k horrelako ikastetxeetan ikasten dute. Berorietako %95,5 emakumeak dira.

Aurreko datuak ikusirik, hainbat gogoeta egin daitezke.

- Zer nolako printzipio pedagogiko edota soziologikoak hartzen dira oinarritzat hezkuntza eskusiboari eusteko?
- Zer nolako arrazoiak daude eskola mistoaren aurka egon eta ikastetxe eskusiboari eusteko?
- Zer nolako abantailak eta akatsak ditu hezkuntza-mota honek?
- Zergatik eskaintzen da oraindik?
- Zergatik aukeratzen dute hainbat gurasok euren seme-alabentzat?

Erantzuna, hezkuntza-mota hau eskaintzen duten ikastetxeek eta hura aukeratzen duten gurasoek eman behar dute, noski.

5

ONDORIOAK

Azterlan honetan azaldutako daturik garrantzitsuenak, handi-handika, honako hauek dira:

- Emakumeen erdiek baino gehiagok, %54,2 hain zuzen, Lehen Ikasketei dagokien eskolatzemaila daukate, portzentaia horri inolako ikasketarik ez daukaten %14,1 eta analfabetoak diren %1,7 ganeratzuz gero, E.A.E.ko emakumeen %70ek ez daukala ikasketa espezializaturik egiaztatzen da.
- Gainontzeko %30ari dagokionez, berorietako %4,5ek baino ez dauzka goi-mailako ikasketak. Hortaz, E.A.E.ko emakumeek eskolatzemaila eskasa daukatela esan daiteke.
- Emakumeen eskolatzemaila, oro har, gizonena baino beheragokoa dela baieztan da. Bigarren mailako ikasketetan eta erdi/goi-mailakoetan baino ez daude emakume gehiago, gizonak baino %4,8 gehiago hain zuzen.
- Guztira 21.730 analfabeto badaude, hauetako %72,8 emakumeak dira eta %27,2 gizonak. Gauzak horrela, 4 analfabetotako hiru emakumeak direla esan daiteke.
- Analfabeto hauek adintsuenen artean aurki ditzakegu, batez ere, adina jaitsi ahala gutxitu egiten delarik berorien kopurua. Tasak 40 urtez gora hasten dira gehitzen.
- Emakume guztien %52k Lehen mailako Ikasketak egin dituzte, hauei ikasketarik ez daukatela baina ez direla analfabetoak adierazi dutelarik maila honetakotzat jo daitezkeenak ganeratzuz gero, %68,3ra iristen dira.
- %39,6k Lanbide Heziketako ikasketak dauzka. Berorietako %81,3 34 urtez beherakoak dira, hau da, emakumeek azken urteotan, batez ere, ekin diote ikasketa-mota honi.
- E.A.E.ko biztanle guztien %10,2k egin dituzte Bigarren mailako Ikasketak. Berorietako %51,1 emakumeak dira.
- Erdi/Goi-mailako ikasketak egin dituztenak, berriz, biztanleriaren %4,4 dira, hauen artean emakume gehiago dago, %55,3 hain zuzen.
- Goi-mailako Ikasketak egin dituen biztanleriari dagokionez, guztira %6,5 dira; berauetako %39 emakumeak eta %61 gizonak. emakumeen portzentaia nabarmen urriagoa delarik.
- Hala Lanbide Heziketa, nola Erdi/Goi-mailako zein Goi-mailako Ikasketak egin dituzten emakumeen titulazioak, berriz, tradizioz emakumeen titulutzat jo izan direnei dagozkie, zerbitzu sektoreko lan ihardueretan aritzeko balio duten titulazioak, alegia.
- Ikasketarekiko lokarriari dagokionez, hau da, prestakuntzari eusten zaion ala ez egiaztatzerakoan; eskolatzemailaren arabera sailkatutako taldeak aztertuz gero, ikasten jarraitzen dutenak gutxi direla ikus daiteke, Bigarren mailako Ikasketak egin dituztenen kasuan izan ezik, hauen artean emakumeen %40,7k ikasteari eusten diolarik.
- Aurreko talde guztietan antzematen den datu garrantzitsu bat zera da, emakumeen heziketa-maila gorantz doan neurrian, etxeko lanetan baino ez diharduten emakumeen portzentaia urritu egiten dela.
- E.A.E.an, irakaskuntza publikoan, 3, 4 eta 5 urte dutenentzako ikaspostu-eskari osoari erantzun zaio, eta 2 urte dutenentzako ikaspostuen eskaintzari ekin zaio, dagoeneko.
- Ez da sexuaren araberako eskolatzeezberdintasunik somatzen, eta ezberdintasunik izatekotan, umeen artean neskato gehiago izateari zor zaio. Aurreskolako eskolatzea ez da sexu-

arazoa eta izan litezkeen ezberdintasunak gizartearen beraren bestelako inguruabarrei zor zaizkie.

- OHO derrigorrezko eskolatze-aldia da eta, beraz, 6 eta 13 urte bitarteko eskola-biztanleria guztia, bazterreko talderen bat izan ezik, eskolatuta dago; hortaz, ez dago zenbatezko azterketa egiterik, zeren litezkeen ezberdintasunak faktore demografikoek eta ez beste ezerk sortaraziak baitira. OHOk eskola-biztanleriaren %48 neskak dira eta %52 mutilak.
 - OHOk ikasturteren bat errepikatzen duten ikasleen artean, %40,2 neskak dira eta %59,8 mutilak. OHOk ikasturteren bat errepikatzen dutenen portzentaiari dagokionez, beraz, neskena hobe da.
 - Neskek mutilek baino eskola-errendimendu hobe erakusten dute OHOk ziklo guztietan.
 - Eskola-Graduatua erdiesten duten nesken portzentaia, %51,7, mutilena baino hobe da, %48,3.
- OHO burututakoan Eskola-Ziurtagiria jasotzen duten ikasleen %60,4 mutilak dira.
- IEetan hasten diren neska guztietarik, %44,5ek BBBri ekiten diote, %31,2k LHri eta %24,3k IEEri.
 - Mutilen artean, berriz, %31,9k BBBra jotzen dute, %36,9k LHra eta %31,2k IEEra.
 - Ezberdintasunik nabarmenenak LH eta BBB hautabidetan agertzen dira. Neska gehienek BBBra jotzen duten bitartean, mutilek LHri ekiten diote. Dena den, kontutan izan behar da BBBra sarbidea Eskola Graduatua lortzeko zabaltzen duela eta titulu hori erdiesten dutenen artean neskak gehiago direla.
 - LH I eta Egokitzapen-Kurtsoa egiten ari direnak gizonezkoak dira gehien bat. Egokitzapen-Kurtsoko ikasleen artean, %18,8 neskak dira eta %81,2 mutilak. LH I delakoan, berriz, %45,2 neskak dira eta %54,8 mutilak. LH IIan, azkenik, matrikulatutako guztien %39 neskak dira eta %61 mutilak.
 - LH I egiten duten nesken artean, %51 Administrazio eta Merkataritza espezialitatean ari dira, %20,5 Ileapainketa eta Estetikan, %12,7 Osasun arloan, %4,5 Etxeko Eginkizunetan, eta gai-nontzeko %11,3 bestelako adarretan ari dira sakabanaturik. Aipatutako espezialitate guzti hauetan, gainera, emakume-kopurua gizonena baino nabarmen handiagoa da.
 - Neskek aukeratutako espezialitateak emakumeen lanbidetzat jo ohi izan direnei dagozkie, denak zerbitzu sektoreari lotuak. Tradizionalki gizonezkoen lanbideak izan direnei lotutako espezialitateak, aldiz, oso neska gutxi aukeratzen dituzte.
 - LH IIan, nesken portzentaiak behera egiten du, %39ra iristen da, lehen graduko %45,2tik behera.
 - Espezialitatea aukeratzerakoan, 2. mailan ere lehen mailan antzemandako joera, hau da, hautabide jakin batzutura jotzekoa, ageri eta nabarmendu ere egiten da.
 - IEEren lehen zikloan ikasten duten nesken portzentaia, %41,4, mutilena baino txikiagoa da, %58,6.
 - 2. graduan nolabaiteko aldaketa somatzen da. Neskak, %51,6, mutilak baino gehiago dira, %48,4. Neskek IEEen lortutako errendimendu akademikoa ere mutilena baino hobexegoa da.

- IEetan, berriz, neskek mutilek baino gehiago jotzen dute batxilergora, %44,4 eta %31,9 hurrenez hurren.
- Aurreskolan eta OHOn emakumezkoen presentzia haien portzentaiazko pisuari lotzen bazi-tzaion ere, BBBn handiagoa da. Neskek errendimendu akademiko hobea izanik, IEra erraza-go heltzen dira.
- Nesken gehiengoak ageri da BBB eta UBiko kurtso guztietan, ikasle guztien %55,1 neskak direlarik.
- BBBn, kurtsoz kurtso egiazta daiteke nesken aprobatu-portzentaiaren eta mutilenaren arteko diferentzia ez datorrela bat kurtso bakoitzean sexu bakoitzari dagokion portzentaiarekin. Nes-ken aprobatu-portzentaia mutilenak baino askoz handiagoak dira.
- HHI delakoari dagokionez, lehen zikloan, alfabetatzea, eta bigarreanean, berrirakurketa, lau ikasleetarik hiru emakumeak dira, alfabetatzeko gogo handia dutela erakusten dutelarik.
- HHri dagokion beste datu aipagarri bat zera da, lehen zikloan ikasten duten emakumeen %26,6k 30 urte baino gehiago dituztela eta %51,6k 40 baino gehiago. Argi dago, beraz, analfabetoak diren emakume helduek alfabetatzeko gogo handia dutela.
- Emakumeen errendimendu hobea HHiko ikasleen artean ere egiazta daiteke.
- Unibertsitateko ikasketetan, bestalde, emakumeen partehartzea eta gizonena berdintsua da.
- Hala ere, emakumeek tradizioz emakumeenak izan diren eta lan arloan aurrerabide eskasa-goia eta, beraz, soldata urriagoa izaten duten ikasketak, batipat, aukeratzen dituzte oraindik ere.
- Osabidezko Hezkuntzan eta Lanbide-Hastapenetarako egitarauetan, berriz, emakume gutxi aurki ditzakegu.
- INEM delakoak eskainitako trebakuntzan, bestalde, emakume bakoitzeko bi gizon dira.
- Hezkuntza sistemako irakaslegoari dagokionez, oro har, emakume gehiago dago, %62,4; are gehiago Aurreskolan, %93,1, edo OHOn %73,3, baita BBB-UBIn ere, %57,2; LHn eta Uni-bertsitatean, ordea, emakume gutxiago dago irakasleen artean, %36,5 eta %28,4 hurrenez hurren.
- Langile ez-irakasle gehienak emakumeak dira, %75,9.
- Estatuko gainontzeko aldeekiko eta nazioarteko herrialdeekiko erkapena interpretatzerakoan, zuhurki jokatu beharra dago herrialdeon arteko ezberdintasunak kontutan izanik.
- Gure hezkuntza sisteman eskolatutako emakumeen proportzioa, oro har, Europakoa baino txikixeagoa da, hirugarren graduan izan ezik, horretan handiagoa baita.
- OHOn, emakumezkoen eskolatzea %48,2ra iristen da, Jugoslavia eta Italian bezalaxe eta gainontzekoetan baino gutxixeago.
- Herrialde guztietan ere, Irakaskuntza Orokorrean, BBBn eta UBIn alegia, Lanbide-Teknikoa delakoan baino emakume gehiago dauden arren, horrelako irakaskuntzetan ikasten duten nesken proportzioak, oro har, E.A.E.an agertzen direnak baino handiagoak dira oraindik.
- E.A.E.an, Unibertsitateko ikasleetarik %49,8 emakumeak dira, OCDEko herrialde gehienek al-dean portzentaia nabarmena delarik, are nabarmenagoa 2. zikloari dagokionean.

- Herrialde guztietan, Unibertsitatean ikasten duten emakumeen portzentaia eta gizonena berdinduz doaz, alabaina, karrera ezberdinak ikasteko joerak bere hartan dirauela egiaztatzen da: Letrak, Arteak eta Hizkuntzak emakumeen karrerak dira, Zientzia Aplikatuei dagozkien karreretan, aldiz, gizon gehiago izaten da. Gizonenak izan ohi diren zenbait karreretan, ordea, Medikuntzan esate baterako, gero eta emakume gehiago sartu da, zenbait herrialdetan gizonak baino gehiago izateraino.
- OCDEko herrialdeetan, Aurrekolako irakasle gehienak emakumeak dira.
- Lehen Graduako irakasleen artean emakumeen proportzioa txikixeagoa da, hala ere, aztertutako 18 herrialdetako 9tan %70era iristen da. Ikus daitekeenez, E.A.E. azken hauen mailan dago.
- Bigarren Zikloan, berriz, irakasten ari diren emakume-kopurua dexente gutxitzen da aztertutako herrialde gehienetan.
- Bigarren Ziklo Orokorrari dagokionez, E.A.E.ko zenbatekoak gainontzeko herrialdeetakoak baino handiagoak dira, Teknika-Lanbidezko Irakaskuntzaren kasuan erdi-beheko maila batean daudelarik.
- Eskola mistoa hezkidetzara heltzeko ezinbesteko urratsa dela uste da, hortaz, hura ere lortzeko dagoela azpimarratu beharra dago: unitate guztiak edo baten bat, gutxienik, mistoa ez deneko 338 ikastetxe eskusibo daude E.A.E.an.
- E.A.E.ko irakaskuntza pribatuan, aurrekolako ikasleen %5,3ri irakaskuntza eskusiboa ematen zaio. Nesken kasuan, %9,5i, mutilen portzentaia askoz ere txikiagoa delarik, %0,7.
- Aurrekolako ikastetxe eskusiboetan ez bezala, berauetan ari diren ikasle gehienak neskak baitira, OHOn ez dago neska eta mutilen arteko kopuru-ezberdintasun nabarmenik, nahiz eta ikasle askoz ere gehiago izan, %33.
- LH ikastetxe pribatuetan egiten ari diren emakumeen %31k ikasgela eskusiboetan dihardute. Proportzio hau are nabarmenagoa da Gipuzkoan, bertan %44,9k ikasten baitu horrela.
- BBBko ikasleen %2,6k irakaskuntza eskusiboa jasotzen dute E.A.E.an. Berorietako %95,5 emakumeak dira.

E

ERASKINAK

TAULAK

A.1

A.1. TAULA. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria analfabetoa eta analfabetismo-tasa, sexuaren arabera E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Abs.	%	Abs.	%
10-14	105	0,1	95	0,1
15-19	164	0,2	165	0,2
20-24	206	0,2	186	0,2
25-29	224	0,3	198	0,2
30-34	213	0,3	173	0,2
35-39	320	0,4	176	0,2
40-44	638	1	272	0,4
45-49	1.134	1,9	480	0,8
50-54	1.715	2,6	749	1,1
55-59	1.615	2,6	809	1,3
60-64	1.513	2,9	688	1,4
65-69	1.419	3,5	484	1,5
70-75	1.843	5,2	445	1,8
75etik gora	4.629	8,1	991	3,4

Iturria: EUSTAT: 1986.eko Errolda.

A.2. TAULA. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria, titulazioaren, etxeko lanekiko loturaren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	ETXEKO LANAK		ETXEKO LANIK EZ		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
EMAKUMEAK	11.356	49,9	4.436	50,1	15.792	100
Analfabetoak						
Aurreskola eta lehenak	408.222	57,9	296.842	42,1	705.064	100
Lanbide heziketa	17.019	24,3	53.105	75,7	70.124	100
Bigarren mailakoak	27.472	27,5	72.339	72,5	99.811	100
Erdi/Goi-Mailakoak	5.012	14,3	30.095	85,7	35.107	100
Goi-Mailakoak	2.154	11,4	16.660	88,6	18.814	100
GUZTIRA	471.235	49,9	473.477	50,1	944.846	100
GIZONAK	44	0,7	5.867	99,3	5.911	100
Analfabetoak						
Aurreskola eta lehenak	1.303	0,2	622.879	99,8	624.002	100
Lanbide heziketa	105	0,1	108.009	99,9	108.114	100
Bigarren mailakoak	126	0,1	102.530	99,9	102.656	100
Erdi/goi-Mailakoak	35	0,1	26.666	99,9	26.701	100
Goi-Mailakoak	52	0,1	41.446	99,9	41.498	100
GUZTIRA	1.665	0,2	907.397	99,8	909.062	100

Iturria: EUSTAT: 1986.eko Errolda. (Argitaratu gabe).

A.3. TAULA. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria ikasle ez dena, burututako erdi/goi-mailako ikasketen eta sexuaren arabera E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Arkitektura Teknikoa	112	6,4	1.646	93,6	1.758	100
Industri Ingeniaritza Teknikoa	571	5,1	10.686	94,9	11.257	100
Nekazaritza eta Baso-Ingeniaritza Teknikoa	67	15,3	370	84,7	437	100
Meatzte-Ingeniaritza Teknikoa	39	3,2	1.172	96,8	1.211	100
Aeronautika Ingeniaritza Teknikoa	3	3,7	79	96,3	82	100
Itsasuntzigintza Ingeniaritza Teknikoa	6	7,9	70	92,1	76	100
Telekomunikabideetako Ingeniaritza Teknikoa	12	8,8	124	91,2	136	100
Herrilarietako Ingeniaritza Teknikoa	7	6,3	104	93,7	111	100
Topografia Ingeniaritza Teknikoa	18	10,3	157	89,7	175	100
Enpresa (erdi-mailakoak)	304	38,1	494	61,9	798	100
OHOk irakasleak	21.166	74,8	7.139	25,2	28.305	100
Erizaintza eta OLT	9.309	85,2	1.611	14,8	10.920	100
Merkataritzako irakasleak	476	19,4	1.976	80,6	2.452	100
Gizarte Graduatua	1.476	68,3	684	31,7	2.160	100
Turismo, Publizitatea eta Marketing	1.465	62,2	892	37,8	2.357	100
Paramedikuntza Ikasketak	193	46,1	226	53,9	419	100
Nautika (lehen zikloa)	29	2,6	1.078	97,4	1.107	100
Aire-Pilotuak eta Kontrolatzaileak	22	34,4	42	65,6	64	100
Estatistika Diploma	2	28,6	5	71,4	7	100
Informatika Diploma	17	23,3	56	76,7	73	100
Soziologia Diploma	3	60	2	40	5	100
Bibliotekonomia Diploma eta Bestelakoak	21	67,7	10	32,3	31	100
Eliz Ikasketak (Filosofia)	41	8,4	448	91,6	489	100
Gorputza-Hezkuntzako irakasleak	167	58,6	118	41,4	285	100
Erdi/goi-Mailako beste ikasketak batzuk	311	63,6	178	36,4	489	100

Iturria: EUSTAT: 1986.eko Errolda.

A.4. TAULA. 10 urte edo gehiago dituen biztanleria ikasle ez dena, burututako goi-mai-lako ikasketen eta sexuaren arabera E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Arkitektura	149	14,6	872	85,4	1.021	100
Industri Ingeniaritza	293	4,3	6.443	95,7	6.736	100
Nekazaritza eta Mendi Ingeniaritza	24	11,7	182	88,3	206	100
Meatze-Ingeniaritza	8	3,6	215	96,4	223	100
Aeronautika Ingeniaritza	—	—	49	100	49	100
Itsasuntzigintza Ingeniaritza	4	3,2	120	96,8	124	100
Telekomunikabide Ingeniaritza	1	0,9	112	99,1	113	100
Bide, Kanal eta Portuetako Ingeniaritza	5	1,7	287	98,3	292	100
Informatika	645	29,1	1.569	70,9	2.214	100
Biologia	744	45,0	908	55,0	1.652	100
Fisika	376	36,2	662	63,8	1.038	100
Kimika	1.089	37,8	1.791	62,2	2.880	100
Geologia	136	42,4	185	57,6	321	100
Matematikak	292	43,0	387	57,0	679	100
Filosofia	1.849	51,8	1.719	48,2	3.568	100
Filologia	1.582	62,2	962	37,8	2.544	100
Psikologia	1.745	62,6	1.042	37,4	2.787	100
Pedagogia	791	61,2	501	38,8	1.292	100
Geografia	262	60,9	168	39,1	430	100
Historia	976	57,4	723	42,6	1.699	100
Ekonomia	1.226	22,5	4.217	77,5	5.443	100
Enpresa (goi-Mailakoak)	1.291	23,1	4.300	76,9	5.591	100
Merkataritza	15	10,1	133	89,9	148	100
Politika	76	48,7	80	51,3	156	100
Soziologia	362	47,8	396	52,2	758	100
Informazio Zientziak	708	37,8	1.166	62,2	1.874	100
Zinematografia	4	25,0	12	75,0	16	100
Zuzenbidea	2.025	25,0	6.081	75,0	8.106	100
Farmazia	892	64,3	496	35,7	1.388	100
Medikuntza	2.720	32,1	5.757	67,9	8.477	100
Albaitaritza	87	17,7	405	82,3	492	100
Arte Ederrak	410	49,6	417	50,4	827	100
Musika Kontserbatorioa	1.416	79,0	376	21,0	1.792	100
Goi-Mailako Militar Ikasketak	6	2,3	253	97,7	259	100
Eliz Ikasketak (Teologia)	79	4,1	1.848	95,9	1.927	100
Nautika (2. zikloa)	98	2,6	3.643	97,4	3.741	100
Diplomazia ikasketak	2	22,2	7	77,8	9	100
Graduatu-ondoko beste ikasketa batzuk	39	21,1	147	79,0	186	100

Iturria: EUSTAT: 1986.eko Errolda.

A.5. TAULA. Arautu gabeko heziketako ikasketak egiten ari den biztanleria sexuaren arabera E.A.E.an

	EMAKUMEAK			GIZONAK			GUZTIRA		
	Abs.	% Ber.	% Hor.	Abs.	% Ber.	% Hor.	Abs.	% Ber.	% Hor.
Nekazaritza-arrantza	135	0,6	53,6	117	0,7	46,4	252	0,7	100
Elektronika	7	0,03	1	711	4,3	99	718	1,9	100
Ehungintza	1.856	8,7	96,8	61	0,4	3,2	1.917	5	100
Eraikuntza	32	0,1	5,5	546	3,2	94,5	578	1,5	100
Zura	5	0,02	3,6	132	0,8	96,3	137	0,4	100
Etxekoa	112	0,5	87,5	16	0,1	12,5	128	0,3	100
Administrazioa	1.085	5,1	73,5	391	2,3	26,5	1.476	3,9	100
Ostalaritza	134	0,6	49,3	138	0,8	50,7	272	0,7	100
Osasuna	855	0,7	71,9	334	0,3	28,1	1.189	3,1	100
Zeramika	143	0,7	71,9	56	0,3	28,1	199	0,5	100
Grafikagintza	59	0,3	59,6	40	0,2	40,4	99	0,3	100
Delineazioa	31	0,1	15,7	167	1	84,3	198	0,5	100
Irudi-Soinua	77	0,4	30,9	172	1	69,1	249	0,6	100
Ileapainketa	878	4,1	93,6	60	0,4	6,4	938	2,5	100
Enpresa. Zuz.	61	0,3	20,7	233	1,4	79,3	294	0,8	100
Merkataritza	275	1,3	39,9	419	2,5	60,4	694	1,8	100
Oinarrizko infor.	1.161	5,4	37,9	1.096	11,3	62,1	3.067	8,1	100
Informatikazko Prog.	674	3,1	33,9	1.319	7,8	66,2	2.257	5,2	100
Infor. Aplikatua	72	0,3	27,6	189	1,1	72,4	261	0,7	100
Euskara	4.567	21,3	63,4	2.632	15,6	36,6	7.199	19	100
Beste hizkuntza batzuk	3.995	18,6	59,4	2.727	16,2	40,6	6.722	17,7	100
Hezkuntza	405	1,9	85,1	71	0,4	14,9	476	1,2	100
Gizarte-Kult. Zerbitzuak	233	1,1	69,6	102	0,6	30,4	335	0,9	100
Arte Ofizioak	736	3,4	66,7	367	2,2	33,3	1.103	2,9	100
Kontsumoa	144	0,7	62,6	86	0,5	37,4	230	0,6	100
Bestelakoak	3.608	16,9	60,5	2.352	14	39,5	5.960	15,7	100
Meatzaritza	—	—	—	16	0,1	100	16	0,04	100
Metala	7	0,03	1,6	424	2,5	98,4	431	1,1	100
Elektrizitatea	7	0,03	1,9	365	2,2	98,1	372	1	100
Automozioa	—	—	—	252	1,5	100	252	0,7	100
Bitartekaritza	33	0,2	24,3	103	0,6	75,7	136	0,3	100
E.E.E.	—	—	—	32	0,2	100	32	0,08	100
Kimika	21	0,1	100	—	—	—	21	0,05	100
Larrua	16	0,1	100	—	—	—	16	0,04	100
GUZTIRA	21.424	57,7	100	15.720	42,3	100	37.150	100	100

Iturria: Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Eusko Jaurlaritza: "E.A.E.ko familiei egindako inkesta".

A.6. TAULA. Emakumeen eskolatze-tasak E.A.E.an, adinaren eta ikasketa-mailen arabera

	GUZTIRA	AURRESK.	OHO	HB	BBB-UBI	LH	IEE	MP	FAKULTAT ETA G.E.T.	UUEE	BESTELA- KOAK
2	5,3	5,2	—	0,1	—	—	—	—	—	—	—
3	89,7	89,7	—	0,1	—	—	—	—	—	—	—
4	102,4	102,3	—	0,1	—	—	—	—	—	—	—
5	105,6	105,3	—	0,2	—	—	—	—	—	—	—
6	101,6	—	101,3	0,3	—	—	—	—	—	—	—
7	101,2	—	101,1	0,2	—	—	—	—	—	—	—
8	102,2	—	102	0,2	—	—	—	—	—	—	—
9	100	—	99,8	0,2	—	—	—	—	—	—	—
10	99,6	—	99,4	0,2	—	—	—	—	—	—	—
11	101	—	100,7	0,3	—	—	—	—	—	—	—
12	101,7	—	101,5	0,2	—	—	—	—	—	—	—
13	100	—	99,6	0,4	—	—	—	—	—	—	—
14	96,4	—	21,9	0,4	55,4	5,1	13,5	—	—	—	—
15	96,8	—	6,5	0,5	58,8	11,9	16,5	—	—	—	—
16	86,4	—	—	0,5	58,1	16,5	11	—	—	—	—
17	74,6	—	—	0,5	52,5	17,4	6,4	—	0,1	—	—
18	63,6	—	—	0,3	18,4	18,6	1,9	0,5	19	4,2	1
19	58,9	—	—	0,3	8,2	16,2	0,5	0,3	23,2	9	1,6
20	72,1	—	—	0,2	3,5	12,4	0,1	0,3	21	7	1,5
21	26,2	—	—	0,4	2	7,7	—	—	19,7	5,3	0,9
22	23,4	—	—	—	1,2	4,8	—	—	19,4	3,6	0,5
23	14,8	—	—	—	0,7	3	—	—	12,2	2,3	0,3
24	8,5	—	—	—	0,4	1,8	—	—	6,9	1,5	0,1
GUZTIRA	24,7	2,7	11,7	0,1	4,3	1,9	0,8	0,0	2,5	0,6	0,1

Iturria: 1986.eko Errolda.

A.7. TAULA. Aurrekolako ikaslegoaren banaketa adinaren, irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	NESKATOAK	MUTILAKOAK	GUZTIRA
	Abs.	Abs.	Abs.
2 ute	467	514	981
3 urte	8.406	9.210	17.616
4 urte	10.170	10.786	20.956
5 urte	10.670	11.482	22.152
GUZTIRA	29.713	31.992	61.705

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990".

A.8. TAULA. OHOkO ikaslegoa kurtsoaren, adinaren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
1.a	11.438	12.305	23.743
2.a	12.552	13.596	26.148
3.a	13.368	14.100	27.468
4.a	13.932	14.964	28.896
5.a	15.909	17.203	33.112
6.a	17.066	18.775	35.841
7.a	17.790	19.720	37.510
8.a	18.721	19.898	38.619
GUZTIRA	120.776	130.561	251.337

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990"

A.9. TAULA. OHOkO biztanleria zikloen, irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	NESKAK	MUTILAK	GUZTIRA
	Abs.	Abs.	Abs.
Hasiera-zikloa	23.990	25.901	49.891
Erdiko zikloa	43.209	46.267	89.476
Goiko zikloa	53.577	58.393	111.970
GUZTIRA	120.776	130.561	251.337

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990".

A.10. TAULA. Errepikatzen duten ikasleak eta errepikatzaileen portzentaia, irakaskuntza-motaren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	Abs.	%
IKASTETXE GUZTIAK		
Emakumeak	4.650	4
Gizonak	6.915	5
GUZTIRA	11.565	5

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990".

A.11. TAULA LH I-eko ikaslegoa adarraren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	EMAKUMEAK			GIZONAK			GUZTIRA		
	Abs.	% Ber	% Hor.	Abs.	% Ber	% Hor.	Abs.	% Ber.	% Hor.
Administrazioa eta Merkatar.	4.412	51	77,2	1.303	12,4	22,8	5.715	29,9	100
Nekazaritza	12	0,1	6,7	167	1,6	93,3	179	0,9	100
Grafikagintza	41	0,5	40,2	61	0,6	59,8	102	0,5	100
Automozioa	9	0,1	1,7	508	4,8	98,3	517	2,7	100
Delinazioa	170	2	22,5	585	5,6	77,5	755	4	100
Elektrizitatea	52	0,6	1,9	2.753	26,2	98,1	2.805	14,7	100
Etxekoa	385	4,5	99,7	1	—	0,3	386	2	100
Ostalaritza eta Turismoa	37	0,4	24,7	113	1,1	75,3	150	0,8	100
Irudia eta Soinua	26	0,3	44,1	33	0,3	55,9	59	0,3	100
Zura	6	—	1,8	323	3,1	98,2	329	1,7	100
Itsasketa-Arrantza	—	—	—	60	0,6	110	60	0,3	100
Metala	45	0,5	1,9	2.279	21,7	98,1	2.324	12,2	100
Moda eta Jantzigintza	78	0,9	98,7	1	—	1,3	79	0,4	100
Ileapainketa eta estetika	1.774	20,5	94,5	104	1	5,5	1.878	9,8	100
Kimika	65	0,8	20,9	246	2,3	79,1	311	1,6	100
Osasuna	1.093	12,7	96,5	40	0,4	3,5	1.133	5,9	100
Bestelakoak	440	5,1	18,6	1.920	18,3	81,4	2.360	12,3	100
GUZTIRA	8.645	100	45,2	10.497	100	54,8	19.142	100	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990".

A.12. TAULA. LH II-eko ikaslegoa adarraren eta sexuaren arabera E.A.E.an

	EMAKUMEAK			GIZONAK			GUZTIRA		
	Abs.	% Ber.	% Hor.	Abs.	% Ber.	% Hor.	Abs.	% Ber.	% Hor.
Administrazioa eta Merkatar.	7.971	67,9	72	3.106	17	28	11.077	36,9	100
Nekazaritza	38	0,3	14,8	218	1,2	85,2	256	0,9	100
Grafikagintza	74	0,6	40,2	110	0,6	59,8	184	0,6	100
Automozioa	17	0,1	1,6	1.050	5,7	98,4	1.067	3,6	100
Delineazioa	305	2,6	19,5	1.263	6,9	80,5	1.568	5,2	100
Elektrizitatea	136	1,2	2	6.454	35,2	98	6.590	21,9	100
Etxekoa	661	5,6	98,2	12	—	1,8	673	2,2	100
Ostalaritza eta Turismoa	216	1,9	33,3	433	2,4	66,7	649	2,2	100
Irudia eta Soinua	232	2	35,8	416	2,3	64,2	648	2,1	100
Zura	2	—	0,8	247	1,3	99,2	249	0,8	100
Itsasketa-Arrantza	—	—	—	38	0,2	100	38	0,1	100
Metala	81	0,7	1,8	4.413	24,1	98,2	4.494	15	100
Moda eta Jantzigintza	82	0,7	100	—	—	—	82	0,3	100
Ileapainketa eta Estetika	582	5	94,6	33	0,2	5,4	615	2	100
Kimika	207	1,8	32,5	430	2,4	67,5	637	2,1	100
Osasuna	1.129	9,6	92	98	0,5	8	1.227	4,1	100
GUZTIRA	11.733	100	39	18.321	100	61	30.054	100	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990".

A.13. TAULA. Ikasten ari diren emakumeak irakaskuntza-motaren arabera E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GUZTIRA
	Abs.	%	Abs.
G.E.T.			
Arkitektura	203	31,9	637
Ingeniaritza	598	14	4.260
Industrial	493	13	3.798
Telekomunikabideak	105	22,7	462
FAKULTATE UNIBERTSITARIOAK			
Arte Ederrak	915	60,4	1.514
Zientziak	2.353	50,6	4.651
Biologia	975	59,2	1.647
Geologia	117	38,6	303
Fisika	210	25,6	735
Kimika	796	51,5	1.546
Zehatzak	255	60,7	420
Farmazia	284	75,9	374
Informatika	1.381	43,3	3.193
Medikuntza	1.348	58,1	2.321
Odontologia	196	61,8	317
Informazio Zientziak	2.143	55,1	3.889
Psikologia	2.281	74,8	3.050
Filosofia	242	46,3	523
Pedagogia	1.357	80,3	1.690
Filologia	2.643	73,1	3.614
Geografia eta Historia	1.357	57,8	2.347
Teologia	30	16,1	186
Politika eta Soziologia	609	60,8	1.002
Ekonomia	1.564	45,2	3.474
Enpresa	2.488	46,1	5.394
Zuzenbidea	4.746	52,5	9.037
UU.EE.			
Industri Ingeniaritza Teknikoa	593	10,1	5.878
Meatze Ingeniaritza Teknikoa	40	10,8	372
Enpresa	2.370	50,2	4.719
OHOKo Irakaslekoa	1.885	70,4	2.676
Erizaintza	1.086	89	1.220
Gizarte Lana	378	92,6	408
Gizarte Graduatua	436	57,6	757
GUZTIRA	33.477		76.414

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990".

A.14. TAULA. INEM delakoak bere baliabideak erabiliz E.A.E.an 1990.ean trebatutako biztanleria sexuaren eta adinaren arabera

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
20tik behera	454	9,6	959	10,6	1.413	10,3
20-24	1.767	37,4	1.920	21,3	3.687	26,9
25-29	1.153	24,4	1.439	16	2.592	18,9
30-34	587	12,4	1.060	11,8	1.647	12
35-39	415	8,8	1.180	13,1	1.595	11,6
40-44	235	5	1.266	14	1.501	10,9
45-49	82	1,7	791	8,8	873	6,4
50-54	19	0,4	371	4,1	390	2,8
55-59	9	0,2	11	0,1	20	0,1
59tik gora	3	0,1	14	0,2	17	0,1
GUZTIRA	4.724	100	9.011	100	13.735	100

Iturria: Lanbide-Trebakuntzaren Estatistika. INEM 1990.

A.15. TAULA. Programa-mota eta irakaskuntza-mota bakoitzeko irakasleak, sexuaren arabera E.A.E.an

	EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Arkitektura	3	5,5	51	94,5	54	100
Ingeniaritza	45	15	255	85	300	100
Arte Ederrak	32	30,2	74	69,8	106	100
Zientziak	109	33,1	220	66,9	329	100
Farmazia	16	32,7	33	67,3	49	100
Informatika	29	25,9	83	74,1	112	100
Medikuntza eta Odontologia	65	16,4	332	83,6	397	100
Informazio Zientziak	21	16,2	109	83,8	130	100
Filosofia eta Hezkuntza-Zientziak	63	29,9	148	70,1	211	100
Filologia eta Geografia eta Historia	105	42,7	141	57,3	246	100
Teologia	1	1,6	62	98,4	63	100
Politika eta Soziologia	6	26,1	17	73,9	23	100
Ekonomia eta Enpresa	80	26,6	221	73,4	301	100
Zuzenbidea	45	26,9	122	73,1	167	100
Industri Ingeniaritza Teknikoa	43	14,9	246	85,1	289	100
Meatzte Ingeniaritza Teknikoa	4	9,5	38	90,5	42	100
Enpresa Zientziak	34	34	66	66	100	100
OHOk irakasleak	175	54,2	148	45,8	323	100
Erizaintza	75	67	37	33	112	100
Gizarte Lana	18	54,5	15	45,5	33	100
Gizarte Graduatua	4	11,4	31	88,6	35	100
GUZTIRA	973	28,4	2.449	71,6	3.422	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990".

A.16. TAULA. E.N.E.S.ko irakaskuntza-motaka eta irakaskuntza-graduka sailkatutako ikasleak sexuaren arabera

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
IKASTETXE GUZTIAK			
1. Graduaren aurretiko irakask.	29.713	31.992	61.705
1. Graduako irakaskuntza	67.199	72.168	139.367
2. Graduako irakaskuntza	130.096	138.046	268.142
1. Zikloa	53.577	58.393	111.970
2. Zikloa	46.353	37.825	84.178
Bestelakoak	30.166	41.828	71.994
3. Graduako irakaskuntza	34.627	34.935	69.562
1. Zikloa	7.766	9.609	17.375
2. Zikloa	26.861	25.326	52.187
Helduentzako irakaskuntza	5.927	3.438	9.365
Irakaskuntza berezia	855	1.172	2.027
GUZTIRA	887.872	454.732	433.140

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990".

A.17. TAULA. Unibertsitateko ikasleagoa sexuaren eta zikloaren arabera

	LEHEN ZIKLOA		BIGARREN ZIKLOA		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumeak	7.766	44,7	26.861	51,5	34.627	49,8
Gizonak	9.609	55,3	25.326	48,5	34.935	50,2
GUZTIRA	17.375	100	52.187	100	69.562	100

Iturria: EUSTAT: "Irakaskuntzaren Estatistika, 1989-1990". Norberak egina.

BBB	Batxilergo Bateratu Balioanitzza
E.A.E.	Euskal Autonomi Elkarte
UBI	Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea
C.O.D.	Curriculumaren Oinarrizko Diseinua
O.E.	Osabidezko Hezkuntza
HB	Hezkuntza Berezia
UU.EE.	Unibertsitate-Eskolak
OHO	Oinarrizko Hezkuntza Orokorra
HHI	Helduen Hezkuntza Iraunkorra
G.E.T.	Goi-mailako Eskola Teknikoak
LH	Lanbide Heziketa
L.HP.	Lanbide-Hastapenak
H.L.O.	Hezkuntzaren Lege Orokorra (1970)
LOGSE	Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrerako Lege Organikoa
L.M.	Lanbide Moduluak
Aurrezk.	Aurrezkola
IEE	Irakaskuntza Ertainen Erreforma
H.S.	Hezkuntza Sistema

TXOSTENA

EMAKUMEEN

EGOERA

HEZKUNTZA

SISTEMAN

IRITZIAK

ETA JARRERAK

BIGARREN ZATIA

S

SARRERA

Eskolak, gizarteratzeko baliabiderik funtsezkoenetako bat den aldetik, nagusi den balio-sistemak zilegituriko pentsamolde eta jokaerak besterenganatu eta indartu egiten ditu.

Eskola bidezko gizarteratzean zehar besterenganatzen diren balio, arau eta jarrerak azalduz, ikasgeletan bizirik dirauten genero-estereotipoak erakutsiko dira.

Beste alde batetik, hezkuntza sistemaren barne, hezkuntzan dihardutenen artean, hau da, irakasle, ikasle eta gurasoen artean, pertsonen arteko bereizkeriari bide emanez, ezberdintasun eta bidegabekeriak egoerak sortarazten dituzten gizarte-harremanekiko jarrera kritikoa ernarazi ahal eta ernarazi behar dugu.

Hezkuntza sistemak, berez, ez du berdintasuna ekarriko, bere aldetik berdintasunari erabat jarraitu arren, alabaina, kontzientzia kritikoa pizteko tresna garrantzitsua izan daiteke eta, ondorioz, pertsonen jarrerak eta jokamoldeak aldatzeko lagungarria, dudarik gabe.

Nola somatzen da neskato, neska eta emakumeek hezkuntza sisteman bizi duten egoera?

Nolako balorazioa egiten da egoera horretaz?

Zer nolako ondorioztapenak atera daitezke aurreko galderei erantzun ondoren?

Zer nolako jokabideak erator daitezke?

Gogoetak egin eta gerora erabakiak hartu ahal izateko ondorioztapenak ateratzeko baliagarriak gerta daitezen argibideak lortzea da, hain zuzen ere, azterlan honen helburua.

Emakumeak nola ageri zaizkigun gaur egun hezkuntza sisteman aintzakotzat harturik, eztabaida-taldeekin egindako bileretan erabilitako galdeketa prestatzeko balio izan duten hainbat zailantza azaltzen dira.

Emakumeek hezkuntza sisteman bizi duten egoera azaltzean, sexismoaz egin daitekeen edozein gogoetaren oinarrian izan behar duten aztergaiak sartu dira.

Hona hemen emaitza, azterturiko taldeen iritzi eta balorazioak, alegia, iritzi berdintsuak eta bereziak azpimarratu direla.

Errealitatea aztertzean banan-banako eta taldeko gogoetatik abiatu beharra dago, arazoarekiko jarrera bat erakutsi eta gure hezkuntza sisteman oraindik nabari den sexismoa arintzeko hezkuntzazko ekintzak martxan jartzeko ahalbideak jorratu.

Bederatzi eztabaida-taldeak, lurralde bakoitzeko hiru, berdintsuak dira: irakasleek, ikasleek eta, oro har, biztanleek osatuak; hortaz, partaideen iritziak hitzez hitz idazterakoan ez da bakoitzaren lurraldea azaltzen.

1

**HEZKIDETZA ETA
IRAKASKUNTZA
MISTOA**

Heztea pertsonaren ahalmen eta gaitasun guztiak garatzen laguntzean datza.

Hezkidetzeari mezuak sexuaren arabera bereizi gabe heztean datza.

Irakaskuntza mistoa eta hezkidetzaren errealitate oso ezberdinei dagozkien hitzak dira.

Irakaskuntza mistoan ⁶ neskatoak eta mutikoak elkarrekin dira eta, itxuraz behintzat, curriculum berbera dute, jolas-gune edo ikasgela berberak, bai eta eskubide zein erantzunbehar berberak ere. Itxurazko berdintasun hau, ordea, oso ahul ageri zaigu generoaren ikuspegitik begiraturaz gero.

Eskola mistoan, ezin hobe eta unibertsalak omen diren kultura eta balio maskulinoak dira nagusi, beraz, erakunde maskulinoa dela esan daiteke. Sexu biek bereganatu behar dute maskulinitate hau, eta eskolak eredu bakarra balitz bezala ezartzen dituen ezagumendu eta sentiberatasun-mailako arau eta jokabideetara egokitu.

Hezkidetzak ez du bi sexutako gizakien bizikidetasun hutsa ezartzen, balio berdina duten bi kultura-ereduren bizikidetasuna, baizik, eta osagai guztiak bateratzeko joeraz gainera. Alacanteko Feminario delakoaren iritziz, hezkidetzaren neskato eta mutikoen garapena bultzatzen duen aipatzeko jokabidea da, bi sexu ezberdinak direneko errealitateetik abiatuz, gizabanakoaren garapena eta gizartearena baterakoiak eta elkarri egokituak izatera eramana. Horretarako hurrengo baldintzotatik abiatu beharra dago:

- Eredu maskulinoa ezin da unibertsaltzat hartu.
- Sexukerian oinarritutako estereotipoen deuseztatzea planteatu behar da.
- Gaur egungo curriculum-ean nabari diren sexukeriazko ezaugarriak (hierarkizazioa, zatiketa, ezkatzea) alde batera utz ditzan curriculum egoki bat tailatu beharra dago.
- Gizabanakoaren ahalmen guztiak garatu behar dira genero-aldagaia kontutan hartu gabe.

Eskola mistoaren itxurazko berdintasuna desmaskaratu egin behar da hezkidetzaren aurrera eramateko.

HEZKIDETZA ALA IRAKASKUNTZA MISTOA?

1.1

Eztabaida-taldeak osatu dutenetako gehienentzat hezkidetzaren hitzak ez du esanahi argi eta zehatza.

“Familiak umeari hezieran parte hartzea”, “lankidetzaren”, “ikasleen bizikidetasuna” “hezkuntzarako elkarlana” eta antzerakoak adierazten dituzte.

Talde hauetan parte hartu duten maistrentzat ez da horren arrotza hitz hau, “entzuna” dute baina zaila egiten zaie hitz horren azalpen zehatza ematea.

⁶ Ikus argitalpen honen lehenengo zatia.

"Hezkidetza kontzeptua eskola mistoa baino zabalagoa dela uste dut. Lehen ere baziren eskola mistoak baina hezkidetzarik ez. Hezkidetza, nire ustez, ikastetxe berean aritzeaz gainera, eza-gupenak irakasterakoan ezberdintasunik ez izatean datza, neskatoek zein mutikoek zeregin berberak izatean, alegia".

Maistra

"Jarrera; nire ustez helburua ez da gauza bat ala bestea izatea, baizik eta hezkidetza izateko edo irakaskuntza mistoa izateko azpiegitura berbera behar dela, funtsezko faktorea, ordea, maisuek eta maistrek ikasgelan erakusten duten jarreraren datza. Norberaren erreakzio-gaitasuna eta bizipenak, hauek besterenganatu egiten baitira".

Maistra

Maisuek, alderantziz, ez dute bereizketarik antzematen.

"Ez dut irakaskuntza mistoa eta hezkidetzaren arteko ezberdintasunik ikusten bi sexuen hezkuntzari dagokionez".

Maisua

Denok deritzote positiboa irakaskuntza mistoari, bi sexuen arteko hartuemanetan berdintasunari bide ematen diolako eta irakasgai berberak ematen direlako.

"Eskola mistoa baldin bada, hezkuntza berbera jasotzen dute".

Biztanleria

Adinekoek, irakasleek, batez ere, euren garaietako irakaskuntzaren aldean oraingoa hobe dela uste dute, azken 10-15 urteetan aurrerapausu handiak egin direla.

"Azken urteotan bilakaera handia izan da. Nik, esate baterako, 30 ikasturtez aritu naiz eta al-daketa nabarmena antzeman dut ikasgeletan. Sexu-bereizketa garbi batetik, Magisteritza ikasi nuenean neskak eta mutilak bereizirik geunden eta ezin gintezkeen elkartu irakasgai berberak izan arren; orain hartueman estuagoa nabari da ikasgeletan. Urrats handia eman da azken 15/20 urteotan".

Maisua

Ikasle-taldeetakoak irakaskuntza mistoa ezagutu dute jaio zirenetik eta, horrenbestez, inolako arazorik gabe onartzen dute egoera hau eta ikasgeletan sexukako banaketa egitea kontu zaharkitua dela deritzote. Haatik, ez diote kritikarik egiten irakaskuntza mistoari eta ez dute inolako bereizkeriarik somatzen.

"Nik ez dut inolako ezberdintasunik ikusten".

Neska

Eztabaida-taldeen parte hartu dutenen iritzia ikusirik, hezkidetza hitza eta kontzeptua oraindik arrotz zaiela esan genezake.

Beste alde batetik, irakaskuntza mistoan dagoen sexismoaz jabearazten ahalegindu beharra dago.

Hezkidetzak zera erakusten digu, emakumeak baztertu eta, aldi berean, gizonen kalterako den egoera bat aldatu beharra dagoela, bai batzuk eta bai bestetarik estekaturik baitaude norbere izakera garatu eta bakoitzaren ahalmen eta gaitasunen arabera hautabideari jarraitu ahal izateko eta ez, orain bezala, sexuan oinarritutako estereotipoen arabera.

Eskolatik zein familia barnetik eta hezkidetzaren ikuspegitik neska eta mutilek baterako erantzukizunaren bidetik ikas dezaten bultza daiteke, bai arlo publikoan eta bai pribatuan eginkizun guztiak hainbanatuz. Emakumeek historian zehar bizitzari, zientziari, kulturari... ekarritakoa argitaratu beharra dago. Emakumeek gizarteari emandakoa balioztatu behar da eta, horrez gainera, emakumeen kulturaren garatu diren kualitate onuragarriak beharrezkotzat jo eta mutilentzat ere jokabide baliogarritzat proposatu.

Eskolatik nahiz familia barnetik balore guztiak denontzat onuragarriak direla erakustea, berorietako batzuk ala bestetzuk aukeratzean datza. Horrelaxe baino ez da pertsonaren osoko garapena bultzatuko.

2

NESKAK ETA MUTILAK HEZKUNTZA SISTEMAN

Hezkuntza sistema dugu gizarte-ezberdintasunak, eta hauen artean sexu arrazoiengatik sortzen direnak, mantendu edo aldarazi ahal izateko funtsezko tresnetako bat. Hortaz, gizarte-eraldaketa eta jarrera eta baloreen aldaketa oinarritzeko zutabe nagusienetakoa izan behar du (Emakunde, 1990.eko Ekintza Positiborako Egitasmoa).

Galdera asko ageri zaizkigu eskolak jarrera eta baloreen aldaketa lortzeko egiten duenari buruz:

Zer nolako baloreak besterenganatzen dira?

Zer eta nola ikasten da?

Tratu berbera ematen al zaie neskatoei eta mutikoei?

Zer nolako auresortutako ideiak, estereotipoak, erabiltzen ditu irakaslegoak neska eta mutilei buruz?

Atal honetan, beraz, eskolan nolako harrenanak ezartzen diren eta neska eta mutilei buruzko ezagutza aztertzen dira.

Azken urte hauetan egindako hainbat azterlanetan azaltzen denez, hezkuntza-ihardueraren zenbait osagaik ohizko genero-ereduen finkapena zuzen-zuzenean sendotzen dute oraindik ere.

Marina Subiratchek irakasle eta ikasleen artean ezartzen diren harremanei buruz egindako azterlanak oso adierazgarriak dira, nahiz eta, gehienetan, irakasleen bereizkeriazko jarduna konturatu gabea izan.

Azterlan honetan ondokoak bezalako datuak azaltzen dira:

- Irakasleek gehiagotan jotzen dute mutikoengana neskatoengana baino.
- Neskatoenganako arreta eskasagoa da
- Mutikoen iradokizunak direla-ta denbora gehiago ematen da, haiei zuzendutako erantzunetan bezalaxe. Jokabide hauek berdintsu somatzen dira maisuengan zein maistrengan.
- Maistrek "aliatuak" bilatzen dituzte neskatoen artean. Ikasgela kontrolatzarekoan, ez dute maisuek bezain seguru ikusten euren burua bertako agintari gisa. Neskatoen ardurapean uzten dituzte jasotze-lana, ordena eta antzerakoak.
- Irakasleek berdintasuna bultzatu nahi dutenean, neskatilek mutilen jolasetan parte har dezaten saiatzen dira eta, jakina, halakoetan neskatilek mutikoek baino emaitza eskasagoak lortzen dituztenez gero, haien segurtasun-eza areagotu egiten da. Alderantzizkoa, ordea, oso gutxitan bultzatzen dute irakasleek.
- Eguneroko jardunean jokamolde maskulinoa sarizatzen da: konpetitibitatea, autonomia, ekimena, oldarkortasuna..., haatik, balore femeninoei atxekitako samurtasuna, sentiberatasuna, leuntasuna, afektibitatea..., neskatoengan baino ez dira onartzen. Balore eta jokabide maskulinoak arau bihurtu dira eta berdintasun-boladaren azpitik dihardute.
- Irakasleen jarreretan ere, konturatu gabe, nagusi den gizarte-arauari jarraitzen zaiola nabari da, eta arau hori neskatoen aurka kalterako egoera dakar, izan ere, bi hautabide baino ez dituzte: oso femeninoak izan (mainontzia, gisatsua, bihurria, leuna, goxoa, etab.) arau maskulinoetara egokitzen ez direnean, edo bestela, marimutilak izan haietara egokitzen direnean (neskato hau mutil bat bezain ausarta, kementsua, dinamikoa... da). Hau arazo larria bilakatzen da neskatoentzat, bi balore-sistemaren menpe aurkitzen baitira. Azpibalorazio hau da, hain zuzen ere, gure hezkuntza sisteman dirauten elementu sexistetako bat.

TRATU BERBERA?

2.1

Eztabaida-taldeetan, batetik ikasleen bizipenak ezagutzeari ekin zaio, irakasle zein ikaskideekiko harremanetan halako jokabideak antzematen badituzten, eta bestetik, irakasleek aurreko guzti horretaz kargutu diren jakin nahi izan da.

OHoko 6., 7. eta 8. mailako ikaslez osotutako 3 taldeak bat datoz eskakizun akademikoari dagokionez denoi tratu berbera ematen zaiela adierazterakoan. Beste alderdi batzutan ez, ordea, izan ere, mutikoei neskatoei baino agirika gehiago egiten omen diete gaizkiago portatzen direlako edo irakasleek hala uste dutelako.

"Mutikoei zakarragoak balira bezala tratatzen zaie, errua beti da eurena".

Neskatoa

"Ikasgelan zer edo zer gertatuz gero, lehenengo beti galdetzen digute mutikooi ea geu izan garen?"

Mutikoa

"Mutikoei gehiago jotzen diete"

Neskatoa

Irakasleen esanetan, neskatoei zein mutikoei tratu berbera ematen ahalegintzen badira ere, oso zaila gertatzen da horrela egitea era ezberdinez ikusten baitituzte.

"Agirika egin behar denean ere nabari dira ezberdintasunak; maisuak edo maistrak norekin ari diren, hau da, neskatoekin edo mutikoekin aintzat hartzen du eta agirika haiei egokitua izango da. Ez da beti berdina egiten, erabiltzen diren hitzak ere ezberdinak izan ohi dira, erakutsitako haserre-maila bezalaxe. Mutikoaren aurrean haserre biziagoa agertu ohi da".

Maisu

"Neskato eta mutikoekiko jokabide-kate bat da, eta hori eskola barruan zein kanpoan gertatzen da".

Maisu

"8. mailako mutikoari, adibidez, nik esan diezaioket: hi pepelerdoarena egiten ari haiz; neskato bati, aldiz,..."

Maisu

"Esperientziak, hezkuntza ez ezik, neskatoak eta mutikoak berak direla ezberdinak erakusten du".

Biztanleria, oro har

Zenbait maistrek gogoeta sakonagoa egiten dute ikasgelako tratu ezberdinari buruz.

"Helburua tratu berbera izatea da, baina alderdi asko kontutan izan behar ditugu; hainbat xehetasunez ez gara jabetzen eta hori irakasleok ere gizarte honetan jaioak izanik umeak eta gurasoak bezalaxe baldintzapeturik gaudelako gertatzen da; hala ere, ikastetxe batzutan gai hau planteatu egin da eta garrantzizkotzat jotzen da, eta beraz, gogoan hartzen duzu eta zure mintzaira zaintzen ahalegintzen zara, zeren maskulinoa soilik erabiliz gero, neskatoak mutikoen artean gelditzen dira eta ez diezu beraiei zuzenean hitz egiten".

Maistra

Gizonezkoek gramatikaren legeak aipatzen dituzte, eta haien iritziz horrek berez ez dakar ezberdintasunik pentsamolde orokorrean erroturik baitago.

"Erabilera honek hizkuntz araudiari jarraitzen dio".

Maisua

Taldekideen artean, aita edo ama direnek neska zein mutilei, oro har, tratu berbera ematen zaiela uste dute.

"Nire seme-alabengan ikusten dudanez, baietz uste dut, tratu berbera ematen zaiela".

Maisua

Egoera hau, ordea, ez da pozgarria nonbait, kezkarria baizik. Mutilei hezkuntza "femeninoa" emateko arriskuak kezka sortarazten du.

"Eskulanak, josten edo gakorratz-lanak, edo antzeko lanak egiten hasi den mutiko bat ezagutzen dut, haren inguruan dena zen marmarra, bere gurasoek ere ez dute onartzen".

Biztanleria

"Puntu egitea ez da mutilen egitekoa, irakats diezaiotela arozkintza, kaxoi bat egiten irakats diezaiotela, arraioa!, nik seme bat dut eta..."

Gald.: eta neska bati kaxoiak egiten irakatsi behar ote zaio?

"Bada, nire ustez ez, baino nahiago dut hori, nire semea puntu egiten ikustea baino".

Maisua

IGURIKAPEN BERBERAK?

2.2

Kontzeptua, neska eta mutilen nolakotasunari buruzko pentsamolde edo ideiak baldintzapetzen ditu bakoitzaren igurikapenak.

Neskek ahalbide mugatuak, izakera eta jokaera jakinak dituztelako ideiatik abiatuz gero, abiapuntu okerra izan arren, gauzak horrela behar dutela izan bereganatzen zaio eta, horrenbestez, igurikapenak bete egingo dira eta neskak beregandik espero diren jokabideei jarraituko die, horiexek baitira jokabide zuzenak, bere ingurukoek onerizten dituztenak, alegia. Era berean, jokabideok baitaratuz joango da.

Mutilen jokamoldeak ere horrelaxe baiesten dira.

Eskolari dagokionez, irakasleek ikasten ari diren neskatoenganako igurikapen eta jarreraren bidez iraunarazten dute nagusi den gizarte-eredua, hots, generoan oinarritutako estereotipoen araberako rolak bereizten dituenak.

Rolaren eta estereotipoaren arteko erlazioak ezarriko du genero-kodea. Rolak pertsonaren ekin-tzak zuzentzen dituen bitartean, estereotipoak iritzia mugatzen ditu, eta biek zuzentzen dituzte gizatalde bateko kideen igurikapenak.

Estereotipo maskulinoari loturikoak gizarte-balorazio positiboa duen bitartean, femeninoa delakoa desbalioztaturik ageri da. Kalitate maskulinoak ospe eta oneritziz jantzita agertzen zaizkigun bitartean, femeninoei ez zaie baliorik aitortzen, eta batzutan kalitateok akats bilakatzen dira.

Neskatoek jaiotzen direnetik jasan behar izaten duten bigarren mailako balorazio honen ondorioek eragin zuzena izango dute haien nortasunaren eratze-prozesuan eta igurikapenetan.

Hezkuntza arloan mutil eta neskengandik espero denaz mintzatzerakoan, eta horretan ere genero-estereotipoak nabari diren ala ez azaltzerakoan, taldekideek zera adierazi zuten:

Talde hauetako neskek beraiekin ikasten duten mutilek hitz eginez, haiek ausartak direla, astakiloak, harro samar agertu nahi dutela, euren burua hobe, indartsuago eta nagusiago ikusten dutela esaten dute.

Mutilek ikaskide dituzten neskei buruz, berriz: Neskak finagoak, arduratsuagoak, lotsatiak, politak, belaskak, negartiak, amoltsuak, kaskarinak.

Irakasleek badakite estereotipoetan oinarritutako hezkuntzak eragina izan dezakeela ikasleengan.

"Emakumeak argiagoak direla uste dut, haien hezierak adimena ere ezberdinez erabiltzera dararamatzala".

Maisua

"Nik uste, berez ez dagoela ahalmen-ezberdintasunik neska eta mutilen artean, heziera-mailan bai, ordea. Ahalmen honek erabiltzeko era eta modu ezberdinak izan daitezke. Mutikoa neskatoa bezain sentibera da, baina ahalmen hori hertsatu egiten zaio haziz doan heinean. Oraindik ere entzuten zaie mutilei: ez negamik egin, neska bai ematen duk edo neskak bezain belurtia haiz, eta antzerakoak".

Maisua

"Mutikoa sentibera denean, maritxu hitza entzuten da, eta maritxu hitza iraingarria da, eta aski da neskak bezalako sentimenduak izatea halakoak entzuteko".

Maistra

Adierazpen hauetan ikusten denez, balore maskulinoak dira eredugarri, neska eta mutilen pertsona gisako garapen osoa eragotz ditzaketen arren. Biztanle arrunten taldeetan ere nabari dira genero-estereotipoak nesketaz hitz egiterakoan.

"Neska gizatsuagoa izaten da beti, arduratsuagoa, arreta eta interes handiagoz lotzen zaio bere eginkizunari".

Biztanleria

"Neskengan nabaragoak dira zirrara eta hunkipena".

Ikaslea

Gizartean gizonei eta emakumei atxekitzen zaizkien rolei jarraitu beharrari dagokionez, badira aurkako iritzia dutenak ere.

"Nire ustez, denek asaldatzen gaitu beti agertu beharreko finezia horrek edo beti agertu beharreko gizontasun horrek; hau da, noizean behin ez zarela horren fina eta ez zarela beti horren indartsu".

Biztanleria

Aurreko iritzietan garbi asko ageri da nola balioztatzen den maskulinoa delakoa femeninoari kontrajarria.

Benetako hezkidetza arlo guztietan erabiliz gero, ez litzaizkieke mezu ezberdinak helaraziko neska eta mutilei, eta horrela, sexu batekoa ala bestekoa izan arren, norberak hobetsitako balore eta jokabideak onartuko lituzke.

3

GIZARTERATZEA: FAMILIA/ESKOLA

“Ez gara emakume jaiotzen, emakume izatera” iristen gara dio Simone de Beauvoir-ek.

Gauza bera esan genezake gizonaz. Izan ere, emakume edo gizon izateak kultura bakoitzean indarrean dauden feminitate eta maskulinitate-ereduekiko atxekitze eta egokitze-prozesu luze eta korapilotsua eskatzen baitu. Gizarteak haietara egoki gaitezen eta dagokigun generoaren jokabideei jarraituz bizi gaitezen eskatzen digu.

Gizarte bakoitzak gizarte-generoak deitzen zaizkienak, hau da, femeninoa eta maskulinoa, itxuratzten dituzten ezaugarri eta jokabideak iratxikitzen dizkio sexu biologiko bakoitzari, eta haien jarrerak, jokamoldeak edo sentitzeko erak mugatzen ditu.

Jaiotzen diren unetik, pertsona guztiek jarraitzen diote gizarteratze-bide bihur eta bereziari, bi generoetako baten kide izatera daraman bideari, hain zuzen.

Femeninoa eta maskulinoaren artekoa ez da berezko ezberdintasuna, gizarte-kulturazko erabideak baizik.

Gizarteratzea bi eremutan gauzatzen da gehien bat: familian eta eskolan.

Generoak gainditzeko gizarteratze ezberdina beharko litzateke eta, beraz, aipatutako bi erakundeon funtsezko aldaketa.

Talde guztiak bat datoz hasiera batean, neskatoa eta mutikoa txikiak direnean, ereduak familian baita ikasten direla esaterakoan; gerora, eskolan, ereduok sendotu egingo dira eta, ondoren, adiskideon eragina funtsezkoa izango da.

“Gertatzen dena zera da, mutikoaren izakera nola izango den hasiera-hasieratik mugatzen dela, eta hasieran askoz ere garrantzizkoagoa da etxea eta bertan nabari diren rolak. Zeren, aurrez, aurrez, esate baterako, sukaldetxoak ere izaten dira ikasgeletan merkatuarena, panpinena eta... egiteko, eta badira mutikoak panpina jantzi nahi ez dutenak, hori neskatoen eginkizuna dela diotenak, eta hiru urteko mutikoa da. Mutiko hori berriketan joan da haurtzaindegira, hortaz, pentsamolde hori ez du aurrez aurre bereganatu”.

Biztanleria

“Inguruneak?, bai badu eragina, baina askoz ere eragin handiagoa du etxean ikusten duenak. Familia batek mutikoari zein neskatoari heziera berbera eman nahi izanik ere, ama afaria presatzen ari den bitartean, aita telebistari begira dagoela ikusten badute, heziera berbera eman nahi bazaie ere, zein den amaren rola eta zein aitarena ikusten ari dira; amarena zerbitzatzea eta aitarena zerbitzatua izatea”.

Biztanleria

Erroturiko rolak hor daude eta oso zaila da haiek aldatzen. Parte hartu duten emakume batzuren iritziz ez dago horretarako interesik, gizonen kalterako litzateke eta.

“Mutilek gizon bihurtzeko heziera jaso dute, gizon bihurtu eta emakumeek zainduak izateko heziera, alegia. Ni neu ere duela urtebete ezkondua naiz eta, bai, lana banatu beharra dago... Eta oso ondo ulertzen dut haien jarrera; askoz erosoagoa baita etxeratu eta afaria gertu izatea, hori argi dago. Niretzat ere erosoagoa da, noski... Orduan, erosotasun horretara hel daitekeenak onartu egiten du, onartu eta etsi”.

Maistra

Talde guztiak bat datoz, rol-besterenganaketa honen errudun nagusia ama dela esaterakoan, alabaina, hura ez dela horretaz konturatzen eta gizarte-estereotipoak berritu baino ez duela egiten ere esaten dute.

"Gaur egun ere emakume askorengan nabari da hezierari dagokionez. Seme-alabak dituen ama, emakume aurrerakoa, askatasun handia eman dietena, itxura batez biei. Badator semea: "ama alkondara bat behar dut". Amak bere lanari utzi eta alkondara lisatzen dio. Badator alaba: "ama brusa hori behar dut". Bada, lisa ezazu zeuk, ni lanpeturik nago eta". Hortaz, heziera etxean ematen dela deritzot, familiaren baitan".

Biztanleria

"...Argiago oraindik, errudunak gizonak eta emakumeak dira. Gizonek, ez dituztelako eskubi-deak galdu nahi eta, emakumeak, beraiek, euren artean, kontraesanetan ari direlako; amak berak erakusten dizkizu balore batzuk... gure artean ere ez dago adostasunik".

Biztanleria

Taldeetan amek beren jokabideetaz kontzientziatu beharra aipatzen da, haien eskuetan baita-go, hein handi batez, datozen gizaldietan genero-estereotiporik ez izatea.

"Zuk garrantzizko gauza bat esan duzu, hau da, erantzunkizuna amarena dela, emakumearena, alegia. Azken batean, erantzuleak ez ezik, ..ez zait hitza bururatzen.. nolabait esateko, geure arerorik okerrenak izan gaitezke, ez da?".

Maistra

"Bada, nire amak mandatuak egitera bidaltzen nau, eta nire neba bidali dezakeela esaten badiot, mutila dela eta etxean neska bat badago ez duela horrelakorik egin beharrik erantzuten dit, bidegabekoa deritzot horri".

2. mailako neska

"Nik badut emakume gazte baten adibidea, lehengo egunean bere senarrari ohea egiten ziola esan zidana, eta hori zergatik? galdetzean, bidezkoa iruditzen zitzaioela esan zidan berak hobeto egiten baitzuen. Hortaz, badira oso erroturik dauzkagun hainbat eredu, berorietatik aldentzea oso zaila gertatzen zaigula..."

Maistra

"Eta zure etxean, ken ditzatela izan ditzakezun oztopo horiek edo, nola esango nuke nik?, beste ideia bat erakutsi dezatela, beste bide batetik eraman... Zure etxean nortasun berezia izan dadila, egituratuta dagoena deuseztatzeko aukera izan dezazun eta beste ideia bat eman diezazuten. Ahalegin handiagoa eskatzen zaie gurasoei, ahalegin osagarria".

Biztanleria

Gizaldi berrien gizarteratzean dagokionaz jabeturik dagoen familia batek hezkidetza kontutan hartu beharko luke, hala nola:

- Mutikoak zein neskatoak berdin balioztatu. Batari edo besteari jokabide jakin bat edo ekintza ezberdinak eskatu gabe.
- Biei erantzunkizun-maila berbera eskatu ikasketetan, etxeko zereginetan edo lanean.
- Etxean eredu koherenteak eskaini. Adibidea da ikasbiderik hoberena, ez du azalpenik behar, berez erakusten du eta.

Argi dago, halaber, amak eta aitak gizarteratzean, gizartean dauden genero-estereotipoak bereganatu zutela eta, horrenbestez, konturatu gabe haien iraunarazle bihurtu direla, sarritan beren pentsamoldeen aurka bada ere.

Mekanismo maltzurrok azalera daitezen, beharrezkoa da familian izan ohi diren jarrera eta jokabideak aztertu eta neskato zein mutikoen gizarteratzean duten eraginari buruzko gogoeta egitea.

4

IRAKASLEGOA GENERO ESTEREOTIPOEI EUSTEN DIE TRESNA GISA

Nola dihardu irakaslegoak genero estereotipoak iraunarazteari dagokionez?

Zer egiten du eta zer egin beharko luke?

Maistrak eta maisuak oso garrantzitsuak dira genero estereotipoak besterenganatu eta iraunazteko.

Batetik, ikasleei eskaintzen dieten ereduagatik, maistra eta maisuen izakera, alegia. Ikasleek nola ikusten eta baloratzen dituzten bakoitzari dagokion genero estereotipoarekiko egokitze ala desegokitzeari dagokionez: eredu maskulinoari erabat loturiko maisua edo eredu femeninoari erabat loturiko maistra eta zer nolako harremana ezartzen den haien artean ikastetxe barnean.

Beste alde batetik, irakasten ari denean agertzen dituen jarrerengatik, haien ondorio direnak.

Curriculum ezkutua, irakasleek haien ondorioetaz konturatu gabe eta ikasleek ere halakorik jasotzen ari direnaz kargutu gabe ikasten diren eskola-bizitzako alderdiei dagokie. Ikastetxearen antolaketaren bidez eta bertan egiten denaren bitartez bizi izandako ikaskuntzak direla esaten da.

Neskato eta mutikoekiko tratua, erabilitako mintzaira, neska eta mutilen aurrean agertzen diren igurikapenak eta abarrak, genero estereotipoak iraun erazten edo deuseztatzen lagun dezaketen elementuak izan daitezke.

Nola ikusten eta baloratzen dute hau taldekideek?

Taldekideek adierazten dutenez, maistrek eragin handia izan ohi dute lehen ikasturteetan, Aurreskolan eta OHOean, baina eragin hori gero eta urriagoa da goi-mailako ikasketetan. Ohizkotzat jotzen dute egoera hau, eta honela arrazoitzen dute:

"Emakumea irakaskuntzari lotzen zaio zenbait arrazoi direla medio: lehenengo eta behin irakaskuntza hezkuntzari lotuta ikusten delako, batez ere aureskolan. Orduan amak hezi egiten ditu, eta orduan halako dinamika bat edo sortzen da, maistrarik onena beti ama dela".

Maisua

"Emakumea erditzen delako eta, horrenbestez, bera delako umea egokien zaintzen duena. Umearen sentipenak hobeto ezagutzen ditu, eta gizonak ez dakite".

Ikaslea (neska)

"Ez diot gaitasunarengatik, baizik eta umea konprenditzeko sentiberatasuna somatzen delako".

Maisua

"Aureskolan ere ba omen dira gizonak, baina nik neuk ez dut bat bera ere ezagutzen".

Biztanleria

Irakasle-taldeetan bi gauza nabarmentzen dira. Bata eskolatzeko-prozesuko lehen ikasturteei zor zaien balorazioa.

"Nik erantzunkizun handiagoa somatzen dut beheereneko mailetan, beti gerta daitezke pertsona batek, maisu edo maistra batek jarraitu beharreko eredubidea. Azken finean horrek mugak jarritzen ditu. Nolanahi ere, beti dago erantzunkizun handiagoa edo txikiagoa nire ustez".

Maisua

"Jakina, gaitasun zientifikoa gorenko mailetan beharrezkoa dela suposatzen delako, baina denok dakigu, ordea, gauzak ongi egiten, hain zuzen ere, lehen adinekoekin jakin behar dela".

Maistra

Bestea, emakumeek beraiek jo ohi dutela lanpostu horietara, zeren, gizarteratuak izan direneko genero estereotipoen arabera, gustorago eta seguruago aritzen dira haietan.

"Agian, ez dutelako mailaz igon nahi. Nire ikastetxean, emakumeak aurrekolan daude eta ez dute mailaz igon nahi, hori dela-ta, mailaz jaitsi nahi dugunok ezin dugu".

Maisua

Ikastetxeetan irakasleak generoaren arabera sailkatzeko aurretiko jarrera da barne-funtzionamenduari dagokionez.

"...Goi-mailako Zikloan, ordea, gizonak ziren gehienak, zeren, jakina, handiak direnez aurpegi ematen dizute... orduan hobe maisu bat izatea, ez da? Goi-mailako Ziklora heldu nintzenean maisu batek zera esan zidan: "Ez dakit bada ondo egin duzun Goi-mailako Zikloa aukeratuz, zeren emakumea, txikia eta argala izanik jan egingo zaituzte". Nik erantzun nion: "Itxoin, ikasgelan nola moldatzen naizen ikusiz gero esan hori, irakaskide maitea".

Maistra

Beste ezaugarri bat ere azpimarratzen dute, hau da, zuzendarien artean horren emakume gutxi izatea.

"Ni nagoen ikastetxean, gehienak maistrak dira eta zuzendaria beti da gizon bat".

Maisua

"Agian emakumeek ez dutelako zuzendari izan nahi".

Maisua

"Ez dakit bidezkoa den, zeren kargua onartzeko prest dagoen ikusi behar baita lehenengo eta behin".

Maistra

"Hainbat eta hainbat bilera-ordu ordaindu gabe".

Maistra

"Agian, gu ez gara horren lehiatiak".

Maistra

Taldeek orain arte egindako ekarpena aztertzen badugu, irakasleek ikasleei eskaintzen dieten eredua genero estereotipoz kutsaturik dagoela nabari da: maistrari ama dagokio, ahula, sentibera eta ez lehiatia.

Ikastetxeetan erizpide hauei jarraitzen bazaie, hau da, irakasleak sexuaren eta balizko gaitasunen arabera maila bati edo besteari atxeki, ikastetxeko kudeaketa gizonen esku utzi, etab., argi dago horren ondorioak ikasleek jasoko dituztela, egoera hori normalizat joko dutelarik.

Badira, halaber, jokabide hauek ikasleentzat zein garrantzitsuak diren azpimarratzen dutenak ere.

"Horretaz neska-mutilak ere jabetzen dira; zuzendaria, agintaria beti gizonezkoa dela irakasle gehienak emakumeak izan arren".

Maisua

Genero estereotipoak besterenganatzerakoan irakasleek duten partehartze zuzenaz mintzatzerakoan, irakasleek alde aurretik familia barnean ikasitakoa indartu egiten dutela adierazten dute taldekideek.

Irakasle-taldeetan, bestalde, konturatzen dira genero estereotipoen arabera gizarteratutako edonork, horretaz kargutu gabe, besterenganatzen dituen mezu ezkutuak kontrolatzen oso zaila dela.

"Nik uste dut arazoa ez dela jokabide batzuk ezarrita konpontzen, besterenganaketa askoz ere labanagoa baita, nik neure izakera besterenganatzen dut; eta guztiok dauzkagu halako kondizionamenduak".

Maistra

"...Baina garrantzizko faktore bat dago, hau da, maisuek eta maistrek ikasgelara daramaten jarrerara bera. Erreakzionatzeko gaitasuna eta norbere bizipenak, horiek besterenganatzen baitira".

Maistra

Ikasleak ondokoei bezalakoei ere antzematen die.

"Maisuak ez du huts egiten seme-alabak medikuarengana eramatearren, maistrak bai, ordea".

Ikaslea (neska)

Eta ohizko bideari ez jarraitzeko eta ohizko roletatik aldentzeko dauden oztopoez ere kargutzen da.

"...Neska batek nahi duena egin dezake, baina mutilek egin ohi dutena egiten badu, ez dakit, halako zerbait ikusten diogu" (marimutil).

2. mailako mutila

"Nahi baduzu, neskek egiten duten edozein gauza egin dezakezu, baina gauzak hala dira eta oso zaila da hori apurtzen; hori dagoeneko...".

2. mailako mutila

Ondorio gisa esan daiteke irakasleek, hala erakusten duten izakerarengatik, nola curriculum ezkutua delakoaren bidez besterenganatzen dutenarengatik, rolen iraunarazle gisa dagokien erantzunkizunaz ohartu beharra daukatela.

Amak eta aitak zirela-eta lehenago aipatu den bezalaxe, irakasleen kasuan ere, bizi izan duten gizarteratzea kontutan hartu behar da, gizartean indarrean dauden genero estereotipoak baitaratu dizkien prozesua, alegia, eta horrenbestez, teoriar aurka agertu arren, konturatu gabe euren praktika pedagogikoan estereotipoen arabera jokatzera eramaten dituen.

Irakasleek benetako ahalegina egin behar dute eskola-ihardueretan gertatzen diren harreman ezberdinak aldarazteko, arreta eta energiak era orekatu batez bideratuz, eta horretarako, irakasleek guzti hori aintzat hartu beharra dago, horrela irakaskuntza-ikaskuntza prozesua distortsionatua izan ez dadin.

Sexu arrazoiengatik bereizkeria baztertu asmoz diharduen eskolak nahitaez planteatu behar du aipatutako alderdiekiko jokabide zuzenari jarraitzen dion. Horrek aldaketak dakartzala jakin behar du, hala edukinei, barne antolaketari eta abarrei dagokienez, nola besterenganatu beharreko arauak, jarrerak eta baloreak, eta horretarako ezinbestekoa da bere hezkuntza ekintzak etengabe berrikusi eta haiez gogoetak egitea.

Eginkizun gogor honi ekiteko, egoerarik egokiena, helburu nagusia, ikastetxeko irakasleek, oro har, eta hezkuntzan diharduten guztiek izanik hobe oraindik, adostasun batera heldu eta sexismoari aurre egiteko konpromisua ezartzea litzateke, horrela Ikastetxeko Hezkuntz Egitasmoa sexismorik gabe aurkeztu eta, aldi berean, helburu hori lortzeko ekintzak ezarriko liratekeelarik. Hori lortuko bada, ezinbestekoak dira hezkuntzan sartutako sektore ezberdinetatik hainbat ekintza berezi burutzea, hortaz, ekintza mugatuek, balio mugatua izango lukete, baina haiek bezain garrantzitsuak lirateke. Eta horietako lehena zera da, irakasleak hezkidetzaren garrantziaz jabetzea eta arlo horretan trebatzea.

5

TESTU LIBURUAK ETA GENERO ESTEREOTIPOEN IRAUNARAZPENEAN DUTEN ERAGINA

Eskolako liburuak genero estereotipoz agertzen diren aztertu duten azterlan guztiek ondorio berberak azaltzen dituzte:

- Mutilen aldeko bereizkeria bai testuan eta bai irudietan nabari da.
- Mutilaren protagonismoa nabarmenagoa da.
- Erabilitako mintzairak itzaldu eta baztertu egiten ditu emakumeak.
- Emakumea dugu historia testuetan eta, oro har, jakintza-arlo guztietan nabari den hutsunerik argiena.
- Lanaren sexu-zatiketak bere hartan dirau familian zein gizartean.
- Eginkizun eta lanbide maskulinoei bestelako balorazioa atxekitzen zaie: zuzendaritzako lanpostuak, arduradunak..., femeninoei ez bezala: erizainak, zerbitzuak, kualifikazio txikiagoa, etab.

Biztanleria oro har deitu dugun sektoreko pertsonak ez dute horren ongi ezagutzen materiala, beraz, gai honen inguruan apenas eztabaidarik sortu den. Nolanahi ere, aurrerapausutzat jotzen dute denok testu berberak erabiltzea.

Hona hemen berorien artean jasotako zenbait erantzun:

“Denek dute liburu berbera”.

“Liburuetan ezetz uste dut”.

“Nik nire seme-alabekin ikasi dut eta ezetz uste dut”.

“Nik ez ditut testu liburuak ezagutzen, baina espantagarria litzateke oraindik ere halakorik izatea” (sexismoa testuetan).

Neskak eta mutilak, gizonak eta mutilak gehiagotan agertzen direnaz ez ezik, atxekitzen zaizkien eginkizunak ere erabat ezberdinak direnaz ere ohartzen dira.

“Gizona da protagonista”.

Ikaslea (neska)

“Historia liburuetan, esate baterako, askoz ere gehiagotan agertzen dira gizonak”.

“Konkistatzaile guztiak gizonak zirelako”.

“Eta zientzilaria edo ikerlarien artean ere emakume gutxi dago”.

2. mailako OHOeko ikasleak

Behin eta berriz azpimarratzen dute ezberdintasun hauek nabarmenagoak direla jolasgarritzako testuetan. Abenturazkoak mutilentzat eta ipuintxoak neskentzak. Berrito ere, eredu arras ezberdinak eskaintzen dira, mutilei iharduketa, sorkuntza, kemena eta indar fisikoaren garapena biltzen dituen ereduak eskaintzen zaien bitartean; neskei barne-esparrua, pribatua, geldotasuna, edertasuna, etab. garatzeko ereduak aurkezten zaizkie.

“Nik uste dut neskak gehiago agertzen direla (ipuinetan), bera da bertako gauza polita, gauza polita eta fina bezala agertzen da”.

Ikaslea (mutila)

“Eta abenturak mutilentzat dira”.

Ikaslea (neska)

Hona hemen 13 urteko neska baten gogoeta, talde guztiak harekin bat etorri direlarik:

"Nik uste dut beraiek izan ziren bezalakoak izan gaitezen nahi dutela".

LH, BBB eta Unibertsitateko ikasleek, bestalde, behereneko mailetan, agian, badela halako be-reizkeria, baina orain ari diren mailetan ez dutela halakorik antzematen adierazten dute.

Talde guztiak harturik, maistrak izan dira testu liburuetan dagoen sexismoa argien ikusi du-tenak.

"Eskola sexista izatea, sexistak diren testu liburuen bidez besterenganatzen duen sexismoan datza".

Maistra

"Euskara irakasten dut eta euskara-irakasle guztiok emakumeak gara eta zenbait gauza asal-dagarri begibistakoak dira".

Maistra

"Guk ikastetxean planteatu dugu eta liburuetan badela sexismoa ikusi dugu".

Maistra

"Testu liburuetan rolei daudenean eustearen aldeko jarrera nabari da".

Maistra

"OH!Oean azterlanak egin dira eta, emakumea askoz ere gutxiagotan agertzeaz gainera, ager-tzen denetan femininotzat jotzen den eginkizunen bat betetzen ari dela agertzen da. Ingenia-ritzaz hitz egiten ari badira ez da emakumerik agertzen, beti agertzen da gizonen bat. Uste dut argitaletxeei jakinaraziko zitzaizela arazo hau, baina oraingoz ez da aldaketarik somatzen".

Maistra

"Baina... bueno!. Historian zehar, adibidez, emakumeak makina bat gauza egin ditu eta beti izan da emakumea eta hor egon da. Eta edozein testu liburu hartzen duzu eta gizonezkoak baino ez dira agertzen. Eta emakumeak nekazaritza sortu zuen, adibidez. Hori ez da inon ager-tzen. Beti agertu ohi da El Cid Campeador eta andrea haren atzetik...".

Biztanleria, oro har

Irakasleek, aitzitik, ez diote horrenbesteko garrantzirik ematen gai honi.

"Nolanahi ere, horrek publizitatean edo filmeetan agertzen diren rolek baino askozaz ere eragin txikiagoa izango luke".

Maisua

Elkarrizketaturiko taldeen artean, 2. mailako ikasleak eta irakasleak dira testu liburuetan genero estereotipoak agertzen direla argien adierazten dutenak. Haiei entzun ondoren, gainera, ez dela gai hau aztertzen duten lehen aldia ematen du, eta hori estereotipo hauek aurkitu eta argita-ratzeko prozesuan beste urrats bat ematea da.

Pertsonei sexu arrazoiengatik atxekitako rolik gabeko gizarte bat lortzeko helburuari egokitutako mezuez egindako eskola-material berriak sortuz, halako iradokizun praktikoak edo nolabaiteko pizgarriak eskainiko litzaizkieke argitaletxeei. Testu liburuen kasuan gainera, Hezkuntza, Uniber-tsitate eta Ikerkuntza Sailaren onespina behar dutelarik, arreta eta kontu handiz egin beharko lirateke, genero estereotiporik izan dezatenak errefusatu.

6

**NESKA/MUTILEN
ARTEKO
EZBERDINTASUNAK**

Aurreko ataletan ikusi den bezala, estereotipoak aspaldidaniko pentsamoldeetan, tradiziozko ideietan oinarritzen dira, zientifikoki frogatu gabeko ideietan, alegia. Hala ere, oso erroturik dau-
de gizartean, eta esplizituki oso gutxitan ageri badira ere, oharkabean aritzen dira eta, horren-
bestez, oso zaila gertatzen da berorien erauzketa.

Eztabaida-taldeetan galdera hau planteatu zen: ea neskek eta mutilek ahalmen berberak ote
dauzkaten, dela adimen-mailakoak, dela fisikoak zein zirrarezkoak.

Hiru alderdi hauek: adimena, zirrarezkoa eta fisikoa, banan-banan aztertu dira, talde berean ere
iritzi ezberdinak agertu direlako eta ez zaielako garrantzi berbera atxekitzen ez eta zalantza ber-
berak agertzen horietako bakoitzarekiko.

ADIMENA

6.1

Gehiengoaren ustez, adimena ez da sexuak mugaturiko ahalmena, norberaren dohaina baizik,
eta berorren garapena ikaskuntzari lotzen zaio, pertsona hazten den inguruneari eta bizitzako
lehen urteetan jasotzen dituen eragingarriei.

“Ez dago ezberdintasunik”.

Maisua

“Nire iritziz, berez ez dago ezberdintasunik ahalmenari dagokionez, heziketa-mailan bai, ordea.
Berez, ahalmen horietaz baliatzeko era ezberdinak izan daitezkeela uste dut”.

Maisua

“Nik ez dut uste gizonezkoak emakumeak baino adimendutsuagoak direnik, ez eta emakumeak
gizonak baino argiagoak direnik ere”.

Biztanleria, oro har

Hala ere, biztanleria orokorreko taldeetako heldu batzuek eta irakasleek, adimen-mailako gai-
tasunak ez direla ezberdinak adierazi arren, zalantzaren bat ere erakusten dute.

“Ez dakit bada, batzutan galdetu diot neure buruari gai horretaz”.

Maisua

“Ez balego, ez legoke eztabaidarik, ezta?”.

Biztanleria, oro har

Batzutan, zehaztu gabeko argitarapenetan irakurritako ezberdintasun genetikoak postulatzeko di-
tuzten nolabaiteko teoriak ere aipatzen dira.

“Zenbait gauzatarako gizona aproposagoa da, izan ere, gizona eta emakumearen bilakaeraren
aldetik, zenbait alderdi era ezberdinez garatu baitira”.

Maisua

“Genetikaren arazoa ere hor dago; zeren horrek ere badu bere garrantzia, ezta?”.

Maisua

"Tiral, bada horixe ikusten dela. Hizkuntza hartuz gero, adibidez..., bada, Gaztelania, Ingelesa, Euskara etab., neskek, oro har, erraztasun handiagoa erakusten dute. Matematika, Natur Zientziak eta horrelakoetan, ordea, mutilek; baina beti izaten dira salbuespenak, noski".

Maistra

"Psikografologia delakoan neskak hobeto moldatzen omen dira eta azkarrago ikasi".

Biztanleria, oro har

Gazteenak dira, 12-14 urte dituztenak, hain zuzen ere, adimenak ez duela ezein sexurekin zerikusirik argi eta garbi adierazten dutenak.

"Denok daukagu adimen berdina".

Ikaslea (mutila)

"Nik uste dut, ahaleginaren arabera, zeren neska bat edo beste edonor baino adimendutsuagoa izan zaitezke".

Ikaslea (neska)

"Pertsona bakoitzaren arabera, uste dut".

Ikaslea (neska)

Hala maisu eta maistrek, nola neskato eta mutikoek, neskek eskolan emaitza hobeak lortzen dituztela aitortzen dute eta horren zergatia gisa neskek ikasketetan erakusten duten iraupen eta ardura aipatzen dute.

"Mutilak baino arduratsuagoak gara. Tiral, utzi futboleko jolastera joaten, korrika egiten... Neskei, ordea, 9etarako etxean, 8etarako etxean... eta orduan, zer egiten duzu etxean? Bada ikasi, bestela, zer egingo duzu, bada?"

LHko ikaslea

"Neskek arretatsuago aritzen dira beren eginkizunetan".

2. mailako ikaslea

"Mutilak ez dira saiatzen, hortik datozkie emaitza okerragoak".

2. mailako ikaslea

"Saiatuagoa, finagoa ikasketetan. Mutikoa, gaur egun, despistatu samar ageri da. Ez dakit ordenagailuak diren telebista edo kirolak diren, baina mutikoa ez zaio ikasteari lotzen eta, gaur egun, neska nagusitzen ari zaio.

Maisua

Atal honi amaiera emateko, esan genezake, ezen gazteenek, egunero ikasgela eta ikasketa berberak konpartitzearen ondorioz, agian, sexu bien arteko ahalmen-ezberdintasunik ikusten ez badute ere; helduek, argi eta garbi adierazteko adorerik ez erakutsi arren, zalantzakor agertzen direla.

Adierazgarria da, oraindik ere, matematika eta zientziak ikasteari dagokionez, mutilek neskek baino ahalmen handiagoa dutela uste duten irakasleak ere badirela. Horrexegatik, hain zuzen ere, konturatu gabe mutilak arlo horietarantz bultzatzen dituzte, neskak ez bezala, hauek letrakarreretarantz zuzenduz, oraintxe bertan gertatzen den bezala.

Emakumeen gaitasun fisikoari buruzko ikerlan gutxi egin direnez gero, hainbat sexu-tabu eta estereotipori eusten zaie, askotan gezurrezkoak badira ere.

Ezberdintasunak ez dira horren nabarmenak lehen haurtzaroan, baina gero eta handiagoak bilakatzen dira, trebetasun bakoitzaren arabera, eta nerabezarorako oso argiak izaten dira.

Egiaztaturiko ezberdintasunak izanik ere, ikaskuntza motor delakoari dagokionez, gaitasun maila berbera dute sexu biek (Singer, 1980), hortaz, eskolan mutikoentzako eginkizunak, batetik, eta neskatoentzako eginkizunak, bestetik, izatea gizarte eta kultura-jokabide erabat atzerakoari eustea litzateke.

Gai hau dela-eta, antzerako iritziak agertu dira taldeetan, gazteenek, ordea, OHOk 2. mailako ikasleek, ezberdintasunak mutilak gehiago saitzen direlako izaten direla uste dute, eta sexu biek lor litezketela emaitza berberak; heldu guztiak bat datoz ezaugarri fisikoak genetikoki mugaturik daudela adierazterakoan.

"Guk ere ahal dugu, baina ez gara ahalegintzen (indarra gehitzen)".

2. mailako ikaslea

"Igeri egiten ari nintzela, 8/10 urte nituenean, indarra berdina zen, baina 14/16 urte betez gero, bueno... nahi duten unean uzten zaituzte. Gehiago hazten direlako da, beso sendoagoak izaten dituzte".

Ikaslea

"Indar fisiko handiagoa dute, askoz ere handiagoa... Berez duten ezaugarri fisikoengatik, ez hobeak edo txarragoak direlako, baizik eta handiagoak direlako eta, beraz, indartsuagoak direlako".

Ikaslea

"Atletak, esate baterako, lehiarako prestatu dituztenak, gizonetakoek egin ohi dituzte markarik bikainenak".

Ikaslea

"Zeren mailgutasuna... seguru emakumea gizona baino mailuagoa dela, adibidez".

Ikaslea

Batzuek beste pentsamolde bat agertzen dute emakumeen indarrari dagokionez.

"Ez indartsuagoa, defentsa gehiago ditu, gurea ez bezalako organismoarekin, indartsuagoa izan behar duena, noski, zeren naturak behartu baitu eme izatera. Orduan, jakina, ez giharrei dagokienez, baina fisiologiaren aldetik, horixe bailetz... Emakumeak gizonak baino askoz ere indartsuagoak zarete".

Biztanleria oro har

"Eta zergatik ez dugu mugatzen zer den indarra? Zeren, adibidez, denok dakigu emakumeak, batzazbeste, gizonak baino luzaroago bizi izaten direla. Zuretzat mahai bat altxatzea izan daiteke indarra, baina indarra izan daiteke, era berean, organoek luzaroago irautea, pertsona gogorragoa izatea. Izan ere, emakumeak askoz ere gogorragoak direla ematen du. Indarra izan daiteke

pertsona batek mina hobeto jasatea eta abar. Zein da gogorragoa mina jasaterakoan, gizona ala emakumea? Gizonak harri handiagoa altxatzeko gai izateak ez du esan nahi indartsuagoa denik, nik uste, ez dakit...”.

Biztanleria oro har

Ezberdintasun fisikoek, pertsona bakoitzari berezkoak zaizkionetik, ez dute bereizkeriarik sortarazi behar, berezitasuna eta, beraz, aberastasuna, baizik. Horregatik, gorputz-hezkuntzan bai, kontutan hartu behar dira eta inor derrigortu edo gutxietsi gabe, nesken eta mutilen gaitasunen garapen egokia lortu. Hortaz, eskolan behar bezalako gorputz-hezkuntza izango bada, hurrengook aintzat hartu behar dira:

- Beste pertsonaren gorputza errespetatu eta ezberdintasunak ontzat hartu.
- Gorputz-hezkuntza jolas eta olgeta gisa bultzatu, ez kirol eta lehia gisa soilik.
- Gogortasunari, abiadurari zein indarrari ematen zaion garrantzi berbera eman garapen erakatuari, malgutasunari edo dantzari.
- Gorputz-hezkuntza osasun-hezkuntza gisa planteatu.

ZIRRARA ARLOKO EZBERDINTASUNAK

6.3

Pertsonaren hainbat ahalmen: sentiberatasuna, hunkiberatasuna, intuizioa, samurtasuna, pairamena, besteak beste, bigarren maila batera zokoratzen dira, sistema honetan lehiatu eta aurrera egin nahi duten neska eta emakumeek alde batera utzi behar izaten dituzte balioztatzen ez diren gaitasun eta jarrerak, hobetsi egiten den eredu patriarkala, androzentrikoa, gizakiari benetan dagokiona finean, onartuz.

Berezitasunari zor zaion begirunetik eraikitako berdintasun-kontzeptutik abiatu beharra dago gizakien ahalmenak garatu eta berezko aberastasuna agertu ahal izateko, bakoitzaren sexutik eratorritako mugarik gabe.

Sentitzeko era ezberdinak ote dira? edo, genero estereotipoei jarraituz ikasten al da hunkipenak nola adierazi?

Neskentzat zilegizkoa da negartiak, sentiberak, samurrak, amoltsuak izatea, sentitzen dutenari buruz hitz egitea edo sentimenduak agertzea, guzti hori, gainera, ontzat ere hartzen da. Mutilei, ordea, ez zaie onesten, eta hala agertuz gero, oraindik ere, susmagarria irudituko zaio norbaiti, maritxutzat hartuko dute, hitzaren zentzurik txarreanean.

Biak gizarteratu dituzte genero estereotipoak oinarritzat harturik, eta jaiotzen direnetik bide jakin bat erakusten zaie: Mutilak ez du negar egiten. Ze polita den neska hau! Nire laztana! Nire txapelduna! Morroskoa!

Gai honi buruzko iritziak antzerakoak dira talde guztietan. Gizonak eta emakumeak jokabide ezberdinez ageri zaizkigula hunkipen eta sentimenduak adierazteari dagokionez, baina arrazoiengan ez datoz bat.

Batzuen ustez, hasieran berdintasuna dago eta hezierak dakartza ezberdintasunak, beste batzuk, aitzitik, sexu bakoitzaren berezko ezaugarriek zerikusirik ote duten galdetzen die euren buruei.

"Eta nola ikasten dugu hori?".

"Hori argi dago, aitatzok eta amatzok eta gero gizarteak. Eskolan ez dut uste izakera irakasten denik".

Biztanleria

"Nik uste dut ikasi egiten dela".

Irakaslea

"Zirrara eta hunkipenak ez dira berdinak gizonengan eta emakumeengan. Emakumeen, nesken hunkiberatasuna gizonena baino handiagoa da. Gizonentzat ez dira hain garrantzitsuak gauza horiek...".

Biztanleria

"Nire ustez, naturaren arazoa da, sakonagoa... buruari dagokiona".

Biztanleria

"Hortaz, gizona zarenez gero, ausarta izan behar duzu, eta emakumea zarenez, apala izan behar duzu".

Biztanleria

"...Hor dago amen jokaera, ezberdintasun hori irakasteaz arduratu baitira. Eta tira!, ikusten duzuna ikasten duzu".

Maistra

Gazteen artean, 20/30 urte, hezkuntza eta berezkitasuna aipatzen dira bat etorri gabe.

"Ez nago ados. Gero eta hobeto ikusten dut hainbat arlotan mugatuta gaudela, buru-mailan, hormona-mailan, eta horrek eragina izan dezakeela uste dut".

Maisua

"...Zeren neska eta mutilaren izakerak ezberdinak dira, neska zabalagoa da".

Biztanleria

"Nire iritziz, arazo honek ez du sexuarekin zerikusirik, hezkuntzarekin baizik. Pertsona bati esan edo irakatsi egiten zaio edo irakatsi egin zaio gizonak ez duela negar egiten".

Maisua

"Hormona kontua izango da".

Biztanleria

Berriro ere, maskulinoa delakoa eta femeninoa delakoa balioztatzen dira. Samurtasuna, sentiberatasuna... emakumeei atxekitako baloreak badira, nekez onartzen da gizonak balore horiek bereganatu ditzatela, ia-ia naturaren aurkako zerbait balitz bezala. Emakumeak bereganatutako balore maskulinoekin, aldiz, ez da horrelakorik izaten.

"Era berean, mutilen bat maskulinitzat jotzen denetik kanpo badago, baztertua izango da; eta neskato bat mutilen artean badabil marimutil esango diote".

Maisua

"Mutikoa sentikorra denean ere maritxu entzuten da".

Biztanleria

"....Eta aita beldur zen "maritxu" bihurtuko zelakoan".

Biztanleria

Zenbait gizonak, dagoeneko, sentimenduen adierazpena erreibindikatzen dute, estereotipoen arabera orain arte ukatu zaien adierazpena, alegia.

"Gizona emakumea bezain samurra da, baina hark ez du bere samurtasuna erakusten. Ez da behar bezala balioztatu, zeren, jakina, giza-begirunea ezinbestekoa dugu, inor ere ezin gara begirunerik gabe bizi".

Biztanleria

"Zer gertatzen da, bada, emakumeek baino ez ote dituzte jaistaldi edo depresioak izaten?, eta gizona ez dute izaten, ala?".

Biztanleria

"Nire iritziz, emakumeak irakatsi edo atxeki zaizkion baloreak gizonak atxekitakoak baino hobeak dira, eta emakumeak atxekitako baloreetarantz jo beharra dagoela uste dut, ez dakit, ulertzen?".

Biztanleria

"Alde horretatik balore hobeak iruditzen zaizkit eta nire ustez, gizonak nahiz emakumeak, gizateriak oro har, bide horretatik jo behar duela uste dut, egokiagoa baiteritzot".

Biztanleria

"Eta ez, nik ez dut uste emakumeak maskulinitate behar direnik, gizona femininitate baizik".

Biztanleria

Pertsonak genero estereotipoen menpe daudenetik, bai gizonak eta bai emakumeak mugatuak dira, ez baitute askatasunik nahi bezalakoak izateko eta nahi bezalako adierazpideari jarraitzeko.

Emakumeek gizonen ereduak bereganatu beharrean aurkitzen badira ere, ereduok gehiago balioztatzen baitira, gizonak ere mugatuta daude, zeren ezin diezaiekete emakumezkoenak omen diren ereduak; hortaz, gero eta argiago dago hezikidetzaren beharrezkoa dela, maskulino eta femenino deituriko ereduak batera ditzan sistema berri bat, alegia.

7

IKASKETA ETA LANBIDE MASKULINOAK ETA FEMENINOAK

Eskolatzean nahiz ikasketa-curriculumean ezberdintasunik nabari ez bada ere eta neskek eskolan mutilek baino emaitza hobeak lortu ohi dituzten arren, haiek femeninotzat hartu ohi izan diren eta askotan lan arloan gutxiago balioztatzen diren ikasketa eta lanbideak aukeratzen dituzte finean. Eta honen arrazoia zera da, tradiziozko jokabideen arabera gizarteratuak izan direnez gero, aukera-berdintasuna gezurrezkoztat jotzen dutela, gezurrezkoa eta lanaren gizarteraketak mugatutako giza-harremanetarako arau eta ereduaren poderioz oztopatua, alegia.

Elkarrizketatuak izan direnek ere egiaztatu dute emakumeek, euren ama-zeregina proiektatuz eta kanporatuz, zaintzaile eta hezitzaile gisa mugatzen dituzten eginkizunak betetzera zuzendutako ikasketa eta lanbideetarako jo ohi dutela.

"Irakaskuntza edo erizaintza, eta gainera, femeninoagoa edo da aguretxoak eta abar zaintzea".

Maisua

"Baina, oraindino, ingeniartzako ikasgela batera bazoaz mutilen kopurua askoz ere handiagoa da".

Maisua

"Nolanahi ere, Gasteizen, adibidez, ez dakit... filologia fakultatea neskaz beterik dago eta ingeniartzakoa gizonez".

Biztanleria

"...Neskei baino ez dagozkien ikasketak. Beste ikasketa batzuk mutilei lotzen zaizkie, batek daki zergatik, nik ez: ingeniartza mutilei lotzen zaie, nire ustez, erizaintza neskei... idazkaritza ere neskei. Ez dakit. Ikasketa edo karrera batzuk neskentzat edo haiei zuzendutakoak dira eta beste batzuk mutilentzat; nire ustez ez da familiarengatik... gizarteak berak, gizartearen antolamenduak bultzatzen zaitu karrera batera ala bestera, ikasketa jakin batzutura...".

Biztanleria

Lanbidea hautatzerakoan, ez zaio gaitasunari edo prestakuntzari begiratzen, erantzunkizuna gizarteri leporatzen zaio, eta haren barruan familiari, beroni omen dagokio, rolak eta baloreak ezartzearen, ekonomia eta gizartearen aldetik gutxietsiak diren lanbideak hautatzera daraman bereizkeria edo diskriminazioa.

"Niretzat argi dago, adimen-mailan balio du (emakumeak), arazoa aukeraketan datza, hau da, emakumeek zergatik aukeratzen ote dituzte irakaskuntza edo erizaintza eta ez bestelako karre-rak. Neskato bati zer izan nahi duen galdetzen badiozu, oso gutxitan erantzungo dizute suhiltzaile izan nahi duela, edo nekez aurkituko duzu erizain izan nahi duen mutikorik. Zereginak umetatik daude banatuta".

Maistra

2. mailako OHO ikasten ari diren neskato eta mutikoen esanetan, gaitasuna duen edonork ekin diezaioke edozein lanbideri, indar fisikoa eskatzen dutenei izan ezik.

"Nire ustez, bai mutilak eta bai neskak gerora zer edo zertan aritzeko aukera berberak dituzte, biak baitaude eskola berean. Baina norbait aukera horretaz baliatzen ez bada, bada, berarentzat txarrago".

2. mailako OHOkoko ikaslea (neska)

"Neskak ezin du, (peoi edo meatzari izan), mutilak, bai, hark ez du indarrik eta".

2. mailako OHOkoko ikaslea (neska)

Aukeraketa zaila suerta daiteke, baina, zer gertatzen da lanpostura heldzerakoan?

Nahiz eta teorikoki neskak zein mutilak edozein enplegu lor dezaketen, emakumeak badaki hainbat arlotan, behinik behin, oso zaila eta batzutan ezinezkoa ere gertatuko zaiola bere gaitasunak erakutsi eta garatzea.

"Bulegoa utzi nuenean, INEMera joan nintzen eta kategoriaz langile-buru nintzenez, esan zidaten lehen gauza zera izan zen: ezin aurkituko duzu lanik, langile-buru eta emakumea izanik ez zaitu inork hartuko".

Biztanleria

"Zeren lana eskatzera doaz eta ezetz esaten diete. Emakumea delako edo dena delako. Zeren enpresariak ere halakoetan pentsatzen du eh?".

Biztanleria

"Nik ikusi dut, Enpresa Zientzietako 5.a ikasten ari nintzela, gogoratzen naiz L.A.K.rako mutilak eskatzen zituztela, eta mutila izan behar. Jakina, emakumezkoentzat kolpe latza izan zen, itxaropenik gabe geratu ginen. Eta hainbat lanpostutara jo dut eta argi eta garbi esaten dizute: nahiago ditugu gizonezkoak. Auditorietan argi eta garbi esaten dizute, nahiago dugu gizon bat zuk baino espediente txarragoa izanik ere".

Maistra

Beste alde batetik, lan arlora heldutakoan, emakumeek balore maskulinoak erabat nagusi direneko mundua aurkitzen dute: oldarkortasuna, lehiakortasuna, harremanen hierarkizazioa, etab. Eta baldintza berberez jokatu nahi badu, ezinbestekoa zaio balore horiek bereganatzea, nahiz eta askotan gogorra eta nekosoak gerta dakioken haietara egokitzea.

"Enpresak helburuak bete ditzan pertsona bat interesatzen zaio, dela gizona, dela emakumea. Kasu honetan oldarkorra beharko du izan helburu jakin batzuk betetzeko".

Biztanleria

"Orain oldarkortasunaren garaia da, eta emakumeak, lanpostua erdietsi nahi badu, oldarkorra izan behar du".

Biztanleria

"Kritika, batzutan, gizonengandik dator, eurek baino gorago heldu den emakumea kritikatzeko dute, irigarri uzteraino ere bai, eta egiten duen lanarekin zerikusirik ez duten alderdiak aipatuz. Gizonei, ordea, ez zaie halakorik egiten; eta emakumeak askoz ere gehiago exijitzen zaio eta bestelako alderdiak kritikatu...".

Maistra

"Gaingitzen zaituen unetik, jo eta ke ekiten diozu zeuk hura gaingitzeko. Nik giro hori OHOk 5. mailatik bizi izan dut".

Maistra

Egoera honek, batetik, tentsio psikologiko handiak sortarazten ditu eta, bestetik, emakumeen eguneroko bizimodua, gaur egungo ideologia eta gizarte-baldintzak aintzat harturik, gaingitzen oso zailak diren kontraesanez beterik izatea.

Kontraesan horietatik arrakasta izateko beldurrezko jokabideak eratorriko dira, erdiespenerako motibazio ahulagoa eta emakumeak atxekitako rol eredugarria kolokan jarriko ez duten karre-rak eta lanbideak hobestea.

Eztabaida-taldeetan, emakumeek lehiatzerakoan nola ikusten duten euren buruaz galdetzean, piztiak, setatiak, zirinak, harroak, saputinak eta antzerakoak aipatu dituzte.

"Nik ikusi dudanaren arabera, emakumea askoz ere lehaitiagoa da, lehiatia eta nekarazlea ere bai".

Ikaslea (neska)

"Lehiatia, zitala delako, zirina, setatia eta egoskorra".

Biztanleria

Hauexek dira, beraz, gizonarentzat onartuak izanik emakumearen kasuan gaitzeritziak diren baloreak, berauen alde okerrak aipatuz: zitala, ez oldarkorra; setatia, bere ideiei eusten ez diena; zirina, gutxi eskatzen duena; harroa, seriotasun eta eraginkortasunik gabea; nekarazlea, geldoa bere eginkizunean.

Beste alde batetik, emakumeen iritziz, ama izateko gaitasuna oztopo bat gertatzen zaie lanposturen bat lortu ahal izateko. Are aukera gutxiago izaten dute, gainera, haurdun suertatzen direnean, badakite baldintza berberak izanez gero, enpresak arrazoi hori erabiliko duela gizona hobetsi eta kontratatzeko.

"Bai, eskubide bat dela deritzot, baina, era berean, gure aurkako bihurtzen da" (amatasunagatikko baja).

Maistra

"Izan ere, emakumea, gizona ez bezala, haurdun suerta baitaiteke eta 9 hilabetez bajan egon, eta gero amatasun-aldian ere bai. Hortaz, enpresari, ekonomiaren aldetik, gizona komeni zaio".

Biztanleria

Emakume batzuk hasiak dira lan arloa eta beronen arau maskulinoak kritikatzeko, eta arlo biak, hau da, familia eta lana, egokitzea nahiko lukete, arlo publikoa eta pribatua orekatzea, alegia.

"Etxetik kanpoko lana gehiegi balioztatzen da, soldatagatik, merituengatik... eta etxekoa gutxiegi balioztatzen da eta horrela familiaren balioa ere galdu egin da".

Biztanleria

"Funtsezko baloreak galtzen ari dira, etxea behar den moduko armoniaz zaintzea, janariak arretaz prestatzea, umeekin jolasean denbora ematea..."

Biztanleria

Lanean lehiatu beharrean aurkitzen bada ere, emakumeak ez dela gizona bezain lehiatia uste du, beste balore batzuk kontutan hartzen dituela eta berarentzat ez dela gizonarentzat bezain garrantzizkoa gizarte eta ekonomi begirunea. Lan munduan eta arlo publikoan izan arren, funtsezkotzat ditu bere mundu pribatua eta familia, gizarteak ezarritako balore maskulinaok bereganatzera behartuta dagoelarik.

"Nik garbi daukat. Nire bulegoko emakume zuzendari bati 17 urte kosta zaio horra heltzea, seme-alabak ditu, bere lana oso garrantzitsua da harentzat. Baditu zenbait gauza, haren lekuan legokeen gizon batek ez lituzkeela horren hurbil edukiko..., baina, edozein unetan bere semeak zer edo zer behar duela..., bada, alde egiten du".

Biztanleria

"Nik uste dut emakumea bigarren maila batera pasa dela lanpostu horiei uko egiten dielako beste gauza batzuren truke".

Maistra

"Nire iritziz, emakumeak, oro har, ez du horrelako igurikapenik, gizona, ordea, sekula ere ez da konforme dagoen moduan eta gorago heldu nahi du. Emakumea lanpostu bati heldu eta bertan gelditzen da. Gizona, aldiz, gehiago saiatzen da eta, jakina!, gorago heltzen da".

Maistra

"Gizonentzat nagusitzea balore bat da, guk gozatzea hobesten dugu".

Biztanleria

Familia barruko birsorkuntza-lana emakumeen bizkar dago, orain arte bezala, eta eginkizun horrek emakumeengan ez ezik enplegatzaileengan ere eragina du, hauei, emakume bat hartzerakoan, beti burutzatzen baitzaie zaintza: umeak, gaixoak, zaharrak,..., hots, familiarekiko ardura eta birsorkuntzari zor zaionak lan absentismoa ekar lezakeela.

Testuinguru honetan, emakumeen aukera-berdintasunak itxura hutsa dirudi, gezurrezko berdintasuna, lanaren sexu-zatiketak eta beronetatik eratorrirako genero-ereduen hierarkiak mugaturiko arau eta giza-harremanetarako ereduak oztopaturikoa, alegia.

Ezinbestekoa da emakume eta gizonen gizarte-rolen erabideetan zuzen-zuzenean eragitea, bai batzuk eta bai besteak beren gizarte-guneak eta erantzunkizunak birkoka ditzaten oreka berri batera helduz.



ALDAKETARAKO AHALBIDEAK

Elkarrizketetan zehar zenbait taldekide aldaketa baten alde agertu dira, egoera justuagoa eta berdina goaren alde, hain zuzen.

Denek dakite zein zaila den aldaketa hori. Batetik, denbora asko eman beharko dela uste baitute eta, bestetik, eginkizun horretan giza-talde guztiek batera parte hartu beharko luketelako.

Genero-estereotipoak larregi baitaratu dira dagoeneko, eta gehiengoaren bilakaera, nahitaez, oso geldiro gauzatuko da.

Etorkizunari nolabaiteko eszeptizismoz begiratzen zaio, aldaketak benetan gauzatu arte denbora askotxo igaroko delakoan baitaude.

Gaur eguneko egoerarekiko kritika azaldu duten gazteek ere, 12/15 urte dituztenek, eurentzat oso zaila dela uste dute eta ezinezkoa iruditzen zaie euren belaunaldian eragina izan lezakeen pentsamolde eta jokaera-aldaketarik ezagutzea.

"Nik uste dut orain hemen garenok, bada, kial, oso mentalizaturik gaudela eta kosta egingo zaigula aldatzea".

2. mailako OHO ikasten duen mutila

"Baina hori gizaldi bat izan dela uste zaigula uste dut eta lan handia beharko dela guzti hori aldatzeko".

2. mailako OHO ikasten duen neska

"Ez deritzogulako horren garrantzizkoa izango da" (oraingo egoera).

2. mailako OHO ikasten duen mutila

"Gizartean jarrera-aldaketa bat izan ezik, horrek ez du eraginik izango, eta nola lortu jarrera-aldaketa hori? Lehenengo eta behin aldaketa benetan nahi dugun jakin behar".

Maistra

Helduak, hala maisu-maistrak nola biztanleak, birhezkuntzaren alde agertzen dira, pentsamolde berriak eta, batipat, jarrera eta jokabide berriak barneratzeko epe bat emanaz.

"Berdintasunerako birhezi. Hiru edo lau gizaldi barru, agian".

Biztanleria

"Lan oso nekoso da eta ezin aldatu daitezke egun batetik bestera aspaldian bereganatutako zereginak. Astiro joan beharra dago eta ez harrapaladan. Bat batean aldatzen denak porrot egiten du. Gizarteak bereganatu egin behar du aldaketa, aurkituriko akatsak eraldatuz joan behar da".

Maisua

"Gizarteak berak aldatu behar ditu astiro-astiro, hezkuntzan, batez ere, etxetik bertatik eta eskolatik, beheko mailetan, batipat".

Maisua

"Hori orokortuko bada, urte asko igaro behar dira, zeren, gizonak lan batzutan eskuhartzen dituen bikoteen kasuan ere emakumeak izugarri kosta zaio hori lortzea... demasa kosta zaio!, eta beti dira lan jakin batzuk ez denak, noski".

Maisua

Beste sektore bat ezkorrago ageri zaigu.

"Tradizio bat dela deritzot, aldaezina dagoeneko".

2. mailako OHO ikasten duen mutila

"Beti izango baita arazo berbera".

Maisua

"Gizonek, euren eskubideak galdu nahi ez dituztelako eta emakumeak euren artean ere kontraesanetan dabiltzalako, tira, beste inor gabe... amak berak irakasten dizkizu zenbait balore. Gure artean ere ez dago adostasunik".

Biztanleria

Aldaketari zeinek ekin behar ote dion planteätzerakoan erantzunkizunen mugapena azaltzen da, eta gizarteari, oro har, eta gurasoei, bereziki, egozten zaie genero estereotipoen besterenganaketa honen erantzunkizuna.

"Nik % 50ean bananduko nuke (estereotipoen besterenganaketa) gizartearen eta gurasoen artean".

Maisua

Etxean ikusten denarenagatik".

2. mailako OHOkoko ikasleak

Familia eta emakumea, bereziki, aipatzen dira aldatu behar denaz galdetzerakoan.

"Aldatu beharra dago eta bereziki emakumeak".

Biztanleria

"Funtsezkoa da, sarritan aipatzen dira eskubide-berdintasuna eta gainontzekoak, baina emakume askok ez dute halakorik nahi".

Maisua

"Gauzak honela, emakumea gauzak oso ondo egin beharrean aurkitzen da".

Maistra

Beste batzuren ustez, arauak ezarriz lortuko litzateke aldaketa, baina iritzi honek eztabaida sortarazten du taldekideen artean.

"Nire ustez, aldaketa izango bada, legokiokeenak ezarritako jokabide-arauen aldaketa bat beharrezkoa da".

Biztanleria

"Baina pertsona batek izakera berezia badauka, eta matxista bada, egundoko arauak ipini arren, haren jarrerak besterenganatu egiten dira".

Biztanleria

"Berriro ere arauak helduz, ni mutila nintzela ez zegoen ikasgela mistorik, atsedenaldiak ere ezberdinak ziren, agintariak mutiko eta neskatok ikasgela berean egon zitezkeelako araudia ematea erabaki zuten arte. Eta aurrera egin zen, arau bati esker, horren ezean, orain ere, lehen bezala izango ginateke eta".

Biztanleria

Orain arte hezkuntzan egindako lana ezezaguna da edo ez da aintzat hartzen. Emakundek Telebistan ateratako iragarkian baino ez dira aipatzen, egokiak iruditzen zaizkiela.

"Nahikoa jende dago... nik ez dakit nola esan, nik modernoa esaten diot, ideia askotxo joan direla, ez dakit, feminista asko dago".

Maisua

"Feminismoa, nik uste... egiten dutela, are gehiago, gehiegizko planteamenduekin joan direla uste dut eta orduan..."

Maisua

"Funtsezkoa da sinestea ala ez sinestea. Izan ere, beti iruditu baitzait feministen garrasiak batzutan..."

Maisua

Beste aldaketa-hautabide batzuk etxeko lanaren balorazioari dagozkio.

"Funtsezkoa, eta printzipio gisa hartu beharrekoa, zera da, emakumea, edozein lanetan ari dela, gizonaren parean dagoela uste eta jakin behar duela, eta kitzo!"

Biztanleria

"Baina ez zaio zor zaiona aitortzen, hor dago koxka, ez zaiola aitortzen. Emakumea etxearen erantzunkizuna du bere gain, ekonomiarena, umeena, eskolarena, eta, ia-ia senarrarena ere bai, hark janzten baitu, oinetakoak harri eta den dena egiten baitio".

Biztanleria

"Horrek zera dakar, emakumea amatasunari zuzenean loturiko eginkizunetan eta nolabait bazterreko lanetan aritzen dela. Azkenean hemen frogatzen ari da, gure familietan, gurean, esate baterako, gure amak askozaz ere garrantzizkoagoak diren eginkizunak betetzen dituela. Gure amak ez du lanik egiten, gure aitak bai. Baina gizarte-mailan..."

Biztanleria

Aldaketa, berdintasuna, izango bada, genero estereotipoak ezabatu beharra dago eta, horretarako, eskolatik, familiatik... gizartearen erakunde guztietatik ekin behar zaio ezberdintasunaren eta sexu-bereizkeriaren aurkako burrukari.

Burruka horrek hiru maila ditu:

- Sexismoa mugatu, agirian jarri eta salatu.
- Teoriazko eta kontzeptuzko gaiei esanahi eta muga berriak atxeki, beste ikuspegi eta balorazio batzutatik abiatuz.
- Ekintza positiboa burutu, dauden baldintzak aldatzeko aukera eman dezakeen etengabeko ekintza, alegia.



ONDORIOAK

- Taldeak osotzen dituztenetako gehienek ez dakite zer esan nahi duen hezkidetzaz hitzak, maistrei ezagunagoa zaie, baina, hala ere, zaila gertatzen zaie haren esanahi zehatza agertzeara.
- Irakaskuntza mistoa talde guztiek ontzat ematen dute, zeren, haien esanetan, sexu bien arteko berdintasunezko harremanak izateko aukera ematen duelako eta ikasgaiak berdinak direlako.
- Neska eta mutilekiko tratuari dagokionez, hezkuntza sisteman izan daitezkeen ezberdintasunak direla-eta, iritziz ezberdinak daude taldeen arabera. Ikasleek, adibidez, ikasketa-mailan tratatu berdina jasotzen badute ere, mutilei agerik gehiago egiten zaiela adierazten dute. Irakasleek, berriz, tratatu berdina ematen ahalegindu arren, era ezberdinez ikusten dituztelako ahalegin hutsa suertatzen dela diote. Gurasoen ustez, ez dago tratatu ezberdinik, eta zenbait kasutan ez dira horren ados, zeren mutilak neskak bezala hezitzen baitituzte.
- Neska eta mutilengandik espero daitezkeen hiza egiterakoan, halaber, genero estereotipoak nabarmentzen dira. Mutilentzat neskak: langileak, herabetiak, arduratsuak, finak, kaskarinak... dira; mutilak neskentzat, berriz: ausartak, astakiloak, hobeak direla uste dutenak, indartsuagoak... Biztanleriaz osotutako sektorean ere estereotipo berberak agertzen dira.
- Irakaslegoaren sektore bat estereotipoetan oinarritutako hezierak ikasleengan duen eraginaz jabeturik dago.
- Pertsonaren askatasunezko garapena eragozten duten rol maskulino eta femeninoen giza-eraketaren aurkako abotsak ere hasi dira entzuten jadanik.
- Talde guztiak bat datoz eredu horiek lehenengo eta behin familian ikasten direla eta gerora eskolan sendotzen direla adierazterakoan. Amari legokioke, halaber, ohizko rolen besterenganaketaren erantzunkizun nagusia.
- Pertsona batzuren iritziz, ez dago rola aldatzeko interesik, horrek gizonen aurkako ondorioak ekarriko lituzke eta.
- Genero estereotipoen besterenganaketari dagokinez, halaber, irakaslegoaren eragina ere nabari omen da taldekideen iritziz, maisu-maistrek sendotu egiten baitute aurretiaz familian ikasitakoa.
- Maistrek eskola sistemako lehen mailatan duten eragin handia azpimarratzen da eta eragin hori, mailaz igon ahala, gero eta txikiagoa dela. Ikastetxeetan genero estereotipoak jarraitzen zaie oraindik: Maistrak aurrekolara, maisuak 2. mailara, zuzendaritza maisuen ardurapean egoten da gehienetan, nahiz eta maistra gehiago izan.
- Ikasleek, boladaren aurka joatea eta ohizko roletatik ateratzea oso zaila dela adierazten dute.
- Testu liburuei dagokionez, ikaslerik gazteenek, OHOk 2. mailakoek, gizonak eta mutilak gehiagotan agertzen direla ez ezik, zeregin oso ezberdinetan aritzen direla ere egiaztatu dute. Jolas-liburuetan ezberdintasun horiek ere nabarmenagoak direla adierazten dute.
- LH, BBB eta Unibertsitateko ikasleek, berriz, hori behereneko mailatan gerta daitezkeela diote, baina beraiek orain erabiltzen ari diren testuetan ezetz.
- Gurasoek ez dituztela testu liburuak behar bezala ezagutzen adierazten dute eta, horrenbestez, gai honek ez du eztabaidarik sortu euren artean.

- Talde guztietarik, maistrena izan da testu liburuetan dagoen sexismoari argien erreparatua, maisuek, aldiz, ez deritzote horren garrantzizkoa gai honi.
- Sexuaren araberrako gaitasun-ezberdintasunak, ordea, eztabaida biziak sortarazi ditu taldekie-
deen artean.
- Adimen-maila dela-eta, gehienek ustez ez du sexuarekin zerikusirik. Hala ere, eta adimen-
gaitasunak ezberdinak izan daitezkeenik ukatu egiten duten arren, zenbait helduri zalantza-
kutsua antzematen zaie.
- Gazteenak dira, 12-14 urte dituztenak, adimenean ez dagoela ezberdintasunik adieraztera-
koan zalantzarik gutxienez agertu zaizkigunak.
- Bai ikasleek eta bai maisu-maistrek, ikasketetan neskek emaitza hobeak lortzen dituztela
egiazta dute. Horren zergatiaz mintzatzerakoan denok bat datoz eta neskek arduratsuagoak
eta setatiagoak direla adierazten dute.
- Gaitasun fisikoari dagokionez, heldu guztiak bat datoz hura genetikoki mugatua dela esate-
rakoan. Gazteenek, berriz, ezberdintasunak entrenamendutik eratortzen direla eta bi sexuek
emaitza berberak lor ditzaketela uste dute.
- Denak datoz bat, halaber, zirrara eta sentipenak agertzeari dagokionean emakumeen eta gi-
zonen jokabideak ezberdinak izan ohi direla adierazterakoan. Zergatiaz galdetzean, ordea, iri-
tzi bereiziak azaldu dira: Batzuren ustez, hasieran jokabide berdinak izanik ere, neskek eta
mutilek jasotako heziera ezberdinaren poderioz sortzen da ezberdintasuna. Beste batzuek,
aldiz, ezberdintasun horiek sexu bakoitzak berez dituen gaitasunengatik gertatzen ote diren
galdetzen dute.
- Zenbait gizonek, berriz, sentipenak agertzeko ahalbidea erreibindakatzen dute beraientzat ere,
gizarteak eragotzi egin dien ahalbidea, alegia.
- Emakumeek, beren ama-rola proiektatu eta kanporatuz, zaintza edo hezierari loturiko zeregi-
netan aritzeko ikasketetara edo lanbideetara jotzen dutela nabari da.
- Aukeraketa egiterakoan ez da prestakuntza-gaitasunen ezberdintasuna kontutan hartzen. Ja-
sotako hezierari egozten zaio erantzunkizuna, ezarri zaizkien rol eta balorei, orain, aukeraketa
murrizten dietenei.
- Lan mundura heltzean, emakumeek euren lan gaitasunak erakutsi eta garatzeko oztopo ge-
hiago izaten dituztela adierazi da. Horrez gainera, balore maskulinoek erabat mugaturiko
mundua aurkitzen dute; oldarkortasuna, lehiakortasuna, harremanen hierarkiazioa... eta haie-
tara egokitu beharra dago.
- Taldeetan, lan munduari dagokionez eta gizonentzat onetsitako baloreak oinarritzat harturik,
emakumeak atxeki zaion definizioak ere badu bere erdinu-aldea: hiko erdeinuzkoa: zitala, ez
oldarkorra; setatia, bere ideiei eusten ez diena; zirina, gutxi eskatzen duena; harroa, serio-
tasun eta eraginkortasunik gabekoa; nekarazlea, geldoa bere eginkizunean.
- Lehiatu beharra badauka ere, emakumeak gizona lehiatiagoa dela uste du, berak beste ba-
lore batzuk ere kontutan hartzen ditu eta berarentzat, gizarte eta ekonomiaren aldetiko be-
girunea ez dira gizonarentzat bezain garrantzitsuak.

- Lan munduan eta arlo publikoan diharduen arren, balio handia ematen die bere eremu pribatuari eta familiari.
- Aldaketarako ahalbidea oztopoz beterik eta oso urrun ikusten da. Helduek birheziera orokor baten alde agertzen dira, pentsamolde berriak eta, batez ere, jarrera eta jokabide berriak baitaratzeko denbora emanaz.
- Taldeen ustez, eginkizun hau gizarte osoari dagokio, denok ahalegindu beharra dago. Hezkuntzan orain arte egindakoa ez da ezagutzen edo ez da kontutan hartzen.

Ondoren adierazten den bibliografia erabili da:

Arregi, Paki eta beste batzu "Impacto del programa de Iniciación Profesional". EHU, 1990.

Cuadernos de pedagogia:

- Gehigarria, 6 zk., "Mujer y Educación", 1977.eko uztaila-abuztua.
- Gehigarria, 60 zk., Subirats, M. "Educación y mujer, un balance europeo". 1979.eko abendua.
- Gehigarria, 118 zk., "Por una educación no sexista." 1984.eko urria.
- Gehigarria, 161 zk., Subirats, M. "Una profesión mayoritariamente femenina."
- Gehigarria, 171 zk., 1989.eko uztaila-abuztua.

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea. "E.A.E.ko emakumeentzako ekintza positiborako egitasmoa, 1991-1994".

Feminario de Alicante. "Elementos para una educación no sexista. Guía didáctica de la coeducación". Valentzia, Victor Orenga, argitarazleak. 1987.

H.Z.M. "Guía para una educación física no sexista". 1990.

H.Z.M. "Mujer y educación". Revista de Educación, 290 zk., monografikoa. 1989.

Moreno, M. "Como enseñar a ser niña: El sexismo en la escuela". 1986.

O.C.D.E. "La educación de lo femenino". Bartzelona. Aliorna argit. Teoría y Práctica. 1987.

Sau, Victoria. "Ser mujer: el fin de una imagen tradicional". Bartzelona, Icaria-8 de marzo.

Singer, Robert. "El aprendizaje de las acciones motrices en el deporte". Arg. Hispano Europea. 1986.

Subirats, Marina; Brullet, Cristina. "La transmisión de los géneros en la escuela mixta". Larrosa eta Urdina Saldoa. Kultura Ministraritza. Emakumearen Erakundea. 1988. Kultura Ministraritza.

Hainbat Emakumeren Lanak. "Primeras Jornadas Mujer y Educación". Kultura Ministraritzako Argit.. Emakumearen Erakundea. 1985. Documentos Saldoa, 3 zk.

Hainbat Emakumeren Lanak. "El sexismo en la enseñanza". Hezkuntza eta Zientzia Ministraritza. Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza Nagusia. 1987. Documentos y Propuestas de Trabajo Bilduma.

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntza eta Zientzia Ministraritza 1987.